


Euskal kulturaren diagnostikoa eta politika publikoetarako norabide proposamenak

2017ko maiatza



AURKIBIDEA

AITZIN SOLASA	4
> Euskal kulturaren antolaketa instituzionala	5
> Txosten honen egiteko metodologia.....	9
 LEHEN ZATIA - EUSKAL KULTURA OSATZEN DUTEN EREMUEEN DIAGNOSTIKO	
AZTERKETA SINTETIKOAK ETA GOMENDIOAK.....	12
> Euskarazko literatura.....	13
> Bertsolaritza	17
> Euskarazko ipuina.....	20
> Euskarazko antzerkia	22
> Ekitaldi erritualak.....	27
> Euskal dantza.....	29
> Musika tradizionalak.....	32
> Gaur egungo musikak	36
> Kantu tradizionala euskaraz	39
> Koru kantua euskaraz	43
> Argazkilaritza	46
> Zinema/lkus-entzunezkoa euskaraz	49
> Arte plastikoak.....	53
 2. ZATIA - EUSKAL KULTURAREN ALDEKO NORABIDE ESTRATEGIKOEN PROPOSAMENAK.....	56
1. norabidea > Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu	58
2. norabidea > Publiko guziengana hedatu eta sustatu	63
3. norabidea > Belaunaldi gazteei transmititu	67
4. norabidea > Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu	71
5. norabidea > Euskara eta euskal kulturaren arteko lotura bermatu, bereziki transmisioari dagokionez	73
6. norabidea > Mugaz gaindiko harremanetan osagarritasunak xerkatu	75
7. norabidea > Behatoki funtzio bat ezarri.....	77
 BURURAPENA	79
 ERANSKINAK	82
1. eranskina: Definizioak eta glosarioa.....	83
2. eranskina: Elkarriketatuen zerrenda.....	85
3. eranskina: Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren oharra: dispositiboen deskribapenari hitzaurrea: euskal kultura departamenduaren dispositiboetan	86
4. eranskina: Akitania Berriko Kgez-ren (<i>Drac</i>) oharra euskal kulturaz EHE HELEP berrian.....	88

AITZIN SOLASA

2015-2016 artean Ipar Euskal Herriko gobernantzari buruzko eztabaiden baitan, EKAHAS-ek (Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikata) euskal kulturarentzat nahi dugun antolaketa moduaz hausnarketa bat bideratu du, “Ipar Euskal Herriko HELEP” baten antzeko bilakaera instituzionala gertatuko balitz.

Gogoeta horretan EKE-rekin (Euskal kultur erakundea) harreman erregularrak izan dira. EKE-k bere kide diren kultur elkarteei lan hura aurkeztu zien 2015eko azaroaren 2an egin zen kontzertazio bilkura batean, ekarpenak jasotzeko xedearekin.

“Euskararen eta euskal kulturaren politikak Euskal Herriko gobernantza berriari begira” (2016ko otsaila) deituriko dokumentuak, euskal kulturaren berezitasunez eta gobernantza moduaz lehen diagnostiko baten oinarriak ezartzen zituen.

Argi ageri da euskal kultura ez dela isolatu behar, baizik eta kultur politika orokorrago batean sartu, baina, kultur politika publiko ororen norabide eta helburuetan “euskal kultura” horren berezitasuna ongi identifikatuz: ***“integratu ez isolatzeko, eta identifikatu ez desegiteko”***.

EKAHAS-ek Hautetsien kontseiluak Hazparnen antolatu zituen Ipar Euskal Herriko HELEP-aren sortzeari buruzko sakontze tailerren baitan, hausnarketa hori aurkeztu eta bere norabideak defendatu zituen. Gauza bera egin zuen Euskal Hirigune Elkargoaren (EHE) antolatzeko gidaritza batzordean. Beraz, EHE-k euskal kulturaren eskumena hartzeko erabakiak urraspide horrekin bat egiten zuen.

Ikerketa honekin, urrunago joatea proposatzen dizuegu, arlokako lehen diagnostiko bat emanez, proposamen eta norabide estrategiko zenbait adierazteko xedearekin. Hori, euskal kulturaren aldeko etorkizuneko politika publikoaren proiektua diseinatzen lagunduko duen erabakiak hartzeko tresna bat litzateke. Lan hori Euskal Hirigune Elkargoarentzat, bere politika zehaztu eta gauzatzeko baliagarri izan daiteke, baita lurraldeko maila desberdinetan, politika eraginkorragoa, osagarriagoa eta elkarlan gehiagorekin aurreikusteko.

Lehenik, euskal kulturak gaur egun duen antolaketa instituzionala eta honako dokumentua egiteko segitu dugun metodologia oroitarazi nahi dizkizuegu.

> EUSKAL KULTURAREN ANTOLAKETA INSTITUZIONALA

> Euskal kultur erakundearen esku hartzea

1990 hamarkadaren hasieran, euskal kulturaren ardura nagusiki elkarte munduaren eskuetan zen horretan, eta euskararen eta euskal kulturaren aldeko elkarteek bultzaturik, botere publikoek Euskal kultur erakundea sortu zuten.

Elkarte estatusarekin, EKE-k bere baitan biltzen ditu, kultura eskumena duten erakunde publikoak (frantses Estatua, Eskualdea eta Departamendua, eta herriak EKAHAS-en bidez) eta euskal kulturaren diharduten elkarten ordezkariak. Bere betebeharra euskal kulturaren sustapena, garapena eta hedapena egitea da, modu iraunkorrean eta bilakaerak kontutan hartuz.

EKE-ren lehen urteak elkarteekiko harremanak lotzera eta heien sarea lurraldean antolatzen bideratu ziren. Baina geroztik, kolektibitateek lekuko hori hartu dute kultur ekipamenduak sortuz edo lagunduz (irakurketa publikoko ekipamenduak, Herriko oholtzak, musika eskolak, etab.). Herri elkargo gehienek kultura arloan izanen zuten ekintza zehaztu zuten, batzuetan kultura eskumena beren gain hartzeraino. Aldi berean, frantses Estatuak, Eskualdeak eta Departamenduak beren kultur politikak lurraldean zabaltzen zituzten EKE-ren bitartez edo zuzenean. Horiek direla eta, gaur egun ekintza publikoak gehiago parte hartzen du kultura alorrean, lurraldeko eskala bakoitzean, kultura eskumen partekatua izanik.

2012an, eskumen horri aurre egiteko, EKE-k proiektu sustatzaileak laguntzeko funtzioa hartu zuen, erakunde publikoek euskal kultura beren kultur politika publikoetan sar zezaten.

Gaur egun, EKE-ren jarduna sei esku hartze ardatz nagusiren inguruan antolatzen da:

- Euskal kultura politika publikoetan hobeki integratzeko aholkularitza
- “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa” labelari esker, etnologiako ikerketa eta baliabide gune bat sortu, ondare immaterialaren inbentarioa, bilketa eta balorapen lanak segituz, eta “Ondarea-Sorkuntza” gaiaren inguruko ikerketa-ekintza berezia lehenetsiz.
- Euskal kulturari buruzko sentsibilizazioa eta heziketa lana egin, Arte eta Kultura Heziketa-ren (AKH), Eskolaldi Inguruko Jarduera Berrien (EIJB), ikastetxeen arteko proiektuen eta bitartekaritza ekintzen bidez, euskal lurraldean baita akademiaren eskalan ere.
- Egitasmo egituratzaile eta berritzaileak ezarri (euskal zinemaren hedapen dispositiboa, publiko gaztearen laguntza programa, lurraldean antzerkia hedatzeko dispositiboa, argitaletxeen eta disketxeen hedapena laguntzeko dispositiboa, etab.)
- Praktika amatur eta profesionalen iraunkortasuna bermatzen duten elkarteei diru eta teknika laguntza.

- Euskal Herrian eta kanpoan informatu, zabaldu eta komunikatu, bereziki Euskal kultur erakundearen atariarekin eta “SOKA” bezalako erakusketa ibiltariekin.

Urte guzi hauetan EKE-k egin duen animazio eta egituraketa lana handia izan da, eta metatu dituen gaitasunak etorkizunerako altxor estimagarria dira (ikus “25 urteko esperientzia euskal kulturaren zerbitzuko” dokumentua, 2016ko iraila). Kultur eragile profesional eta amaturren laguntza dispositiboa, gaur egun oraindik, euskal kultura sustatzeko tresna nagusietako bat da. Alabaina, elkarre estatusa ukanik, EKE-k ez du kultura politikak erabakitze eskumenik, eta kultura eskumena erakundearen artean partekatua izanik, “euskal kultura” tresna berezi hori kultura politika publikoak diseinatu eta erabakitzen diren gunetatik zatitua da.

> Lurraldez gaineko erakundearen esku hartzea: frantses Estatu-Eskualdea-Departamendua

Kulturari dagokionez, frantses Estatuaren, Eskualdearen eta Departamenduaren esku hartze arlo nagusiak hauek dira:

- **Kultura eta Komunikazioaren Ministerioak** sorkuntza, hedapena, formakuntza eta heziketa laguntzen ditu, ikuskizun bizidunari, kultur industriari, ondareari eta komunikabideen eskubideei buruzko arlo kultural guzietan.
- **Akitania-Berria Eskualdeak** sail elebidunetako lizeo eta lanbide heziketako ikasleei zuzendutako AKH proiektuentzako laguntzak eskaintzen ditu. Sorkuntza laguntzeko, Eskualdean ikuskizun bizidunaren, gaurko musiken, argazkilaritzaren eta arte plastikoen arloan esku hartzen du, eta zinema eta ikus-entzunezkoen ekoizpen eta idazketari ere laguntzak ematen dizkie. Hedapenari dagokionez, Eskualdeak literatura ekitaldiak, festibalak eta ikuskizun bizidunaren hedapen egiturak sostengatzen ditu. Arte garaikidearen hedapen egiturak ere laguntzen ditu, baita zinema eta ikus-entzunezkoen hedapen egiturak eta festibalak ere. Azkenik, kultur industrien kasuan, argitalpen eta ekoizpen fonografikoa, Web telebistak eta lekuko telebistak laguntzen ditu.
- **Pirinio Atlantikoetako Departamenduak** nagusiki ondarea, artxiiboak, irakurketa publikoa eta AKH-ak (departamenduko lehentasunezko publikoei begira, kolegioetako ikasleak), irakaskuntza artistikoa, arte bisualak (arte plastikoak eta zinema), eta ikuskizun biziduna ditu bere esku hartze arloak.
Departamenduaren eta EKE-ren arteko hitzarmen batek EKE-k Departamenduarekin lankidetzan eramaten dituen ekintzak zehazten ditu, lekuko ekintza publikoan osagarritasuna eta eraginkortasuna lortzeko xedearekin. Hitzarmenak hiru esku hartze mota identifikatzen ditu: jakinduria eta aholkularitza, bakoitzak bideratzen dituen ekintza edo dispositiboen inguruan hurbileko elkarlana, eta bereziki ondare fondoak bildu eta lantzeko lanak.

Beraz, lurraldez gaineko erakunde publikoen esku hartzea bi mailatan egiten da:

- Euskal kultur erakundea diruztatu, elkarrekin ordezkariekin batera kudeatzen duten euskal kulturaz arduratzen den organismo berezia dena;

- euskal kultura eskubide arrunteko dispositiboetan sartu.

Baina, euskal kultura eskubide arruntean sarturik eta bestalde EKE-k euskal kulturaren berezitasuna zainduz, ohar gaitezke kolektibitate batzuek beren kultur dispositiboak antolatzen dituztelarik ez dituztela euskal kulturaren berezitasunak aintzat hartzen. Euskal kulturaren inguruko proiektuak eskubide arruntean izanik ere, hots besteak bezala diruztatuak izanik ere, euskal kulturaren berezitasunak ez dira kontutan hartzen. Hortik, integrazio maila desberdinak ematen dira: printzipiozko integrazio bat, eta eskubide arrunta egokitzerainoko integrazio bat.

Hortaz, Kgez-aren eta bereziki Departamenduaren ekimenak izanik ere, ohartu beharra dugu, erakundeek beren eskubide arrunteko dispositiboen bidez euskal kulturaren duten esku hartzea mugatua dela. Izan ere, estrategia zehatzik gabe, gehienetan laguntza hori zuzenean eragileetara doa, eta ondorioz euskal kulturaren eremu egituratuak eta profesionalizatuak hunkitzen ditu soilik.

> Euskal Hirigune Elkargoaren esku hartzea

2017ko urtarrilaren 1ean Euskal Hirigune Elkargoa sortu aitzin, lurraldeko hamar herri elkargoek maila desberdinetan esku hartzen zuten kulturaren alorrean, eskumen hori hartu zutenetik. Baina, ohar gintezkeen elkargoen gehiengoak ikuskizun bizidunean eta musika irakaskuntzan esku hartzen zuela.

Herri elkargoetako kultur politikei dagokienez, aipatu behar da ez zirela sekulan, Errobi-Aturri elkargoaren kasuan izan ezik -eskumen hori ez baitzuen bidean ezarri-, elkargoen arauzko eskumen bezala idatziak. Praktikan ordea, elkargo batzuek nahikeriazko politikak eramaten zituzten arlo berezi batzuetan. Hori da Errobi Herri Elkargoaren kasua euskarazko antzerkigintzaren atalean. Gainera, euskal kulturaren musika tresna tradizionalak irakasten dituzten musika eskolen gehiengo batek herri elkargoen laguntza jasotzen zuela ikus zitekeen. Alabaina, elkargo bakar batek ere ez zuen euskal kultura bere osotasunean lantzen zuen politika publiko bat garatu. Herri elkargoek euskal kulturarekiko duten engaiamendua lurralde batetik bestera desberdina zeno, biztanleek kulturarako sarbidean zuten berdintasunaren galdera pausa zitekeen.


2017ko urtarrilaren 1ean sortu zen Euskal Hirigune Elkargoak, urte bereko otsailaren 4ean aho batez euskal kulturari buruzko eskumenak hartzea erabaki zuen, honako terminoetan:

- Arlo kultural eta artistiko guztiak (ondarea, arkitektura, ikuskizun biziduna, literatura, irakurketa publikoa, bertsolaritza, arte bisualak, kultur industriak, etab.) zeharka jorratuko dituen euskal kultura sustatzeko proiektu estrategiko bat asmatuz.
- Proiektu estrategiko hori gauzatu, Euskal Hirigune Elkargoak bere egin dituen kultura eskumenen baitan.
- Herrien kultur esku hartzeen alorrean, herrientzako ingeniariak eskaini eta herriekin edo haien arteko elkargoekin harremanak lotu.

- Frantses Estatua, Eskualdea eta Departamenduarekiko lankidetzak dituzten kultura arloko eskumenen arabera.
- Herriak Euskal kultur erakundean ordezkatuak izatea (EKAHAS-en ordezt).
- Euskal kulturaren behatoki bat ezarri.
- BILKETA proiektuan parte hartu (EKAHAS-en ordezt).
- Euskal kulturaren alorrean mugaz gaindiko lankidetzak lotu EAE eta Nafarroako erakunde publikoekin.

Eskumen horretaz jabetzea EKAHAS-en eta Hazparneko tailerren gomendioen ildotik doa. Izan ere, Euskal Hirigune Elkargoarentzat euskal kultura politika publikoko objektu bilakatzen da. Hortaz, Euskal Hirigune Elkargoa euskal kulturak biltzen dituen arlo kultural eta artistikoen aldeko proiektu estrategiko bat zehaztera eta bideratzera engaiatzen da, bi mailatan esku hartuz:

- Ikuskizun bizidunari, irakaskuntza artistikoari eta AKH-ei buruzko bere politika propioetan zeharka edo zuzenki esku hartuz. Kultura eskumen hauek dira Hazparneko tailerretan gomendatu zirenak. Gaur egun, euskal kulturaz aparte, Euskal Hirigune Elkargoak ez du erabakirik hartu, kultura alorrean hartu nahi lituzkeen eskumenez: legeak bi urteko epea ematen dio horretarako.
- Euskal kulturaren beste arloei dagokienez, adostutako proiektu estrategikoan oinarrituz, kulturaren eskumenak dituzten beste erakundeekin elkarbizketan eta osagarritasunean esku hartuz. Izan ere, kulturaren eskumenak izanik, erakundeek euskal kultura beren politika kulturaletan integrazteko ardura atxikitzen dute.



2016ko otsailean EKAHAS-ek "Euskararen eta euskal kulturaren politikak Euskal Herriko gobernantza berriari begira" egindako ikerketatik ateratako taula

Euskal Hirigune Elkargoak eskumen hori hartu izanak EKAHAS-en desegitea eragin du, eta gaurdanik EHE-ri dagokio, bere eskumen hori aktibatzeke, euskal kulturaren aldeko politika publiko handinahia bideratzea.

> TXOSTEN HONEN EGITEKO METODOLOGIA

Euskal kulturaren eskumena duen Euskal Hirigune Elkargoa agertzearekin, lurraldeko ekintza kulturalaren antolaketa erabat aldatuko da, eta bide batez EKE-ren lekuaren eta rolaren galdera mahai gainean da.

Orduan, EKAHAS-ek EKE mobilizatzea hautatu zuen, euskal kulturari buruzko politika publiko baterako norabideak proposatzeko, EKE-ko lan taldeak azken hogeita zazpi urteotan lortu duen jakitatean oinarrituz.

Ikerketaren xedeak:

- euskal kulturari buruzko ekintza publikoaren esku hartze eremua zehaztu, osagai nagusiak identifikatuz;
- osagai hauetako bakoitzarentzat, transmisioari, praktikei eta sorkuntzari dagokienez indarguneak eta ahulguneak, joerak eta egituraketa moduak eta bilakaerak azaleratu, bai eta, hedapena, balorapena eta sustapenari dagokienez ere, erronkak agerian ezarri;
- Euskal kultura sustatzeko xedearekin, politika publikorako norabide estrategikoak proposatu.

2016ko urritik, EKE-k metodologia eta antolaketa berezia ezarri du EKAHAS-en eskaerari ihardesteko:

- **EKE-ko lan taldeak** banakako elkarrizketak egin ditu eskumeneko kultur arloetako hirurogei bat eragile nagusirekin eta diagnostiko txosten bat egin.
- Erakunde publikoetako teknikariak (Akitania Berriko Kgez-a, Akitania Berriko Eskualdea, Pirinio Atlantikoetako Departamendua eta EKAHAS) eta EKE-ko administratzaileak biltzen dituen **jarraipen batzorde bat** sortua izan da. Bilkura erregularrak eginik, metodologia onetsi zuen eta txostena egiteko lanetan parte hartu du.
- EKE-k, EKAHAS-ek eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduak osatutako **lan talde bat** txostenaren idazteari lotu zitzaion.

Euskal kulturaren arlo ezberdinak (dantza, euskarazko literatura, ipuinak, bertsolaritza, kantu tradizionala, etab.) identifikatzeko eta ikertzeko lan bat izan da. Lehenik, EKE-k euskal kultura osatzen duten arloen lehen diagnostiko bat egin zuen (txostena EKE-ri eskatuz jaso dezakezu). Lan horri, jarraipen batzordeak eta lan taldeak beren emendakinak egin zizkieten. Gero, lan taldeak egituraketa dinamikak ikertu eta euskal kulturaren arlo bakoitzerako gomendioak egin zituen. Ondotik, ikerketa eta gomendio horietatik abiatuz, norabide estrategiak proposatu ziren.

Honela, *“Euskal kulturaren diagnostikoa eta politika publikoetarako norabide proposamenak”* deituriko dokumentua ez da exhaustiboa eta sakondu beharreko lehen urrats bat besterik ez da.

Lehen zatian euskal kultura osatzen duten arloen diagnostiko bat aurkezten du, beren analisia eta gomendioekin.

Bigarren zatian, lehen zatiko gomendioen sintesia eta euskal kulturaren norabide estrategikoak eskaintzen ditu.

Azkenik, eranskinetan, glosario bat eta definizioak, bai eta elkarrizketatuak izan diren pertsonen zerrenda bat aurkituko duzue. Halaber, Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluaren eta Akitania Berriko Kgez-aren nota bana aurkituko dituzue.

LEHEN ZATIA

EUSKAL KULTURA OSATZEN DUTEN EREMUEN DIAGNOSTIKOA



AZTERKETA SINTETIKOAK ETA GOMENDIOAK

Euskal kultura beren artean mugarik ez duten hizkuntza eta kultura adierazpen desberdinetako lurralde batean kokatzen da. Beste kultura guziak bezala, euskal kultura sortzaile eta ikusle bakoitzaren printzipioen arabera aldatzen da, beste kulturekin dituen harremanen arabera eta bere tradizio propioa ere berrinterpretatua delako. Ondorioz, ezin da argiki mugatu eta ezinezkoa da euskal kulturaren eta lurraldeko beste kulturen arteko bereizte argirik egitea.

Halere, euskal kulturak oinarri berezi bat badu, kultura kolektibo batek osatzen duena eta euskararen erabilerak eta berezitasun estetikoek berezi egiten dutena.

Horrela definitua, euskal kulturak eremu artistiko eta kulturalaren alor guziak estaltzen ditu. Txosten honetan identifikatuak diren osagai nagusiak, hauek ditu (zerrenda hau osatzen ahal da): euskarazko literatura, bertsularitza, euskarazko ipuingintza, euskarazko antzerkia, erritoak, euskal dantza, ohiko musika, gaurko musikak, euskal kantua, euskarazko koru kantua, argazkilaritza, euskarazko zinema/ikus-entzunezkoa, eta arte plastikoak.

> EUSKARAZKO LITERATURA

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Argitaratu obrak, sistematikoki, BnF liburutegian atxikiak dira, lege gordailuarentzat. Gainera, euskal literaturari buruzko funtsak badira, mugaz bi aldeetan diren erakunde publiko batzuetan (irakurketa publikoko erakundeak, Baionako Euskal Museoa, Azkue liburutegia, Euskaltzaindia, etab.), bai eta funts pribatuetan ere.
- BILKETAk Frantziako hainbat erakundetan atxiki funtsak zerrendatu ditu (liburutegiak eta mediatekak, unibertsitateetako liburutegiak, dokumentazio zentroak, hainbat funts pribatu). BILKETAre liburutegi numerikoari esker, publiko zabalak zerrendatu dokumentuak aurkitzen ahal ditu, bilaketa tresna bat erabiliz. Bestalde, numerizazio programa batek funts batzuen iraunkortzea ahalbidetzen du. Haatik, gaur egun, BILKETAk ez ditu Hego Euskal Herrian eta nazioartean diren funtsak zerrendatzen.
- BILKETAk eta partaide diren liburutegiek/mediatekek beren euskal funtsaren balioa agerian emateko ekintza adostuak burutzen dituzte. Ekintza horiek buruturik ere, ohartzen gara Euskal Herriko literaturaren historia eta bereziki Ipar Euskal Herriko literaturaren historia oso jende gutik ezagutzen duela.

GOMENDIOAK

- **BILKETA ataria sendotu, besteak beste numerizazio programak segitzeko eta ezagutu eta zerrendatu funtsen eremua (Hego Euskal Herrian diren funtsak, bereziki) zabaltzeko posibilitatea eskainiz.**
- **Euskal literaturaren balioa agerian emateko ekintzak garatu:**
 - ✓ **BILKETA sarean bermatuz;**
 - ✓ **irakaskuntzan, Arte eta Kultura Heziketan, Eskolaldi Inguruko Jarduera Berrietan, etab. lan egiten duten eragileak mobilizatuz.**

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: liburuaren irakurketaren alorrean, familiaren bidezko transmisioa kezagarria da, edozein izanik ere hizkuntza. Euskararen kasuan, egoera hori larriagoa da, buraso gehienak ez baitira euskaldunak. Libreplume elkarteak eta mediateka batzuek burasoen eta haurren arteko irakurketa atelierrak erregularki antolatzen dituzte.
- AHK/EIJB: literatura guti ageri da, eta idazleak, iparraldekoak bereziki, guti gomitatuak dira. Gainera, hizkuntza mailaren desorekak ariketa zailtzen du.
- Irakaskuntza artistikoa: iduriz, ez da eskaintzarik.
- Eskolako irakaskuntza: euskal literaturari buruzko irakaskuntza ez da programetan aipatua. Beraz, lantzen delarik, irakasleek beren baitarik egiten dute.

- Goi mailako irakaskuntza: “Euskal Ikasketen” ibilbideak literatura, klasikoa bereziki, ederki lantzen du. Aipatzekoa da bigarren mailako irakasle gehienak unibertsitate ibilbide horretatik heldu direla baina, iduriz, lehen mailako irakasle guti.
- Euskarri funtzioak: bigarren mailako irakasleek, iduriz, euskal literatura ezagutzen dute, baina lehen mailakoek askoz gutiago. Ondorioz, lehen mailakoek haren irakasteko joera gutiago dute. Gainera, ikasleen hizkuntza maila desorekatuari buru egin behar diote. Azkenik, euskal literaturari buruzko material pedagogiko guti dago, IKAS prestatzen ari den bigarren mailako eskuliburuaz aparte.

GOMENDIOAK

- Murgilketa bidezko transmisioa: burasoak obrak ozenki irakurtzeko beharrari sentsibilizatu.
- AKH/EIJB: euskal literaturari buruzko Arte eta Kultura Heziketa eta, menturaz, Eskolaldi Inguruko Jarduera Berriak garatzeko xedez, eragileen sare bat egituratu.
- Irakaskuntza artistikoa: irakaskuntza artistikoaren alorreko eskaintza baten garatzeko interesa aztertu, irakurketa eta idazketa atelietan modukoa, adibidez.
- Eskolako irakaskuntza: biharko irakurleak eta idazleak formatzeko xedez, irakaskuntza sare elebidunetan eta murgiltze sarean euskal literaturari buruzko irakaskuntza garatu (erreferentzia multzo bat sortu).
- Euskarri funtzioak: lehen mailako irakasleak bereziki euskal literaturaren inguruan eta ikasleen hizkuntza mailak kontuan hartzen dituzten metodo pedagogiko bereziei buruz formatu, eta horri lotu euskarri pedagogikoak sortu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Euskal Idazleen Elkarteak (EIE) Euskal Herri osoan zerrendatu 400 idazleen artean, iparraldean hogeita hamar bat badira.
- Denak amaturrak dira, liburuaren ekonomiaren egoerak ez baitie horretaz bizitzeko aukerarik eskaintzen (*ikus “Publiko guziengana hedatu eta sustatu” zatia*).
- Ipar Euskal Herriko idazleen multzoa zahartzen ari da.
- EKEk hainbat dispositibo plantan eman ditu, sorkuntzaren laguntzeko: idazle gazteei zuzendu Gazteluma diru laguntza, Elkar argitaletxearekin partaidetzan antolatzen duena, eta idazleen egonaldia, Euskal Itsasbazterreko IEZirekin elkarlanean antolaturik.

GOMENDIOAK

Literatura sorkuntzaren laguntzen segitzeko, bereziki idazle gazteen artean:

- Gazteluma diru laguntza antolatzen segitu;
- Komunikabideetan euskal literaturaren eta idazleen sustapena egin (*ikus “Publiko guziengana hedatu eta sustatu” zatia*);
- Euskal literaturaren alorreko transmisioa eta formakuntza garatu (*ikus “Belaunaldi gazteei transmititu” zatia*);
- Sorkuntza egonaldiak garatu;
- Ipar Euskal Herriko idazleen kolektibo baten sortzeko interesa ikertu, EIErekin harremanetan.

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Liburuaren ekonomia: Ipar Euskal Herrian, liburuaren katea osatua da, katebegi guziak badira (idazleak, argitaratzaileak, hedatzaile-banatzzaileak, liburu saltzaileak, irakurleria). Halere, idazle eta irakurle eskasarengatik, euskaraz argitaratzea ez da errentagarria eta kalitate eskasekoa izan daiteke. Horren zuzentzeko, EEPk obren argitaratzeko eta merkaturatzeko laguntzak proposatzen ditu. Gainera, hegoaldeko ekoizpena iparraldeko eskaintzaren osatzera jin daiteke, mugaz bi aldeetan plantatua den Elkar banatzaileari esker. Azkenik, euskal literaturari eskaini webgune bereziak badira (ikus www.armiarma.eus gunea). Iparraldeko obrak kontuan hartzen dituzte.
- Hedapen lekuak: euskal literaturari buruzko bi saloi berezitu badira: Durangokoa eta Sarakoa. Urte guziz Maiatz eta Libreplume elkarteek literatura elkarretaratzeak antolatzen dituzte. Gainera, BILKETAK eta mediatekek euskal literaturaren inguruko animazioak proposatzen dituzte.
- Irakurketa publikoa: 2011n, (PADL/BDPA) erakundeak irakurketa publikoaren sarean egin inkesta batek agertu zuen liburutegiak aski ontsa hornituak zirela, eta funtsen kudeatzeko, agerian emateko eta langileen formatzeko beharrak erakutsi zituen. Behar horiei ihardesteko xedez, BDPA erakundeak, EEPk, Kgez zuzendaritzak, EKEk eta IKASek programa berezi bat finkatu dute “euskal hizkuntza eta kultura, irakurketa publikoaren sarean”. 2014an, programaren eguneratzeko lan bat eraman da, bereziki partaide berri baten integratzeko xedez: BILKETA sarea.
- Hedadura: finantzamendu eskasez, liburu guti itzultzen da eta, beraz, euskal literatura guti ezagutua da Euskal Herritik kanpo, bai eta euskalduna ez den hemengo jendeen artean ere. Ondorioz, nazioarteko saloi handietan guti agertzen da.
- Sustapena – Kultur zilegitzea: euskal literatura komunikabideetan guti aipatua da eta ondorioz guti ezagutua, Euskaldunen artean ere. Dantzarekin edo kantuarekin konparatuz, leku gutiago du irudimen kolektiboan.

GOMENDIOAK

- Liburuaren ekonomia: liburuaren katea sendotu:
 - ✓ eragile pribatuei zuzendu bere proiektu deialdiaren karietara EEPk proposatzen duen obren argitaratzen eta merkaturatzen laguntzeko dispositiboa atxikiz;
 - ✓ idazle gazteen agertzea sustatuz (ikus *“Belaunaldi gazteei transmititu” zatia, eta “Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu” zatia*);
 - ✓ Irakurleria garatuz (ikus *“Belaunaldi gazteei transmititu” zatia, eta beheagoko “Sustapena – Kultur zilegitzea” gomendioak*).
- Hedapen lekuak:
 - ✓ Sarako idazleen biltzarra indartu;
 - ✓ Durangoko Azokan iparraldeko argitaratzaileen presentzia segurtatzen segitu;
 - ✓ euskal literatura hedatzen eta agerian ematen ari diren elkarten lana sustengatu;
 - ✓ hedapen bide berriak aurkitu, diziplinen gurutzatzea sustatuz.
- Irakurketa publikoa: “euskal hizkuntza eta kultura, irakurketa publikoaren sarean” programa eguneratu.
- Hedadura:
 - ✓ obra batzuen itzultzea sustatu, euskara ez dakitenen artean eta nazioartean hedatzeko;

- ✓ Eusko Jaurlaritzarekiko partaidetza aukerak aztertu, nazioarteko azoketan agertzeko.
- Sustapena – Kultur zilegitzea:
 - ✓ Hegoaldeko webgune berezituak (www.armiarma.eus) iparraldeko publikoari ezagutarazi;
 - ✓ komunikabideekiko partaidetzak garatu.

> BERTSOLARITZA

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Euskal Herriko Bertsozaleen Elkarteak bilketa programa bat plantan ezarri du. Tokian tokiko elkarteek segurtatzen dute. Gisa hortan, Ipar Euskal Herrian, Bertsularien Lagunak elkarteak iparraldean egin bertso saioak grabatzen ditu, laguntzaile batzuei eta Euskal Irratiei esker. Bertsozaleen elkarteak artxibatze egitura bat dauka, Xenpelar izenekoa, non bertsolaritzaren memoria atxikitzen, sailkatzen eta agerian ematen baita. Bere webgunearen bidez, bertsolari handien biografiak, bertso doinuak, grabaketan zerrenda, egutegia, etab. denen eskura ematen ditu. Egitura hori Ipar Euskal Herrian guti ezagutua da.
- Gainera, departamenduko artxibategiak bertsolaritzari lotu entzunezko eta ikus-entzunezko artxiiboak atxikitzen ditu. EKEk tratatu ditu eta, bestalde, lekukotasunak bildu, Eleketa programaren kariatara.

GOMENDIOAK

- **Bertsularien Lagunak elkartearen bilketa lana indartu.**
- **Ipar Euskal Herrian Xenpelar ezagutarazi, besteak beste BILKETArekiko partaidetza baten aukera aztertuz.**

> Belaunaldi gazteei transmititu

Ipar Euskal Herrian, Bertsolaritza ez da gehiago familiaren bidez transmititzen. Alta, diziplina hori berpizten ari da, Bertsularien Lagunak elkarteak Arte eta Kultura Heziketaren inguruan eta bereziki irakaskuntza artistikoaren inguruan antolatu transmisio lanari esker.

- AKH/EIJB: 2016an, hiru sareetatik jin 1 700 ikaslek bertsolaritzari buruzko Arte eta Kultura Heziketa/Eskolaldi Inguruko Jarduera Berriak baliatu dituzte. Iduri du, metodo pedagogikoen aldetik, Bertsularien Lagunak elkarteak ikasleen hizkuntza maila desberdinei egokitzen jakin duela. Bertsularien Lagunak elkarteak Departamenduaren eta akademia ikuskaritzaren labelak baditu.
- Irakaskuntza artistikoa: 36 bertso eskolek kasik lurralde osoa estaltzen dute (Amikuzetik kanpo), 250 ikasle bilduz. Eskola horiek ikastoletatik hurbil plantatuak dira. Ikasketa prozesuan zehar, txapelketa batzuetan parte hartzeko aukera bada, Xilaba eta Euskal Herriko txapelketa ibilbideko puntu gorena izanez. Haatik, bertso eskolek herriekin harremana atxikitzeari kasu ematen diote, lekuan lekuko bizi kulturalen parte hartzeko gisan. Departamenduak eta EEPk dituzte eskola horiek diruztatzen.
- Euskarri funtzioak: 5 irakasle-animatzaileak Bertsularien Lagunak elkarteak ordaintzen ditu eta Bertsozaleen elkarteak formatzen. Gero eta ikasle gehiago bada, baina, behar diren diru sartzeak emendatu gabe, jende baliabideak ezin dira garatu. Gainera,

Bertsularien Lagunak elkarteko irakasle-animatzaileek diote euskarri pedagogikoak Ipar Euskal Herriko eta irakaskuntzako hiru sareetako ikasleei egokitu behar zaizkiela.

GOMENDIOAK

- **Bertsularien Lagunak baliabide alorrean (jendea eta finantza) lagundu, ageri den eskasari erantzun ahal izan diezaion, Arte eta Kultura Heziketaren, Eskolaldi Inguruko Jarduera Berrien eta irakaskuntza artistikoaren eremuetan handitzen ari den galdearen aitzinean.**
- **Bertsularien Lagunak material pedagogikoa sortzen lagundu.**

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

4 moduko praktikak ageri dira:

- Praktika parte hartzailea: besta batzuetan, zale batzuek edo praktikatzaile batzuek bertsoak egiten dituzte, lagunen artean.
- Praktika herrikoia: lekuan lekuko elkarte batzuek bertsolariei dei egiten diete, otorduetan, inauterietan, herriko bestetan, etab. kanta dezaten. Lagun artean jostatzeko mementoak dira. Lekuan lekuko publiko mugatu bat biltzen dute. Hau da arte horren harrobia.
- Txapelketak: bi urte guziz antolatua den Xilaba izeneko Ipar Euskal Herriko bertsularien txapelketak hogeit bat bertsolari biltzen ditu. Horietarik gehienak bertso eskoletatik ateratzen dira. Hoberenak lau urte guziz antolatua den Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko sailkatzen dira. Txapelketa hauek komunikabideetan anitz aipatuak dira eta bertsolaritza ezagutarazten anitz laguntzen dute.
- Praktika molde berriak: bertsolaritzak formatu eta eremu berriak bereganatzen ditu, gurutzamen artistikoei leku ederra utziz: erakusketen bisitak, bertsoa eta musika, bertsoa eta antzerkia, haurrentzako ikusgarriak, etab.

Ipar Euskal Herrian, bertsolaritza kasik desagertu zen, baina berpizte bat bizi du, bai bertsularien kopuruaren aldetik, bai publikoaren aldetik ere. Xilabaren arrakasta horren lekuko da. Beraz, bertsolaritza hasten da praktika herrikoiak berriz bereganatzen eta praktika parte hartzailea noiztenka berriz agertzen ikusten dugu. Halere, bertso saioetan biltzen den jendeak ez du Xilabaren inguruan ageri den dinamika islatzen. Txapelketetan parte hartzen duten bertsolariak bertso eskoletatik ateratzen dira. Bertso eskolak bertsolaritzaren berpiztearen oinarriak dira. Euskal Herriko txapelketako zortzi finalistek (zeinetarik bi iparraldekoak baitira), gaur egungo bertsolaritzaren elitea osatzen dute. Arte hori errotik berritzen dute, aldi berean urte guzian kantatuz, bertsolari amaturrekin batean, praktika herrikoieko gertakarien kariatara. Bertsolariek mugaren alde batean eta bestean berdin kantatzen dute.

GOMENDIOAK

Praktika herrikoiaren garapena lagundu, bertso eskolak errotzen segituz eta herriein eramaten duten elkarlana sustengatuz, bertsolaritzak hemengo bizi kulturalen bere lekua berriz har dezan.

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Hedapen lekuak: bertsolaritzari lotu gertakari gehienak leku publikoetan iragaten dira: herriko gelak, plazak, etab. Txapelketen kariatara, bertsolaritza gela handietara ere heltzen da. Alabaina, Xilabako finalak guti gorabehera 2 000 pertsona biltzen ditu eta Euskal Herriko Txapelketako finalak 13 000 pertsona. Iparraldean, Bertsularien Lagunak elkarteak ditu gertakari horietarik gehienak antolatzen, Xilaba barne. Bertsularien Lagunak elkartea bere laguntzaileen sarean eta lekuko elkarteetan bermatzen da eta, horretarako, EKEren laguntza bat eskuratzen du. Gertakari herrikoia goak lekuan lekuko elkarteetan eskutik antolatuak dira.
- Kultur industriak: bere sustapenarentzat eta hedapenarentzat, bertsolaritza kultur industria desberdinetan bermatzen da:
 - ✓ Bertsozaleen elkarteak Lanku enpresa sortu du, baliabideak (materiala eta jendea) Euskal Herri mailan antolatzeko. Ikusgarriak eta mintzaldiak hedatzen ditu, liburuak, CDak eta DVDak argitaratzen, bertsularien *manager* lana egiten du, etab.
 - ✓ Hainbat zinema-dokumental egin dira eta Ipar Euskal Herrian ere hedatuak izan dira.
 - ✓ Euskarazko komunikabideek (Euskal Irratiak, EITB) bertsolaritzari eskaini emankizunak eta txapelketetako azken faseak hedatzen dituzte.
- Hedadura: Bertsozaleen elkarteak bertsolaritza eta nazioarteko kantu inprobisatuen elkartzeko proiektuak erregularki burutzen ditu.
- Sustapena – Kultur zilegitzea: irudimen kolektiboan, bertsolaritza euskal kulturaren zutabeetarik bat da. Komunikabideei esker, publiko euskaldunaren artean sustapena egiten zaio, baina Euskaldunak ez direnen artean aski guti ezaguna da, oraino.

GOMENDIOAK

- Bertsularien Lagunak bertsolaritzaren inguruko gertakari nagusien antolatzaile gisa daraman lana sustengatu.
- Publikoen garapena segitu: bertsolaritzaren inguruko Arte eta Kultura Heziketa garatuz (*ikus “Belaunaldi gazteei transmititu” zatia*), bertsolaritza ezagutarazteko ekintzak plantan ezarriz, publiko euskaldun zabalari zuzendurik, eta komunikabideetan bermatzen segituz.
- Lankuk proposatu zerbitzuak Ipar Euskal Herrian ezagutarazi.
- Euskaldunak ez direnen artean bertsolaritza hobeki ezagutarazi.

> EUSKARAZKO IPUINA

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

Euskal Herriko ipuinen bilketa XIX. mendean hasi zen. Gaur egun, Lauburu bezalako elkarte batzuek segitzen dute. Ipuin kontalariak beren testuak ere artxibatzen dituzte, eta ikerketa lan anitz egin dira gai horren inguruan. Datu horietarik batzuk eskuragarri dira, adituentzat, webgune berezitu batzuetan, baina ez da publiko zabalari zuzendu balorizazio programa/tresnarik.

GOMENDIOAK

- Gaur egungo sorkuntzen bilketa arrazoitua segitu.
- Bildu memoria osoa bateratu.
- Balorizazio programa/tresnak sortu, kultura alorreko hezkuntzaren eta transmisioaren arduradunei eta publiko zabalari zuzenduak.

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: ipuinaren alorrean, ez da gehiago horrelakorik egiten. Kontalari zaharrenak ere antzerkiaren bidez etorri dira.
- AKH/EIJB: galde anitz bada, bereziki euskal mitologiari buruzko ipuinentzat. Baina kontalari guti da. Gainera, horretan ari direnek ikasleen hizkuntza mailaren desorekari buru egin behar diote.
- Irakaskuntza artistikoa: ez da eskaintzarik.
- Euskarri funtzioak: galde handia izanik ere, kontalari kopurua mugatua da, eta horietarik batzuk damutzen dira ez baita kontalarien formakuntza lekurik.

GOMENDIOAK

- Ipuin kontalarien formakuntza programa baten sortzeko posibilitatea ikertu, kontalarien kopurua emendatzeko.
- Irakasleei zuzendu formakuntza eskaintza bat garatu.
- Arte eta Kultura Heziketa eskaintza garatu, ikasleen hizkuntza maila bereziki kontuan hartuz.
- Ipuinen inguruko irakaskuntza artistiko eskaintza baten garatzeko posibilitatea aztertu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Ipuinen errepertorioa, lehenik, ohiko euskal ipuinen eta munduko ipuinen kontaktan oinarritzen da, eta sorkuntzari leku ederra uzten dio. Hizkuntzari bereziki kasu ematen

zaio, kontalariak hizkuntzaren aberastera lehiatzen baitira, besteak beste, onomatopeiak erabiliz.

- Euskaraz ari diren kontalarien kopurua ez da ezaguna. Halere, iduri du oso guti direla.
- Ikusgarri bizidunaren bidez, erakunde publikoek ipuina sustenga dezakete: konpainia profesionalak izanez geroz, Departamenduak eta Eskualdeak, bai eta EKEk, sorkuntza laguntzearen izenean.

GOMENDIOAK

Euskal ipuinen praktikaren eta sorkuntzaren inguruko egoeraren azterketa sakona egin, aktibitate horren garatzeko bideak identifikatzeko, ipuin kontalarien formatzeko programa baten sortzeaz bestalde (*ikus "Belaunaldi gazteei transmititu" zatia*).

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Hedapen lekuak: ipuina leku ttipietan hedatzen da. Festibal batzuek euskarazko ipuina programatzen baldin badute ere, hedatzeko aukera guti dago.
- Kultur industriak:
 - ✓ Lekuan lekuko argitaratzaileek dituzte ipuin bildumak hedatzen.
 - ✓ Lehenago, ipuinak irratiazen bidez hedatzen ziren, baina gaur egun, eskaintza hori ez da gehiago.
- Hedadura: ipuin kontalarien kopuru ttipiak eta ipuinaren estimu eskasak haren hedadura mugatzen dute. Koldo Amestoy ipuin kontalariak, bere ipuinak itzuliz, nazioarteko fama erdietsi du.
- Sustapena: ipuinaren artea, eta bereziki gaur egungo sorkuntza, ez da aski estimatua. Jende anitzek uste du ipuina haurrentzat eгина dela. Irudi horrek alorraren berritza zailtzen du: ipuin kontalari guti eta hedatzeko aukera guti.

GOMENDIOAK

- **Ipuinaren eta bereziki gaur egungo sorkuntzaren irudia berritu, besteak beste, komunikabideei esker.**
- **Euskarazko ipuinaren hedatzeko sare baten garatzeari eta egituratzeari buruz lan egin.**

> EUSKARAZKO ANTZERKIA

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

Ez da funtsen begiratzeko eta agerian emateko programa iraunkorrik:

- EKEK Euskal Antzerki Taldeen Biltzarra elkartearen artxiboak atxikitzen ditu. Horiek hirurogei bat obra biltzen dituzte, argazkiak, prentsa artikulak, bideoak, afixak eta programak. Oiartzungo Eujenio Arozenak daukan funtsak, gehien bat bideoz eta argazkiz osatua, artxibo horiek osatzen ditu. IKAS euskal pedagogia zerbitzuak publiko gazteari zuzendu antzerki testuak baditu. Aldudarrak Bideo sozietateak hainbat antzerki bideo-grabaketa baditu. Funts gehienak oraino numerizatzekoak dira, salbu Eujenio Arozenaren funtsa.
- Mintzola fundazioak (ahozkotasunari eskainia), eta Euskal Herriko Antzerkizaleen Elkartek gogoeta bat hasi berria dute, euskarazko antzerkia Euskal Herri osoaren mailan dokumentatzeko xedez.
- Funtsen balioa balorizatzeko ekintza berezi arras guti bada, salbu EKEk Donibane Garaziko Vauban zinema gelan antolatu zuen Eujenio Arozenaren funtsaren erakusketa, 2007an.

GOMENDIOAK

- **Gaur egungo sorkuntzen eta praktiken bilketa programa arrazoitu bat plantan ezarri.**
- **Funtsak atxikitze eta bateratzeko (testuak, argazkiak, bideoak, afixak, programak, etab.), numerizazio programa adostu bat plantan ezarri, bereziki eskumena duten erakundeekin eta mugaz bi aldeetako eragileekin.**
- **Ondare horren balioa balorizatu, eskolako publikoari eta publiko zabalari zuzenduz.**

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: Herrietako antzerkia eta antzerki herrikoiak horrela transmititzen segitzen dute, ikusgarri batzuen sorkuntzaren kariatara, aditu edo profesional batzuei esker. Gaur egun, ohartzen gara antzerki talde amaturretako edo profesionaletako antzezleen parte adierazgarri batek antzerkigintza eskolan ere ikasi duela, bereziki Lycée de Navarre ikastetxeko antzerkigintza opzioari esker. Opzio hori berriki desagertu da.
- AKH/EIJB: euskaraz ikasten duten ikasleen parte batek euskarazko antzerki klaseak ukaiten ditu, ama eskolaren eta lizeoaren artean:
 - ✓ Euskarazko antzerkiaren ezagutarazteko saioak, lehen mailako eskolako publikoari zuzendurik, lurraldeko kultura eragileek programatu eta publiko gazteari zuzendu ikusgarri batzuen bidez. Ikusgarriak baino lehenago eta ondotik, ikasleen laguntzea proposatua da, atelieren segitzeko eta artisten ezagutzeko posibilitatea plantan ezarritik. Eragile horien programazioak antzerki talde profesionalen eskaintzan

bermatzen dira. Bizkitartean, euskarazko antzerki profesionaleko eskaintza mugatua da. Ondorioz, euskal antzerkiari buruzko Arte eta Kultura Heziketa eskaintza ere mugatua da.

- ✓ Lehen mailako eskolako publikoari (8-11 urte) zuzendu antzerki atelierrak, eskolako antzerkingintzan berezitu eragile batek eskainirik (F. Cousteau). Besteak beste, eskolen arteko elkarretaratzeak (eskola giristino elebidunetako Euskal Haziak sarea) animatzen ditu.
- ✓ Ikastetxe batzuen eskola proiektu bereziei egokitu antzerkigintza aktibitateak (Chimères, Petit Théâtre de Pain edo Rouge Elea antzerki taldeen parte hartzearekin).
- Irakaskuntza artistikoa: gaur egun, eskola inguruko euskarazko antzerkigintza eskaintzarik ez da:
 - ✓ Lycée de Navarre ikastetxeko “euskarazko antzerkigintza” opzioa berriki desagertu da.
 - ✓ Duela zenbait urte, Théâtre des Chimères taldeak (Txomin Héguy) proposatzen zituen asteburuko antzerki-atelierrak desagertu ziren. Hartzaile gutiegi izanez, iniziatiba hori bertan behera utzia izan zen.
 - ✓ Maurice Ravel kontserbatorioan formakuntza ibilbiderik ez da, nahiz eta iniziatiba hori gogoetatzen ari den.
- Euskari funtzioak: publiko gazteari zuzendu euskarazko eskaintza baten garatzen laguntzeko KIMU programa, EKEren ekimenez abiatua, artistei ziklo labur batzuen segitzeko eta Europa mailako festibal ezagun batzuetan parte hartzeko ahala ematen dien ekimen bakarra da. Lapurdi Hegoaldeko Herri Elkargoak lehen mailako irakasleen formatzeko entsegu bat antolatu du, Théâtre des Chimères taldearen bidez, arrakasta zerbaitekin.

GOMENDIOAK

- AKH/EIJB: eskoletan euskarazko antzerkiaren presentzia garatu:
 - ✓ lurraldeko kultura eragileek segurtatu mediazio lana egituratuz eta garatuz;
 - ✓ eskoletan artisten presentzia azkartuz, egonaldi batzuen bidez.
- Irakaskuntza artistikoa eta eskolako irakaskuntza:
 - ✓ Ikastetxe batzuen ibilbidean antzerkigintza opzio bat sartu.
 - ✓ Bizi ingurune guztiak estaliko dituen irakaskuntza artistiko bat egituratu, euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten ikastetxeetan eta dauden konpainietan bermatuz.
 - ✓ Maurice Ravel kontserbatorioa euskarazko antzerkigintza baten eskaintzera sustatu.
- Euskarri funtzioak:
 - ✓ Euskarazko antzerki irakaskuntzaren alorrean, irakasleei zuzendu formakuntza ziklo batzuk plantan ezarri, hizkuntza maila desberdinei egokitu eskaintza bat proposatuz.
 - ✓ Artistei, kultura eragileei (programatzaileak, mediatzaileak) eta haurren inguruko profesionalei zuzendu KIMUren gisako laguntza programak sendotu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

Gelako antzerkian, hiru mota bereizten ahal dira:

- “Herrietako antzerkia” herritarrek herritarrentzat prestatua eta besten kariatara emanak (elizako bestak, egutegiko bestak, herriko bestak), Armendaritzen, Bankan, Makean, Irisarrin, etab.
- “Antzerki herrikoa”, herri desberdinetako antzezleak biltzen dituen, beren obrak lurraldean barna emateko xedearekin. Gaur egun ari diren taldeak ondokoak dira: Ama-bi, 5’Inahalak, Iduzkilo eta Mari Bi Sos, antzerki bakotxaren kasuan, banaz beste 10 eta 15 emanaldiren artean eskainiz, gehien bat Ipar Euskal Herrian. Talde horiek antzerki errepertorioaren aberasteko eta euskararen biziarazteko xedea dute. Taula zuzendari profesional batzuk edo aditu batzuk antzezle amaturrak gidatzen dituzte. Testuak euskarazko antzerkiaren errepertoriotik etor daitezke edo sorkuntzak izan daitezke. Eredu ekonomikoaren aldetik, erakunde publikoek amaturren laguntzeko eginkizuna EKEren esku utzi dute. EKEren laguntzez gain, herriek, eta batzuetan herri elkargoek, laguntza bat ekartzen ahal dute, industriaren aldetik (gehien bat, gelen prestatzea), eta diru laguntza batzuk ematen ahal dituzte. Azkenik, antzerki herrikoia errentagarritasuna gehien bat txartelen salmentari lotua zaio.
- “Antzerki profesionalak” antzezle profesionalak euskarazko sorkuntza batzuen inguruan biltzen ditu.
 - ✓ Mugaz gaindiko lankidetzak: Ipar Euskal Herrian ez da alde bat euskaraz ari den antzerki talderik. Merkatua eta antzezleen harrobia horretarako ttipiegia da. Noizbehinkako proiektuak garatu izan dira, Hego eta Ipar Euskal Herriko konpainia batzuen arteko (PTDP, Artedrama, Dejabu) lankidetzari esker. Ekoizpenen kalitateak eta Euskal Herri osoan hedatu programatzaile sare eraginkor batek, alor horretan idurikorik ez duen desmarxa horren arrakasta ekarri dute. Bestalde, Bidasoaren bi aldeetako antzezleen kontratatzea euskarazko ikusgarrien ekoizteko beste manera bat izan da (Théâtre des Chimères, Théâtre du Rivage, Rouge Elea). Mugaz bi aldeetako “Zubi” dispositiboak zortzi partaide biltzen ditu eta sorkuntza berriko antzezlari arinak (antzezle bat edo bi, gehienik) laguntzen ditu, finantza eta administrazio alorreko laguntza baten bidez. EKE eta Donostiako Hiriak “Donostia Iparralde” hitzarmenaren bidez elkarrekin abiatu mugaz gaindiko koprodukzioak eta egonaldiak Donostia 2016ko “Mugalariak” dispositiboa sustatu dute. Gaur egun, bertan behera utzia da.
 - ✓ Testuen idaztea: taularatu testuak Euskal Herriko eta beste nonbaiteko autore batzuenak izaten ahal dira, bai eta Euskal Herriko oraingo autore batzuei eskatu testuak ere.
 - ✓ Publiko gazteari zuzendu antzerkia: haurrei eta gazteei zuzendu sorkuntzaren indartzeak ikastetxeen galde azkar bati erantzuten dio. Izan ere, ikastetxe horietan, murgiltze ereduko eta eredu elebiduneko ikasleen kopurua gora doa. Konpainien kopurua (Elirale, Kiribil, Chimères, Hecho en Casa, Rouge Elea) eta proposatu obren kalitatea gora doa. Ipar Euskal Herrian, merkatu bat sortzen ari da.
 - ✓ Ekonomia: euskal antzerkigintzaren ekonomia ahula da. EKE diru ekarle nagusia da. Departamenduak diruzko ekarpenak egiten ahal ditu. Ekoizpenen muntaketa egonaldietako harrera ez ordaindu batzuen bidez osatzen ahal da. Akitania Euskadi funtsak aurrekontua osatzen ahal du, “Mugalariak” dispositiboarekin bezala. *Baiona- Akitania Hegoaldeko Eszena Nazionalak* ez du gehiago euskarazko antzerki

koprodukzioetan esku hartzen. Publiko gaztearentzat, diruzko bi koprodukzio-egile nagusiak Lapurdi Hegoaldeko Herri Elkargoa eta EKE dira. Gainera, lurraldeko eragileek (HAMEKA, Baxe Nafarroako Herri Antzokia, Biarritz Culture, Xiberoko Herri Elkargoa) egonaldiak eskaintzen dituzte.

GOMENDIOAK

- Sariak eta idazketa egonaldiak plantan eman, antzerki testuen sorkuntzaren sustatzeko.
- Laguntza tekniko mutualizatu baten posibilitatea aztertu, talde profesionalen eta amaturren eskura uzteko
- Gazteak euskarazko antzerkian aritzera sustatzeko, antzerkiari eskaini gertakari herrikoia eta lagun artekoak sortu, urte oroz herri desberdin batzuetan antolatuz.
- Antzerki herrikoia garapenera sustatzeko, haien beharrak zehaztu, laguntza egoki baten eskaintzeko (formakuntza, eskaintza deialdiak, materialaren prestatzea, diruz laguntzeko dispositiboa, egonaldi egokiak, etab.)
- Euskarazko antzerkiaren koprodukzioa lurralde mailan antolatu, Ipar Euskal Herriko eragileak erregularri bilduz. Mugaz gaindiko mailan berdinekin egin.
- Tresna berezi eta noizbehinkakoei lotu zuzenbide komuneko dispositiboak, hala nola EKEren diru laguntzak, amaturren praktikei zabaldu.
- Ipar eta Hego Euskal Herriko profesionalen arteko elkarretaratze erregularrak antolatu (konpainiak, programatzaileak, erakundeak), gai ongi zehaztu batzuen inguruan.

> Publiko guzientzara hedatu eta sustatu

- Hedapen lekuak:
 - ✓ Antzerki profesionalarentzat: Baionako Antzokia, Angeluko Quintaou gela, Senpereko Larreko gela, HAMEKA - karrikako arte eta euskal antzerkiaren fabrika, Lapurdi Hegoaldeko Herri Elkargoaren gelak, Garazi Baigorri Herri Elkargoaren Lutxiborda gela, eta Maule Baitha dira hedapen leku nagusiak. Nahikeria gehien erakusten duten programatzaileak Errobi eta Baxe Nafarroa herri antzokiak dira. Euskal antzerkia programatzen dute, beren denboraldiak irauten duen hamabost bat daten artean, EKEren sustenguekin. Sustengu hori urte anitzeko partaidetza hitzarmen baten bidez finkatua da eta hedapenera laguntzeko xedea du. EKEk azken 4 urteetan gidatu "Ibilki" sareak hamar programatzaile biltzen ditu: Garazi Baigorri, Errobi eta Hazparne Herri Elkargoak; Senpereko, Hendaiako, Donibane Lohizuneko, Mauleko eta Bidarteko herriak; Biarritz Culture eta Eihartzea elkarteak. Azken horiek diru laguntza bat, administrazio mailako laguntza bat (kontratuak), eta komunikazio mailako laguntza bat (programa, afitxa, komunikabideekiko harremana) eskuratzen dute.
 - ✓ Antzerki herrikoia: proiektu batzuk hedapen leku bereziak ukaiten ahal dituzte (adibidez: HAMEKA, Larreko, Lutxiborda), baina gehienak euskararen alorrean lan egiten duten elkarte bidez hedatuak dira.
 - ✓ Herrietako antzerkia herrian berean hedatua da, karia horretara antolatuak diren herriko geletan.

- Kultur industriak: kultur industriak ez zaizkio anitz euskal antzerkiari lotzen. Argitalpen mailan, egunkari batzuk, hala nola Herria eta Egan, Elkar argitaletxea, Eusko Jaurilaritzaren Antzerki zerbitzua edo Kutxak argitaratu izan dituzte Piarres Larzabal, T. de Monzon, Daniel Landart, Antton Luku, Xabier Mendiguren, Pantzo Hirigaray edo Mattin Hirigoyen idazleen antzerkiak. Aldudarrak Bideo sozietateak antzerki batzuk filmatu ditu. Antzerki zati batzuk konpainia batzuen webguneetan ikus daitezke.
- Hedadura: euskalduna ez den publikoak euskal antzerkia guti ezagutzen du, bai lurraldean eta bai lurraldetik kanpo, edo antzerkiak ez dira azpigitulatuak, konpainiek ez baitute halakorik nahi, edo frantsesezko bertsioaren hedatzea lehenesten da. Frantzia mailako egiazko sare baten eraikitzea ere falta da.
- Sustapena – Kultur zilegitzea: euskal antzerkiak publiko euskaldun aditua eta oso zaletua hunkitzen du. Hala ere, publiko zabalean ez da oso ezaguna, dantza edo bertsolaritza ez bezala. Komunikabideetan guti aipatzen da.

GOMENDIOAK

- Hedapen lekuak:
 - ✓ Euskarazko antzerkiaren hedatzeko sareen sortzea lagundu, Euskal Herriko edo/eta Euskadiko lurralde osoan, besteak beste Ibilki, Zubi edo/eta Euskadiko Euskal Antzerkien Sarea dispositiboak gurutzatuz.
 - ✓ Antzerki herrikoiaaren sustengatzeko programa baten aukera aztertu, EKEk jada eman laguntzekin loturik.
- Kultur industriak: euskarazko antzerkiaren sustapenaren egiteko plataforma numeriko bat sortu (programak, argazkiak, bideoak, antzerkien argitaratzea) lurralde mailan, jadanik dauden tresnen osatzeko.
- Hedadura:
 - ✓ Euskalduna ez den publikoari euskal antzerkia helarazi, obren itzultzeko eta gain-titulatzeko laguntza bat plantan ezarri.
 - ✓ Euskarazko antzerkia Frantziako sareetan hedatu (*Théâtres nationaux* eta *Scènes nationales* egituretan, festibal ezagunetan), esportatzeko laguntza bat plantan ezarri.
- Sustapena – Kultur zilegitzea:
 - ✓ Komunikabideekin partaidetzak plantan ezarri, euskal antzerkia publiko zabalarentzat ageriago izan dadin.
 - ✓ Euskal antzerkiaren laguntzeko, sortzeko eta esku hartzeko baliabideak plantan ezarri, bereziki gazteei zuzendurik, Arte eta Kultura Heziketa dispositiboen bidez (*ikus “Belaunaldi gazteei transmititu” zatia*).

> EKITALDI ERRITUALAK

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Ez da bilketa sistematikorik arlo horretan eta fondoak leku desberdinetan barreiatuak dira: ekitaldi hauek antolatzen dituzten herri eta/edo elkarteek erakustaldiei lotu dokumentu edo materialak (liburuxkak, argazkiak, euskarriak, jantziak, etab.) badituzte. Pastoralari dagokionez, BILKETAK fondo ugari zerrendatu eta bildu du. Zuberoako Sü Azia elkarteak pastoralei edo ekitaldi erritualei buruzko idatzizko eta ikus-entzunezko fondoak, baina ere argazkiak gordetzen ditu. Ekitaldi hauetako aktoreen lekukotasunak bilduak dira ere Eleketa programari esker. Molde berean, Aldudarrak Bideo gisako elkarte batzuk ekitaldi hauen inguruko bilketak burutzen dituzte.
- Balorizazio mailan, BILKETAK pastoralari buruz zerrendatu fondoak publikoaren esku ezarriak izan dira erakusketa birtual baten bitartez. Erakusketa horren inguruan, BILKETAK, EKEk eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Liburutegiak (PADL/BDPA) pastoraletako idazle batzuen inguruko topaketak eta erakustaldi ttikiak antolatu dituzte.

GOMENDIOAK

Ekitaldi erritual desberdinei lotu fondoak bilketa, tratatze eta balorizazio politika orokor bat abian ezarri, partaidetzak garatuz (instituzioak, elkarteak, pertsona-baliabideak, etab.) BILKETA edo Eleketa programen gisara.

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Ekitaldi erritualei dagokienez, transmisioa nagusiki murgilketa bidezko transmisioaren bitartez burutzen da.
- AKH eta EIJB-ek ekitaldi erritualei buruzko ezagutza orokorrak transmititzea ahalbidetzen ahal dute. Alta, gaur egun eskaintza biziki guti bada. Halere, IDB dantza federazioak AKH ibilbide batzuk proposatu ditu, pastoral eta maskaradei buruz, EKE-k muntatu "SOKA" multimedia erakusketarekin loturan. Ustiatze pedagogiko modulu bat sortua izan da bestalde Canopé, IKAS, EKE eta IDB-ren arteko partaidetza baten kariatara.
- Ekitaldi erritualen inguruko irakaskuntza artistikoak berez ez du izaterik.

GOMENDIOAK

Belaunaldien arteko lotura laguntzen duten AKH/EIJB eskaintza bat ekitaldi erritualen inguruan egituratu (zahar etxeak, adibidez).

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Ekitaldi erritual asko daude Euskal Herrian, baina gehienik errepikatzen direnak. Gaur egun pastoralak, maskaradak, inauteriak, galarrotsak, toberak, kabalkadak, Besta Berri dira, bai eta eguberriz Olentzero famatuaren omentzeko antolatu ekitaldiak.
- Partekagune bat dute: diziplinartekoak dira, dantza, antzerkia, kantua, musika eta batzuetan bertsularitzarekin; eta partehartzaileak dira, herritarrek hartzen baitute parte, arte edo antolaketa arloan bakoitzak duen trebetasunean oinarrituz.
- Aitzinetikako jakintzak eta gaitasunak beharrezkoak dituzte (taula zuzendaritza, jantziak, ekitaldi erritual horietan adituak diren pertsona-baliabideak, dantza, musika, etab.).

Herriko bizilagunek dituzte ekitaldi hauek bultzatzen eta beti herriko dantza taldea edo kultur elkartearekin lan egiten dute. Kohesio soziala azkartzen dute eta berpizte une batean dira, kultur eta elkabizitza erreferentzia behar baten ondorioz. Baserri gunean dira gehiago agertzen baina hiri inguruetan eta hirietan ere bai. Horrela, bi kabalkada izan dira 2016an Makea eta Saran, pastoralak antolatuak dira Zuberoan baina ere azken bi urte hauetan Baionan (“Gerezien Denbora” eta “Katalina de Erauso”), era berean libertimenduak antolatuak dira urte guziz Donibane Garazi, Donapaleu eta Baionan.

GOMENDIOAK

Ekitaldi erritual hauen antolaketa sustengatu.

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Ekitaldi erritual hauek gehien bat herri baten eta herri elkargo baten neurrian antolatuak dira.
- Hiri eta herri gehienetan antolatuak diren inauteriak bezalako ekitaldiek, herriko publikoa baizik ez dute hurbilarazten. Haatik, beste ekitaldi erritual batzuk lurralde osoko ikusleak etorrazten dituzte, mugaz beste aldekoak barne: 6 000 pertsona bi erakustalditan pastoralei dagokienez, 2 500 ikusle Makeako kabalkadaren bi erakustaldietan. Kasu guzietan, ekitaldi hauek belaunaldi desberdinetako publiko zabala erakartzen dute.
- Usu ekitaldi hauek argitaratuak dira: liburuxka elebidun/hirueledun (euskara, frantsesera, gaztelera), argazki eta bideoen ekoizpena.

GOMENDIOAK

Ekitaldi erritual hauen hedapena diru mailan sustengatu (erakustaldiak, komunikazioa, argitaratzea, bilketa desberdinak etab.).

> EUSKAL DANTZA

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

Ez dago gaur neholako bilketa eta balorizazio ekintza iraunkorrik:

- Bilketa ez da sistematikoa, antolatua. Edo diziiplina egitasmo zabalago batzuen kariatara egiten da (adibidez: DK64-ren obragintzapean) edo noizbehinkako bilketa batzuen bidez (adibidez: Aldudarrak Bideo), edo ere indibidualki han eta hemen hartu ekimenen bidez.
- Tratatzea eta balorizazioa noizbehinkakoak dira: EKE-k 2015etik sortu eta zabaldu "SOKA" erakusketak; abian jarri Departamenduko Artxiboen gogoeta lekukotasunen hedapena egiteko (lege mailako zailtasunak).
- IDB-k eta Herri Soinu elkarteak haien datuak bateratzen hasi berri dira dantza eta dantzatzeko musikaren arteko lotura berriz sortzeko.

Erronka azkar bat dago arlo horretan: euskal dantza bere zeresana eta zeregin soziala galtzen ari den testuinguruan, ondare baliabide aberats eta helgarri bati esker ikerketa lanak elikatzeke dokumentazioa lortzeko aukera eskaini behar daiteke (adibidez: erreperitorio batez berjabetu, sorkuntza desmartzak aberastu) eta horrela euskal dantzaren iraunkortze dinamikan parte hartu.

GOMENDIOAK

- **Jadanik dauden fondoak identifikazioa, lekukotasun berriak eta intereseko dokumentu ororen bilketa (bideo, idazki, etab.), datu hauen zentralizazioa ahalbidetuko lukeen hedadura handiko programa bat egituratu, dantza praktiken zeresanean osoki emanez.**
- **Publiko zabalari, publiko bereziei eta besteak beste dantzaren transmisioaz arduratzen diren eragileei fondoak eskura izateko bermea eskaini.**
- **Ardura duten instantzien arteko partaidetza anitzeko programa bat animatu (IDB, EKE, BILKETA, DK64).**

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: egingarria eta naturala dantza partehartzaileentzat, bakarrik teknikoki sinplea delako eta honen praktika soziala delako (berpizte bat kostaldean besteak beste).
- AKH/EIJB: eskaintza jadanik badago, labelizatua eta kalitatezkoa (IDB-k proposatu AKH modulu desberdinak, "SOKA" erakusketaren balorizazio pedagogikoa, etab.). Hala ere, IDB-k segi ditzakeen eskolen kopurua mugatua da jende guti duelako. Urte guziz egun bat antolatua da partaidetzan, irakasleak euskal dantzari sentiberatzeko.

- Irakaskuntza artistikoa:
 - ✓ Dantza eskola sare garrantzitsua eta aski dinamikoa, gehienak IDB-ren baitan bateraturik (aste guziz 2 300 gaztek klaseak segitzen dituzte berrogoi bat dantza eskolatan) joera ezagunekin:
 - Gehienik neskez osatua, abandonatzea kolegioko urteetan, euskal dantza ez bezala erakargarriagoak bezala hartuak diren beste jarduetara joateko, honek bere zeregin soziala galtzen ari baita. Hortik, “ateraldien” garrantzia edota kalitatezko sorkuntzen egitea, taldeari dinamika ekartzeko eta gazteen gogoia egonkorrazteko;
 - Giza eta teknika bide eskasak: hornikuntzarik ez errepika lekuetan, irakasle bolondres kalifikatugabeak, arduradunen akidura, etab.
 - ✓ Irakasleen formakuntza bidezko “Irakaskuntza artistiko zikloak” obratzeko egitasmo egituratzailea abian ezarri du IDB-k: irakasleen formatzea, kolegioko gazte motibatuenentzat irakaskuntza osagarrietara heltzeko sortu zubiak etab. Programa hau berriegia da lurralde mailan ebaluatua izateko (obratze progresiboa Lapurdi eta Nafarroa Beherean; oraindik ez abian ezarria Zuberoan zikloak oraindik zuberotar erreperitorioari egokituak izateko). Gainera, IDB-en ahalak mugatuegiak dira honen obratzeko.
 - ✓ Dantza eskola gehienak herriaren mailan finkatuak izanki, sarea aski deskonektatua da lurralde guneen mailan antolatu irakaskuntza artistiko zentroetatik. Klaseak antolatuak dira Kontserbatorioan lizeoaren garaiko.
- Eskolako irakaskuntza: Master class bat, Zuberoko Lizeoan proposatua.
- Euskarri funtzioak: euskarri funtzioak antolatzeko IDB-ren egitasmo berria abian ezarria izan da eta baliabide eskasez, ez da arrunt gauzatzen, besteak beste formatzailea ordaintzeko (orotik: euskal dantza ED eskasez, IDB-k irakasleen formakuntza programa bat sortu du (*ikus gainera “Irakaskuntza artistikoa”*) eta diru laguntza bat proposatzen du irakasle bat pagatzeko hala behar izanez gero).

GOMENDIOAK

Sarea egituratu, lurralde erroztatzeko sozio-kulturala molde ezberdinez bermatuz:

- zentzua berriz emanez dantzaren irakaskuntzari, dantzaren historiari eta zeregin sozialari lotuz, sorkuntza garaikideak sustatuz eta euskara transmisioaren bihotzean birkokatuz;
- arduradunen formakuntza zikloen definizioa eta plantatzea lurralde osoan gorpuztuz;
- dantza eskolatan giza eta teknika baliabide egokiak eskainiz (arduradunak ordaindu, errepika gelak hobeki hornituz);
- musika tradizionalaren tresnen irakaskuntza sektorearekiko zubiak bizi eremuka garatuz;
- dantza eskolen ereduak aztertuz, sendotu eta berriz bultzatzeko;
- IDB federazioari beharrezkoak zaizkion diru eta giza baliabideez hornituz egitasmoa eta berezikiago aitzineko puntuak plantan ezartzeko, bai eta AKH mailako eskaintza garatzeko;
- lurraldeko dantza eskolen kantitate eta kalitate mailako segipen sistema bat plantan ezarri, ikasten dutenentzat “mota”, “adina”, “Euskalduna”, “estatutua” gisako adierazle batzuk sarraraziz arduradunentzat; “agerraldi mota eta kopurua” taldeentzat, etab.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

5 praktika arlo zehazturik:

- Aski bizkorra den dantza partehartzailearen praktika (adibidez: mutxikoak).
- Euskal probintzietako errepertorio koreografikoa berriz hartzen duten herriko taldeen agerraldiak besta edo ekitaldietan: beheraka doa errepertorioa pobretzen ari delako.
- Ekitaldi erritualen praktiken berritzea (kabalkadak, maskaradak, libertimendua, etab.) Nafarroa Beheran eta Lapurdin, bizkorrak Zuberoan.
- Amatur sorkuntza bizia eta kalitatezkoa, usu diziplinak nahasiz eta profesional batzuk zuzendurik (adibidez: Maritzuli, Zarena zarelako, Bilaka, Beritza, etab.).
- Euskal dantzaren estetikan hartzen duten zenbait konpainia profesional (adibidez: Elirale).

“Herriko talde”-aren zelula baitezpadako katebegia gelditzen da euskal dantzaren jarduera mantentzeko, izan dadin besta egun, ekitaldi erritual edo amatur sorkuntza agerraldien kariatara (elkarbizitza bektorea, ikaskuntzaren jarraipenaren bermea).

GOMENDIOAK

- **Dantza taldeak beren lurraldean bizkortzeko plan bat plantan ezarri.**
- **Lotura sozial eta, usu, Euskaldunak ez direnentzat euskararekiko harremana lortzeko aukera eskaintzen duen dantza partehartzailearen dinamika iraunarazi.**
- **Sorkuntza amaturaren praktiken laguntza optimizatu, taldeei baliabide egokiak eskainiz (diru eta teknika baliabideak, ardura artistikoa, ingeniartzarako laguntza).**
- **Konpainia profesionalen jarraipena segitu (sorkuntzari laguntza eta gaitasun orokorrak administrazioan besteak beste).**
- **Praktika desberdinen jarraipen kuantitatiboa eta kalitatiboaren sistema bat plantan ezarri.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Dantza taldeen hedatzea tokiko mailan eta gehienik leku publikoetan.
- Bizitasun desberdina eremu geografikoen arabera, Hegoalderako ateraldi guti.
- Amateur sorkuntzarako, gela zirkuitu ofizialak ez aski helgarriak (agerraldiak kanpoan edo gela balioaniztunen egokitzea) publiko asko delarik, hortik dator IDB-k HAMEKA-rekin finkatu partaidetza urtean hainbat ikuskizun programatzeko.
- Hedadura mugatua kalitatea edo irudi zaharkitu batengatik.

GOMENDIOAK

- **Amatur sorkuntzen hedapena lagundu lurraldean, besteak beste zirkuitu ofizialekin sarean ezarriz.**
- **Programatzaileak amatur edo konpainia profesionalen kalitatezko ikuskizunak hartzera bultzatu.**
- **Konpainia profesionalei sostengua jarraitu.**
- **Sorkuntzen hedapena lurraldetik kanpo lagundu, euskal dantzaren irudia gaurkotzeko.**

> MUSIKA TRADIZIONALAK

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Ez da batere musika tradizionalen bilketa programa publikorik: norbanako batzuen ekimenak edo partzialki tratatuak diren programa zabalagoen baitan (adibidez: Eleketa DK64-ren obragintzapean).
- Gehien bat txistua eta gaitaren inguruko metodo berezi bat eta diskografia garrantzitsu bat badago.
- Hegoaldean bildu eta denen esku utzi ondare baliabideak: Soinuenea museoa Oiartzunen eta Eresbil musika artxibo zentroa Erreterian.

GOMENDIOAK

- **Tokiko musika tradizionalen bilketa eta balorizazio programa bat egituratu, errepertorioaren ezagutza eta haren transmisioa bermatzeko.**
- **Mugazgaindiko logika garatu, Hego Euskal Herrian dagoenarekin osagarritasuna sortuz.**

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: ahozko transmisio tradizionalak ahozko/idatzizko transmisio bati tokia utzi dio, zenbait ahozko transmisio gune batzuk irauten badute ere musikaren praktika soziala azkarra delarik.
- AKH/EIJB: musika tradizionalaren alorrean eskaintza urria (eskuhartzaile guti, deus guti musikarien pedagogia mailaz, ordainketaz).
- Irakaskuntza artistikoa: eskaintza erakargarri bat jadanik eskainia da hiru egitura motatan: herri arteko musika eskola hitzartuetan, Departamenduko irakaskuntza artistikoen eskemaren bitartez, hitzartuak ez diren musika eskolak, musika klase informalak.

Elementurik ez hitzartuak ez diren musika eskolei buruz. Musika tradizionaleko tresna nagusiak proposatuak dira musika eskola hitzartuetan eta ikasle kopuru handiak trikitixarako eta guttiago txisturako, beste batzuk (txirula edo gaita) musika klase informalaren bitartez irakatsiak dira gehien bat.

Gurasoen eskaera azkarra klaseak euskaraz eramanak izan daitezen, batzuetan hala dira (Iparralai, Musikas), baina mugatuak, irakasle euskaldun gutiegi daudelako.

Haustura bat ikasketen eta praktikaren artean, musikaren eta dantzaren transmisio eta ikaste moduak aldatu baitira. Alabaina, bi alorrak ez dira gehiago toki berean eta osagarritasunean irakasten (musika, musika eskoletan eta dantza, dantza taldeetan). Horrek zentzuaren galtze bat ekartzen du.

- Euskarri funtzioak:
 - ✓ Maurice Ravel kontserbatorioak eman Musika ikasketen agiriak (DEM) edo “Ohiko musiken urrezko medailak”, adibidez Bordeleko Musikaren eta Dantzaren Goi Ikasketen Poloak eman “Ohiko musikak” agiria aurkezteko aukera eskaintzen dute. Baldintza batzuen arabera, Esperientziaren Lorpenen Balioztatzeak edo/ta irakaskuntza agiri batek Estatu Agiriaren modulu batzuen balioztatzea ahalbidera ditzakete. Lurraldean, “Ohiko musikak” Estatu Agiridun guti dira.
 - ✓ Euskarri pedagogiko egokitu gutiegi (dantza praktikekilako zubiak gehiago aztertu behar lirateke).

GOMENDIOAK

- AKH/EIJB: musika tradizionalak AKH eskaintza bat egituratu, musikariak jarduerak egokia eta soldata ekartzen duena ukan dezaten (pedagogiari buruzko formakuntzaren bitartez besteak beste).
- Irakaskuntza artistikoa:
 - ✓ Musika klase ez formalak sendotu, haien hautu pedagogikoak errespetatuz (praktika sozial azkar bati lotu ahozko transmisio baten inguruan adibidez).
 - ✓ Ikasketa eta praktikaren arteko haustura saihesteko musika eskoletan eta zentzua berriz emateko musika eskoletako irakaskuntzei:
 - euskarazko eskaintza bat garatu eta egituratu, jadanik dagoen eskaintzaren irakurgarritasuna hobetuz eta euskarazko irakaskuntzari formatu nahi duten irakasleak zerrendatuz;
 - musika tradizionalak musika eskoletan irakasteko euskarri pedagogiko egokiak sortu (musika tradizionalen historia eta eginkizuna testuinguratzen dituzten euskarri elebidunak, lotura tokiko dantzen praktikekin);
 - musika tradizionalen inguruko tresnen jotzen irakasteko eta euskaraz egin klaseak garatzeko bultzatuko duen finantzamendu publiko bat egituratu;
 - praktikarekilako zubiak garatu tokiko eragileekin antolatu kultura gertakari batzuen kariatara (adibidez: dantza ikusgarriak);
 - musika tradizionalen irakaskuntza egituren jarraipen kuantitatibo eta kalitatibo sistema bat plantan ezarri.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

4 praktika mota zerrendaturik:

- Animazioak besta ekitaldietan: ez da musikaririk eskas besten animatzeko, hauen artean tresna anitzeko txarangak. Ohartzen gara hala ere harmonizazio sinplifikatuei buruzko joera batez eta txarangen dinamikaren moteltze batez.
- Dantzari lotu praktikak: euskal dantzarako doinuek musika tradizionalen erreperitorio naturala osatzen dute. Ohartu behar dugu hala ere, dantza taldeek gero eta gutiago deitzen dituztela musikariak ikuskizunetan jotzeko. Neurri batean, fenomeno hori esplika daiteke bi praktika artistiko horien irakaspena toki ezberdinetan egiten baita (ikus “Belaunaldi gazteei transmititu” zatia).

- Ekitaldi erritualetako praktikak: ekitaldi erritual guziak musika doinueta oinarritzen dira, praktika hauen berpizteak, musika tradizionalaren dinamizazioa garatzen du.
- Sorkuntzak: musikariei, gero eta gehiago, diziplina anitzeko sorkuntzetan parte hartzea eskatzen zaie. Ikuskizun hauek musika tradizionalarentzat berrasmatze eta sorkuntza aukera eskaintzen dute.

Praktika mota guziak nahasirik, musika tradizionalan amatur gehiengo batez osatu amatur/profesional nahasketa aurkitzen dugu. Musikari desberdinek diote “fabrika” motako hornikuntza eskasa badagoela. Azkenik, txarangen mugimenduaren moteltzeak eta musikariak dantza ikuskizunetan ez egoteak iragartzen dute musika tradizionala desagertuko dela bere oinarritzko lursailan. Elementu hau lotu behar zaio naski eskola musikek ikusi duten ikasketaren eta praktikaren arteko hausturari (*ikus “Belaunaldi gazteei transmititu” zatia*).

GOMENDIOAK

- **Zubiak sortu praktika eta irakaskuntzaren artean besta ekitaldietan.**
- **Txarangen inguruko dinamika berpiztu.**
- **Musikarien eta dantzarien arteko loturak sustatu.**
- **Amatur sorkuntza sostengatu eskuhartze logika egokiak garatuz (musikarien aktibitate bikoitza errespetatuz adibidez): deialdi publikoak, sorkuntzari laguntza, sarean sartzea, hornikuntza teknikoa eskura ezarri (errepika gela, grabaketa estudioa, sonorizazio materiala behar izanez gero, etab.).**
- **Ohiko dantzaren irakaskuntza garatu lurraldeko irakaskuntza artistikoaren inguruko egituretan.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Hedapena nagusiki espazio publikoan kultur ekitaldien kariatara, Euskal Herrian bakarrik.
- Diziplina arteko sorkuntzek gela hornitueta buruz jotzen dute, batzuetan lurraldetik kanpo eta bereziki musika mota desberdinak nahasten dituztenentzat.
- Errentagarritasun apalekoa izan arren, kultur industrien sektoreak balorizatzen ditu musika tradizionalak (KD edo DVD euskarrien argitalpenak Elkar, Agorila, ZTK, label independente eta autoprodukzio, baina ere ekitaldi erritualen kaptazioan aditua den Aldudarrak Bideoren bitartez).
- Euskal Irratien eginkizuna zentrala da musika tradizionalen hedapen eta sustatze mailan.
- Sare sozialak eta musika plataformak inbestituak dira (adibidez: clip-teaser hedatzea).
- Musika tradizionalen hedapen ekintza desberdinak estrategiarik gabe eta sare mugatu baten logikan plantan ezarriak dira. Potentzia publikoak noizbehinka baizik ez du esku hartzen.
- Musika tradizionalak irudimen kolektiboan finkatuak dira.

GOMENDIOAK

- **Praktika amaturraren garapenean bermatu musika tradizionalen hedapenaren jarraipen publikoaren plan bat egituratu (jadanik dagoena sarean ezarritik, industria**

kolektiboak lagunduz, estudioa edo materiala – edo ingeniartzan – teaser bat egin, sustapena, etab.).

- Ohiko musikari dedikatu hedapen guneak sortu, kultura eta besta gertakari handietan (EHZ, Baionako bestak, Herri Urrats, etab.) eta tokiko irratien emankizunetan.

> GAUR EGUNGO MUSIKAK

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

Artistek deklaratu sorkuntzen memoria begiratzeko duen Sacem-az aparte, ez da gaur egun batere bilketarik egiten, gaur egungo musika gehienak sorkuntzak izanki. Hauek guziak artistek edota taldeek, beren gisara atxikitzen dituzte. KD-ak argitaratzen dituzten disketeek ere begiratzeko dituzte.

GOMENDIOAK

Gogoeta orokor eta adostu bat abian ezarri, gaur egungo musikei buruzko artxiboak bildu, tratatu eta balorizatzeko.

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: transmisioa naturalki murgilketaren bidez egiten da nerabezaroan, lehen musika taldeak osatzen direlarik baina aitzinago lortu ezagutzetan oinarritzen da (musika tresna bat jotzen jakitea).
- AKH/EIJB: eskaintza biziki eskasa. Arlo honetan eskaintza bat egituratu duten Moï Moï eta Haurrock gisako elkarteez aparte, gaineratekoa musikari edo irakasle batzuegandik etorri ekimen pertsonaletan mugatzen da. Bestalde, musikari gehienak amaturrak dira eta denbora falta dute ibilbide egituratuetan erregulariki ekiteko.
- Irakaskuntza artistikoa: gaur egungo musikaren irakaskuntza, tokiko elkarte, musika eskola eta Maurice Ravel kontserbatorioaren artean banatzen da:
 - ✓ Maurice Ravel Kontserbatorioak irakaskuntza desberdinak proposatzen ditu baina erabili erreperitorioak ez du biziki gaur egungo euskal musika hunkitzen;
 - ✓ tokiko elkarte eta musika eskolak dira formakuntza koadro erabilienak: gitarra, baxua, bateria, boza besteak beste (adibidez: Garazi-Baigorriko musika eskola txaranga, rock eta jazz irakaskuntzarekin).
- Euskarri funtzioak:
 - ✓ Gaur egungo euskal musikei buruzko formakuntzarik ez formatzaileentzat.
 - ✓ Material pedagogiko bereziturik ez.

GOMENDIOAK

- AKH/EIJB arloko eskaintza egituratu.
- Euskarazko gaur egungo musiken irakaskuntza artistikoa garatu bai elkarteetan, bai musika eskoletan edo Maurice Ravel Kontserbatorioan.
- Gaur egungo euskal musikei buruzko formakuntza moduluak plantan ezarri formatzaile eta irakasleentzat.
- Horren inguruko material pedagogikoa sortu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Ugari diren dantzaldi taldeez gain, guti edo aski aktiboak diren hogoita hamar bat talde kontatzen ditugu. Talde hauen artean, gehienek beren sorkuntzak jo arren, batzuek kantu tradizionalak hartzen dituzte beren estilora egokitzeke. Beste sorkuntzak ex nihilo musika akustikoari egokituak dira, beren hedapena leku ttipiagoetan errazteko.
- Musikari amaturek dute nagusiki sektore hau bultzatzen, taldeen aktibitate artistikoa ez baita nahikoa beren arteaz bizitzeko.
- Badirudike sorkuntza dinamika apalagoa badela 18-25 urtekoen artean eta balio luke zergatia aztertzea.
- Sorkuntza guneak batzuetan gela hornituak dira (adibidez: Biarritzeko Atabal errepika eta ikuskizunetarako). Errepika eta ikuskizun lekuak partekatuz, taldeek elkar ezagutzen dute eta praktikak trukutzen dituzte. Usuago, musikariak partikularren lokalak erabiltzen dituzte (garageak, taldeko musikari baten lokala). Orokorki, gaur egungo musikak sortzeko hornikuntza biziki guti da.

GOMENDIOAK

- **Gaur egungo musikei, sorkuntza dinamikei, diskoaren industriari buruzko egoeraren azterketa zehatza egin.**
- **Gaur egungo musika taldeen sorkuntza artistikoa jarraitu, “fabrika” motako sorkuntza lekuak eta grabaketa estudioak sostengatuz.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Hedapen lekuak:
 - ✓ Gaur egungo euskal musika gaztetxe, herriko besta, ostatu gisako sare “alternatiboetan” hedatzen da gehienik. Leku hauek ohol biziki onak dira musika taldeentzat. Usu galdeginak diren taldeek, besta komiteek eta gaztetxeek ordain ditzaketen ordainsariak proposatu behar dizkiete. Paraleloki, badirudi taldeen errezibitzeko kalitatea hobetu daitekela.
 - ✓ EHZ festibala erakusleihu ona da besteak beste gaur egungo euskal musikarako. Azken honi leku ona eskainia zaio ere Usopop edo Baleapop bezalako festibal alternatiboetan.
 - ✓ Azken urte hauetan, gaur egungo euskal musikak pixkanaka sartzen dira sare dedikatuetan: Atabal, antzokiak, ikuskizun gelak.
- Kultur industriak:
 - ✓ Disketxe desberdinak daude ipar Euskal Herrian: Ipar Orratza, ZTK, Agorila, Anorack records, Amanita Records, Lanetik Egina, Moï Moï. 1990. hamarkadako label independienteak gaur egun baino gutiago dira, diskoaren krisiaren eta internet bidezko musika deskargengatik.
 - ✓ Mezenasgoa edo finantzatze parte hartzailea bezalako finantzamendu pribatu entsegu batzuk badaude baina biziki mugatuak dira. Finantzamendu edo sostengu tekniko dispositibo publikoak eskasak dira iduriz.
 - ✓ Horrela, gero eta disko autoprodukzio gehiago dago eta taldeek haien barne eta sareko gaitasuna garatzen dute. Ondorioz, sostengu teknikoa, humanoa eta diru

mailakoa eskasa iduri zaie hedapen sareetan sartzearraren erraztuko lieketen euskarriak ekoizten lortzeko.

- ✓ Azkenik, elkarte irratiek eta sare sozialek eginkizun garrantzitsua dute gaur egungo musiken balorizazioari dagokionez.
- Hedadura:
 - ✓ Zenbait talde aski erregularoki ibiltzen dira hego Euskal Herrian beren KD-a ongi banatua delako edo irratien sostenguari esker. Gerta daiteke Frantzian edo atzerrian ere ibil daitezen taldearen sareen arabera (Bretania, Bordele, Bartzelona, Argentina, Txile, Los Angeles). Alta, publikoa usu identifikatua da atzerrian, baina taldeek ez dute sarerik beren garraioak errazteko.
 - ✓ Bestalde, "euskal" kategorizazioak usu arazoak sortzen ditu: gaur egungo musika taldeen ekoizpenak usu "euskal kanta/euskal musika" gisa sailkatuak dira, musika sail unibertsalean (rock, blues, folk, rap, etab.) sartuak izan ordez.

GOMENDIOAK

- Sare alternatiboak sentsibilizatu gaur egungo euskal musika taldeen harrera baldintzak hobetzeko (teknika eta diru mailan).
- Gaur egungo musikak festibaletan eta hedapen sare dedikatuetan sartzearraren sustatu.
- Gaur egungo musiken aldeko kultur industriak azkartu eta garatu.
- Artistak sustapen eta hedapen tresnen ekoiztean sostengatu.
- Artistei jarraipen tekniko eskaini, finantzamenduak edota hedapen sareetara hel daitezen
- Hedapen sareak Frantzia eta nazioarte mailan egituratu, gaur egungo euskal musika hedatzen laguntzeko.

> KANTU TRADIZIONALA EUSKARAZ

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Bilketa mailan fondoak badaude baina barreiatuak dira eta ez da neholako lan adosturik ez eta egonkorrik burutzen hauen tratatzeko.
Fondoak badaude Baionako Euskal Museoan, Errenteriako Eresbil euskal konpositoreen artxibo zentroan. MuCEM-en (MNATP ohia – Herri arte eta tradizioen museoa nazionala) Euskal Herrian 1947 eta 1983 bitartean burutu ahozko ikerketak aurkitzen dira. Bestalde, Eleketa (DK64/EKE) gisako programen bidez bildutako fondo batzuetan euskal kantu tradizionalak aurkitzen dira. Molde berean, Euskal Irratiek, prentsa idatzia (Herria) eta Aldudarrak Bideok kantuak biltzen dituzte emankizun, kultur ekitaldi edo erritualen kariatara (pastoralak, kabalkadak, etab.). Zenbait kantu zahar EKE-k antolatu “Kantuketan” erakusketaren kari bilduak izan dira. Zuberoako Sü Azia eta Senpereko Ostikenea gisako elkarteek soinuak fondo bilketa garrantzitsua burutu dute, euskal kantuari leku ederra eskainiz.
- Ez da batere programa arrazoirik eta egonkorrik balorizazio mailan, nahiz eta ekimen batzuk badauden:
 - ✓ EKE-k eskal kantuaren balorizazio lan garrantzitsua garatu du 2000. hamarkadan, “Kantuketan” bere programaren bitartez. Hau honela gauzatu da: erakusketa ibiltaria, kantariendako formakuntza tailerrak, CD-ROM baten argitaratzea eskolentzat, artista egonaldiak mundu osoko kantari batzuekin, etab. Gaur egun, erakusketa entzuteko 150 kantu eta musika, artxiboak eta kantari batzuen lekukotasunak bildurik dituzten lau hizkuntzako bi upipen pantail interaktibotan bateratua da. Oraindik zenbait mediateka eta elkarte erabiltzen dute.
 - ✓ Bestalde, Baionako Euskal Museoa, Eresbil musikaren euskal artxiboen zentroa edo Eleketa programa osatu duen Pirinio Atlantikoetako Departamendua bezalako egiturek bildu fondoak, publikoaren esku uzten dituzte.

GOMENDIOAK

- Euskal kantuaren bilketa, tratamendua eta balorizaziorako programa iraunkor bat egituratu (ikus-entzunezko, idatzizko euskarriak, argazkiak, prentsa artikulak, etab.):
 - ✓ jadanik dauden fondoetan oinarrituz;
 - ✓ garaikidearen bilketa sistematikoa bermatuz euskal kantuaren arloan.
- Hego Euskal Herrian jadanik egin denekin artikulazio/osagarritasun bat finkatu.

> Belaunaldi gazteei transmititu

- **Murgilketa bidezko transmisioa:** Murgilketa bidezko transmisioa oraindik gauzatzen da tokika. Transmisio hau familia giroan egingarria da. Molde berean, herriko bestetan edo kultur ekitaldietan, badirudi oraindik hala gertatzen dela. Aldudarrak bezalako elkarteek kartsuki jarduten dute transmisio dinamika bat sortzeko ikusgarri baten sortzearen inguruan. Azkenik, gazteak bi urte guziz antolatua den Kantu Txapelketaren bitartez hunkituak dira.
- **AKH/EIJB – Eskoletako irakaskuntza:**
 - ✓ Transmisioa eskolen bitartez egiten da nagusiki: lehen mailako irakasle askok euskal kantuak hizkuntza irakasteko eta urte bukaerako ikuskizunak prestatzeko erabiltzen dituzte. Hala ere, azpimarratzekoa da eskoletan irakatsi kantuak ez direla beti haurren adinari egokituak.
 - ✓ EIJB eta AKH-ren zirkuitua baztertua da aktibitate hauei eskaini oren kopuru eskasa eta parte hartzaileen soldata apalengatik. Kantari bakan batzuk dute haien ekimen propioz lan hori burutzen.
- **Irakaskuntza artistikoa:** ez da gaur egun neholako irakaskuntza artistiko egituraturik lurraldean, kantu tradizionalari formatzeko gogoeta elikatzen duten Donibane Garaziko Iparralai edota Kantu Txapelketa salbu. Maurice Ravel Kontserbatorioak ez du euskal kantu klaserik eskaintzen.
- **Euskarri funtzioak:** ez da formatzaileen formakuntzarik eta baliabide pedagogiko biziki guti daude.

GOMENDIOAK

- **Murgilketa bidezko transmisioa:** ekitaldi bat antolatzerakoan, transmisio dinamika sortzen dituzten elkarten inizatibak sustatu.
- **AKH/EIJB:** AKH/EIJB arloko eskaintza orokorra egituratu euskal kanturako.
- **Irakaskuntza artistikoa:**
 - ✓ Bizi eremu guztiak estaltzen dituen irakaskuntza artistiko arloko eskaintza egituratu.
 - ✓ Maurice Ravel Kontserbatorioa eta elkarteak sostengatu, euskal kantu tradizionalaren irakaskuntza eskaintza orokorra proposatzeko.
- **Euskarri funtzioak:**
 - ✓ Ikasleen maila egokitu zinezko formakuntza programa bat, euskal kantuaren historiaren irakaskuntzarekin eraiki eskuhartzaileekin, irakaskuntza artistikoa eta AKH/EIJB-erako.
 - ✓ Formatzaileen formakuntza eta baliabide pedagogikoen ekoizpena bermatu.
 - ✓ Irakasleen formakuntza moduluak plantan ezarri.

> Praktika eta sorkuntza dinamika lagundu

Hiru praktika sailetan laburbildu daiteke euskal kantu tradizionala:

- Kantu partehartzailea: aski da behatzea zenbat herri edo kultur edota familia ospakizunetan jendeak bere baitarik nola hasten den euskal erreperitorio tradizionala kantatzen, euskal kantuaren alde sozialaz ohartzeko. Paraleloki, elkarte askok

elkarretaratzeak antolatzen dituzte taldean kantatzeko, musika lagun, Baionan Kantuz edo Donibane Lohizuneko Kantuaren Eguna bezalako animazioen bitartez.

- Kantua ekitaldi erritualetan: euskal kantua Euskal Herrian eta urte osoan iragaiten diren ekitaldi erritual desberdinetako erabateko osagaia da. Kantu berriak sortzeko eta goi mailako kantari amaturen kopurua erreberritzeko aukera eskaintzen dute pastoralak bezalako ekitaldiek, Zuberoan nagusiki.
- Ikusgai den kantua (kantaldi, diziplina anitzeko ikuskizunak, etab.): herriko bestetan, kultur ekitaldietan aritzeko osatzen diren talde amaturrek ere sortzen dituzte kantu tradizionalak. 80. hamarkadako kantaldiak gero eta gutiago daude, kantarako zaletasun handia izan arren Euskal Herrian. Noizbehinka, kantari batzuek kantuari tokia egiten dioten diziplina anitzeko proiektuetan hartzen dute parte.

Praktika hau integratzailea bilakatuz, kantu tradizionala berpizte une batean baldin bada ere, badirudi hala ere zenbait urtez euskal kantuaren erreperitorioa berritu duten goi mailako kantari amaturrak piska bat akitu direla.

Bestalde, egoera aski kezagarria da: erreperitorioaren zati ttipi-ttipi bat besterik ez da herri moldean kantatua da eta ehundaka kantu ez ditu ezagutzen publiko zabalak, eta gazteek bereziki.

Azkenik, kantarien estiloa eta tinbrea aldatzen ari dira estilo arruntago, “estandarrago” bati lekua uzteko, zenbait eremu batzuetan salbu (Aldude, Zuberoa), bertan murgilketa bidezko transmisioari esker, gazteek tinbre berezi bat lantzen segitzen ahal dute.

GOMENDIOAK

- **Eragile (kantari, musikari), elkarte eta instituzio desberdinekin, EKE barne, erreperitorio kantatuaren berjabetze eta berritzeari buruzko gogoeta bat abian ezarri.**
- **Euskal kantu arloko sorkuntza proiektuak sostengatu.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Hedapen lekuak: orokorki, kantu tradizionala lurraldeko lehen gustuetako gauza bat izan arren, hedapen aukerak urriak dira talde edo bakarkako kantariantzat:
 - ✓ Kantu partehartzaileari eta ekitaldi erritualei lotutakoari dagokienez, hedapena esparru publikoan egiten da;
 - ✓ Ikusgai den kantuari dagokionez, artistak gehien bat sare “alternatiboetan” agertzen dira: herriko bestetan edo usu tokiko euskaigintzako elkarteek antolatu kultur ekitaldien kariatara;
 - ✓ oso gela “labelizatu” gutik hartzen dituzte euskal kantuaren inguruko kontzertuak;
 - ✓ nagusiki ipar Euskal Herrian hedatzen da, noizbehinka ekintza batzuk eramanez hego Euskal Herrian eta hurbil diren eskualdeetan (zenbait heldu talderen bidaiak Frantzia burutu kultur ekitaldien kariatara).
- Kultur industriak: kultur industriak mobilizatuak dira euskal kantua hedatzeko.
 - ✓ Elkar, Agorila, ZTK bezalako argitaletxeek, label independenteek argitaratu KD eta bideo batzuk eta autoprodukzioak badaude.

- ✓ Hedabideei dagokienez: Euskal Irratiak dira euskal kantua hedatzeko lehen bektorea. Aldudarrak Bideok euskal kantuaren inguruko kontzertuen bideoak ekoizten ditu.
- ✓ Presentzia sare sozialetan, musika gunetan (YouTube, Deezer, etab.). Talde batzuk clips-teaser-ak ekoizten dituzte haien sorkuntza lanaren sustapenerako.
- Hedadura:
 - ✓ Zenbait kasuez aparte, euskal kantua ez da biziki ezagutua Euskal Herrikan kanpo.
 - ✓ Zenbait trukatzeko tradizio kantatuzko beste kultura batzuekin.
- Sustapena – Kultur zilegitzea: kantu tradizionala naturalki finkatua da lurraldearen bizian.

GOMENDIOAK

- Hedapen lekuak:
 - ✓ Euskal kantu ikusgarriak programatzen dituzten kultur elkarte edota tokiko kolektibitateak diru eta teknika mailan (gelak prestatuz adibidez) sostengatu.
 - ✓ Euskal kantuaren hedapen zirkuituak indartu sare labelizatueta, publiko berriak hunkitzeko gisan.
- Kultur industriak: euskal label diskografikoak sostengatu (KD, bideo, clips-teaser, etab. argitaratzea).
- Hedadura:
 - ✓ Euskal artistak kanpoan aritzeko laguntza ekarri: diru partaide eta partaide teknikoak bilatu, idatzizko eta ikus-entzunezko komunikazio tresnak, sare sozialak, etab.).
 - ✓ Euskal Herriko eta kanpoko kantarien arteko trukatzeko eta artista egonaldi programak sostengatu, elkarren trebetasun tekniko eta artistikoz elikatzeko eta beren kultura propioa aberasteko.

> KORU KANTUA EUSKARAZ

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Ez da ipar Euskal Herrian euskal kantuen bilketa sistematikorik korista batzuen urraspide indibidual eta noizbehinkako proiektuez aparte (“Kantuketan”). Gainera, bildu fondoak ez dira besteen esku utziak.
- Hala ere, Maurice Ravel Kontserbatorioak euskal kantu batzuk haren “partitekan” sartzen ditu eta korista askok, 50 hamarkadako Eresoinka taldeak hornitu partiturak erabiltzen dituzte.
- Errenteriako Eresbil artxibo zentroa da arlo horretako baliabide gune nagusia: zenbait kantu sortzailek beren jatorrizko dokumentuak bertara ekartzen dituzte. Koristak erregulariki hara joaten dira ikerketak egiteko.

GOMENDIOAK

- **Tratamendua eta balorizazio molde desberdinak (pedagogikoa, numerikoa, artistikoa, etab.) sartuko dituen kantu koralaren programa orokor bat plantan ezarri.**
- **Partaidetzak garatu, hego Euskal Herriarekin bereziki, arlo horretan trebetasun handia duten Eresebil bezalako leku-baliabideen bitartez.**

> Belaunaldi gazteei transmititu

- AKH/EIJB – Eskolako irakaskuntza: ez da kasik deus eskaintzen zenbait irakasle sentsibilizatuk abiatu proiektuez aparte.
- Irakaskuntza artistikoa:
 - ✓ Haurrez osatu euskarazko koru guti daude ipar Euskal Herrian (2/3 zerrendaturik) hego Euskal Herrian ez bezala, bertan zinezko dinamika bat baitago arlo horretan.
 - ✓ Euskal Herri barnealdean, euskarazko koru kantua Garazi-Baigorriko musika eskolan irakatsia da.
 - ✓ Maurice Ravel Kontserbatorioak koru kantuari eskaini klaseak ematen ditu (boz eta kantu teknikak) baina biziki guti euskaraz.
 - ✓ Trukatze entseguak egiten dira musika eskoletako, kolegioetako eta elkarteetako kantarien artean kontzertu bateratuak proposatzeko.
- Euskarri funtzioak:
 - ✓ Aste batez, Iparraldeko Abesbatzen Elkartek koruak zuzentzeko formakuntza (hiru maila) bai eta haur koroen zuzendaritzarako formakuntza pedagogiko berezia eskaintzen du. Euskal errepertorioa aipagaietako bat da. Irakaskuntzaren edukia eta kalitatearen ebaluaketa bat egitekoa da, eta orokorki, Iparraldeko Abesbatzen Elkarteen eskaintza eskasa da.
 - ✓ Formatzaileen formakuntza guti eta koru kantuari buruzko material pedagogiko guti formatzaile/irakasleen esku utzirik.

GOMENDIOAK

- **AKH/EIJB – Eskolako irakaskuntza:** koru kantuen inguruko eskaintza bat egituratu.
- **Irakaskuntza artistikoa:**
 - ✓ Kantu koraren irakaskuntza azkartu musika eskoletan.
 - ✓ Haur koruen sorkuntza sustatu.
 - ✓ Euskarazko koru kantua sartu Maurice Ravel Kontserbatorioaren programetan.
- **Euskarri funtzioak:** Formatzaileen formakuntza eta baliabide pedagogikoen ekoizpena garatu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- EKE-k eta Siadeco-k 1999an burutu inkesta baten arabera, euskaldunak eta euskaldunak ez diren 80 korala laiko eta erlijiosoak biltzen dituzten 2 700 korista inguru kontatzen ditugu ipar Euskal Herrian (%60 emazteak direlarik). 500 kantari inguruk osatu 22 koru biltzen dituen Iparraldeko Abesbatzen Elkartea bat badago ipar Euskal Herrian. Errepertorioari dagokionez, kantatu obren %69,50 euskaraz dira.
- Euskal Herri osoan, biziki goi mailako gizon koru eta koru mistoak daude gaur egun. Honela, urte guziz Tolosan antolatu koru kantuen festibala, nazio arte mailan ospetsua da orain. Haatik, ipar Euskal Herrian, adin bateko koristek eraman koru kantuen inguruko dinamika bat egon arren, kantuen tradizioa galtzen ari da, gehien bat gazteen artean, guti ibiltzen baitira koraletan, hauek errepertorioaren berritze eskasa pairatzen dutelarik. Alabaina, koruen errepertorioa aberastera datozen musikari batzuk (edo hego Euskal Herriko koru buruak) batzuetan esku hartu arren, sorkuntzak usu jadanik dauden kantuen egokitzapenak baizik ez dira. Horregatik zenbait koralek obra berrien sortzeko lehiaketak abian ezartzen dituzte, konpositore batzuei manatu musiken bitartez.

GOMENDIOAK

Konpositore garaikideei musika manatze gehiago egin, koru kantua berritzeko gisan.

> Publiko guzengana hedatu eta sustatu

- **Hedapen lekuak:**
 - ✓ Koruak usu elizetan aritzen dira bertan akustika ona baita, nahiz eta azken urte hauetan elizako arduradun batzuk uzkur izan taldeei ateak irekitzeko. Batzuk (helduenak besteak beste) biziki usu aritzen dira (40 aldiz urtean batzuk), gehien bat udan.
 - ✓ Mugazgaindiko arloan, hego Euskal Herrian koru anitz izanki, zaila zaie iparraldeko koruei han aritzea. Hala ere, binazkatuak edo historikoki lotuak diren hirietako koru batzuen artean trukatzeko emankorrak badaude (adibidez: Gernika-Garazi, haur iheslariak Zitadelan babesturik egon zirelako gerra zibilaren garaian).
 - ✓ Diru laguntza mugatuak ipar Euskal Herriko taldeentzat, hegoaldekoekin konparatuz.
- **Kultur industriak:** usu autoprodukzioan ateratako edo Elkar nahiz Agorila bezalako argitaletxeek argitaratu koru kantuen inguruko KD eta bideoak badaude. Euskal

Irratiek koru kantua hedatzen dute bere programetan. Azkenik, euskal kantuak aurkitzen ditugu sare sozialetan edo musika guneetan (YouTube, Deezer, etab.).

- Hedadura: Euskal Herriko koruek festibal batzuetan parte hartzen dute Frantzian edo atzerrian. Federazioko koru bakoitza urtean 2 aldiz Euskal Herritik kanpo aritzen da. Seinala dezagun kontzertuetan, kantuak usu elebidunez aurkeztuak direla (euskara-frantsesera eta/edo gaztelera).
- Sustapena – Kultur zilegitzea: koru kantuen sustapena ahotik belarrira edo Iparraldeko Abesbatzen Elkartea sarearen bidez egiten da. Euskal koru kantuak ospe handia lortu du, nazio arte mailan besteak beste.

GOMENDIOAK

- Euskal koruen hedapena Euskal Herri mailan eta kanpoan sostengatu, talde egokienak gehien bat hautatuz: berezitasuna, kalitatea, kantarien adina, proposatu proiektuak, etab.
- Ipar eta hego Euskal Herriko koruen arteko trukatzek azkartu.
- Koru kantuaren inguruan proiektuak dituzten euskal disketxeak sostengatu (KD, bideo, klip-teaser, etab.).
- Koru kantuaren hedapen sareetan gehiago sartu, bereziki arte diziplina horri dedikatu festibalak.

> ARGAZKILARITZA

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Nahiz eta aberatsa izan eta kalitate artistikoak eduki, ez da urraspide egituraturik plantan ezarria izan tokiko argazki ondarearen zaintza bermatzeko.
- Badirudi ez dagoela argazkilaritzari eskaini biltegiegokirik Euskal Herrian. Aski sintomatikoa da adibidez, Luzien Gabriel Martinez argazkilariaren fondoa, berak Bordeleko Akitaniako Museoari eskaini izana eta ez tokiko egitura bati.
- Honela, argazkilariek nahiago dituzte usu beren fondoak berek artxibatu, begiratze baldintzak segurtatzen dituen egitura bati eman aitzin.

GOMENDIOAK

“Argazkilaritzaren etxea” motako egitura bat sortu, tokiko argazki ondarea begiratzeko, fondoaren dokumentu tratamendua segurtatzeko eta publiko zabal batenganako balorizatze desmarta bateratu eta egituratua abian ezartzeko.

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: murgilketa eta belaunaldi arteko harremanak funtsezkoak dira hainbat zale, bereziki belaunaldi gaztearen artean, batzen dituen argazkilaritza artearen transmisio arloan.
- AKH/EIJB: esku hartzen dutenek beren pasioa gazteenekin partekatzeko interesa eta haurrek irudiarekiko orokorki duten interesa onartzen badute ere, zenbait zailtasun azpimarratzen dituzte:
 - ✓ formakuntza eskasa taldeak kudeatzeko EIJB-en baitan;
 - ✓ lan denboraren antolatze arazoak;
 - ✓ esku hartze eskaren menturazko izaera;
 - ✓ euskararen jakitate eskasa murgiltze edo elebidun sareetan esku hartze.
- Irakaskuntza artistikoa:
 - ✓ Eskolaz kanpoko denboran, argazkilaritza argazki klubetan irakatsia izan daiteke. Hala ere gazte guti dira hauetan ibiltzen. Bestalde, Euskal Herriko Arte Goi Eskolak argazkilaritzaren inguruko tailer bat eskaintzen die nerabeei.
 - ✓ Ortes-eko lizeo publikoak “argazkilaritza” opzio bat eskaintzen du. Horren ondotik, ikasleek Biarritzeko Malraux lizeoko “argazkilaritza” BTS-arekin segitzen ahal dute.

GOMENDIOAK

- Murgilketa bidezko transmisioa: **“Argazkilaritzaren etxea” motako egitura bat sortu elkartzeak, formakuntza saioak eta hemengoak baina ere kanpokoak diren argazkilari amatur eta profesionalen arteko belaunaldi arteko formakuntza eta trukatzeko saioak antolatze.**

- **AKH/EIJB:** AKH/EIJB ibilbideetako eskaintza orokorra berregituratu eta formatzaileen formakuntza bermatu.
- **Irakaskuntza artistikoa:** Euskal Herriko Arte Goi Eskolaren eskaintza osatuko lukeen irakaskuntza artistiko baten eskaintzaren garapenaren aukera aztertu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Argazkilaritzaren jardura ongi finkatua da Euskal Herrian, beste lekuetan bezala, numerikoak ekarri demokratizazioari esker. Galdezkatutako eragileen arabera, talentuz beteriko belaunaldi gazte bat ari da mugimendu horretatik ateratzen. Haatik, amatur praktikaren hedapenak azkarki laguntzen du egile eskubide nozioa galarazten, instituzio publikoetan ere. Horrek artista-argazkilari estatutua zalantzan jartzen du. Aitorpen eskas horrek arlo honetako eragile profesionalak kezkatzen eta kexarazten ditu.
- Sorkuntza arloan, argazkilaritzari eskaini diru laguntza edo egonaldirik ez dago.
- Argazkilariek diote ere lokalak, material prestatua, erakusketa leku egokiak eskas dituztela.
- Praktika artistikoak (dantza, musika, kantua, zinema, etab.) gaur egun erakusketa edo bisita gidatuen inguruko animazioetan baizik ez dira gurutzatzen.

GOMENDIOAK

- **Artista-argazkilari estatutua balorizatu, besteak beste instituzio publikoak egile eskubideen arazoez ohartaraziz.**
- **Sorkuntza eta egonaldi proiektuak lagundu, bai diru mailan eta bai teknikoan ere, tokiko artistek bere inspirazioa eta bere artea garatzeko ahala izan dezaten.**
- **“Argazkilaritzaren etxea” motako leku bat sortu, materiala, lokalak eta erakusketa gelak prestatuko lituzkeena.**
- **Argazkilaritzaren mundua integratzen duen diziiplina anitzeko (dantza, musika, zinema, literatura, etab.) proiektuak garatu.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- **Hedapen lekuak – Hedadura:**
 - ✓ Argazkilariek irudimena erabiltzen badute beren artea publiko zabalarari usaiako lekuetatik kanpo ezagutarazteko, badirudi tokiko profesionalei zaila zaiela tokiko eta nazio mailako zirkuitu ofizialetara hurbiltzea, hauek usu kanpoko artistak nahiago dituztelako.
 - ✓ Era berdinean, tokiko argazkilariek zinez nahi dituzte harremanak garatu haien hegoaldeko homologoekin, baina sareak ez dituzte ezagutzen.
- **Sustapena – Kultur zilegitzea:** tokiko sorkuntzaren aipamen guti nazio mailako hedabideetan.

GOMENDIOAK

- Lekuak – Hedadura: argazki obrak Euskal Herrian eta atzerrian hedatzeko sostengua ekarri sare desberdinak identifikatuz eta egituratuz.
- Sustapena – Kultur zilegitzea: tokiko sorkuntza nazio mailako hedabideetan argian jarria izateko laguntza ekarri.

> ZINEMA/IKUS-ENTZUNEZKOA EUSKARAZ

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Ez dago gaur egun deus egituraturik ipar Euskal Herrian dauden obra zinematografikoak zaintzeko eta biltzeko. Eginkizun hau Donostian kokatu Euskal Filmategiak bermatzen du, Euskal Herrian edo Euskal Herriaz ekoiztu film gehienak, ipar Euskal Herrikoak barne. Horren osatzeko eta Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Aldundiak manaturik, “Zinea Sortzen” egiturak, jatorrian euskaraz edo euskaraz bikoiztuak ziren film (luzeak, animatuak, dokumentalak) bilketa lan bati ekin dio (ikus www.ganbara.eus gunea). Horregatik, EKE harremanetan sartu da Euskal Filmategia eta “Zinea Sortzen” egiturarekin. Eusko Jaurlaritzak “Kultura Auzolanean” programaren baitan plantan ezarri “Euskarazko zinema” batzordeko kide da ere EKE.
- Ikus-entzunezko arloari dagokionez, frantses kate publikoetan zabaldu Euskal Herrian eginak diren erreportaia guziak Institut National de l’Audiovisuel-en (INA) (Ikus-entzunezko Institut Nazionala) bilduak eta ikusgai dira (adibidez: Maite Barnetche fondoa). Aldudarrak Bideok, bai eta elkarte irratiek edo tokiko telebistek (France 3 Euskal Herri, Euskal Telebista, TVPI, etab.) kultur emanaldi anitz (antzerkia, dantza, musika, etab.) kaptatzen dituzte. Notatu behar da Baionako Euskal Museoak ikus-entzunezko fondoak badituela ere. Bukatzeko, Eleketa ahozko bilketa programan (DK64/EKE), gaur egun euskal kulturaren arlo desberdinei buruzko 300 lekukotasun filmatu baino gehiago aurkitzen dira.
- Grabatu edo orain filmatu erreportaia desberdinak numerizatuak dira, bai eta Euskal Herriari buruzko INA-ren artxiboak eta Eleketa fondoak.
- Nagusiki numerikoa den balorizazio lan bat burutzen du EKE-k apailatu “Mintzoak” Internet plataforman (Eleketa, “Itsasturiak” erakusketa ibiltariak, “SOKA”, etab. fondoak). EKE-k abiatu, ipar Euskal Herriko hiru lurraldeetan zabaldu “Chez les Basques” zikloaren helburua Orson Wells, Maurice Champreux, Louis Delluc, etab. bezalako egileen dokumentalak (berriz) ezagutaraztea izan da. Zinema sortu denetik biztanleen eguneroko bizia erakusten dute hauek. Hameka film hauen arrakasta itzela izan da.

GOMENDIOAK

- **Bilketa-zaintza plan orokorra plantan ezarri ipar Euskal Herrian, barreiatu fondoak biltzeko.**
- **Egiturekilako harremanak sendotu, bereziki hego Euskal Herrikoekin, bilketari dagokionez.**
- **Publiko desberdinei buruz (eskolak, publiko zabala, ikerlariak, artistak, publiko trabatuak) edukiak modalitate ezberdinen arabera (numerikoa, pedagogikoa, zientifikoa, artistikoa) balorizatu.**

> Belaunaldi gazteei transmititu

- Murgilketa bidezko transmisioa: transmisioa nagusiki, Kanaldude lurraldeko TB partehartzailearen gisako profesionalek eraman proiektuen bitartez burutzen da.
- AKH/EIJB: AKH mailako eskaintza urria da. AKH proiektu oso guti eramanak izan dira Ziburuko Larzabal kolegioko eta Baionako Etxepare Lizeoko ikasleei buruz. Bestalde, badago publiko gazteari zuzendu proiektzio eskaintza bat, baina ez da AKH desmartxan sartzen: Uda Leku elkartearen “Zine hamabostaldia”, Zineuskadik eta Urruñako Euskal Filmategiak koordinatu “Zine Gabonak” ekintza. Azkenik, “Ecoles au cinéma”, “Collèges au cinéma”, “Lycéens au cinéma” dispositiboek ez dute euskarazko filmik eskaintzen.
- Irakaskuntza artistikoa – Goi mailako irakaskuntza: Euskal Herriko Arte Goi Eskolan aparte ez da beste nehun ere arlo horretako irakaskuntza artistikorik. Goi mailako irakaskuntzan, Baiona-Biarritz ikus-entzunezko BTS-a zinezko Irudia eta Soinua Gune batean sartu puntako tresna pedagogikoa da. Honek formakuntza jarraikiak, hauen artean, Ikus-entzunezko Institutuak baliodun egin soinu ustiaketa teknikari formakuntza. Milaz gorako ikasle formatu ditu eta hauetako %90 baino gehiago ikus-entzunezko lanbideetan jarduten dute gaur egun. Euskal Herriko Arte Goi Eskolak ere Akitania eskualdeko irudiari heziketa gune proiektuan sartu diploma ere ematen du.
- Euskarri funtzioak: ez da kasik batere esku hartzaile identifikaturik, euskarri pedagogikorik zerrendaturik. Formatzaileen formakuntza guti, euskal zinemari sensibilizatzeko noizbehinkako ekintza batzuk aparte (adibidez: BILKETA/EKE programa). Festibal batzuen kariatara (Hazparneko “Zinegin”, Hendaia Film Festival) antolatu noizbehinkako Master class-ak.

GOMENDIOAK

- Murgilketa bidezko transmisioa: lurraldeko biztanleak partzuer hartzen dituzten ikus-entzunezko proiektuei sostengua sendotu.
- AKH/EIJB: lurralde osoa estaltzen duen eskaintza egituratua sortu.
- Irakaskuntza artistikoa – Goi mailako irakaskuntza:
 - ✓ Irakaskuntza artistiko arloan, identifikatu ikastetxeetan (adibidez: Euskal Herriko Arte Goi Eskola) euskal zinemari buruzko irakaskuntza sarrarazi eta eskaintza hau lurralde osoan zabaltu.
 - ✓ Goi mailako irakaskuntza arloan, identifikatu ikastetxeetan (adibidez: Euskal Herriko Arte Goi Eskola) euskal zinemari buruzko irakaskuntza sarrarazi.
- Euskarri funtzioak:
 - ✓ Esku hartzaile sare bat egituratu.
 - ✓ Balorizazio pedagogiko programa bat abiatu Euskadin hasi zerrendatze lanetik abiatuz.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Euskal zinemaren produkzio handiena hego Euskal Herritik dator eta Eusko Jaurlaritzak elikatu laguntza fondo batean oinarritua da (idazketarako laguntza, garapena, film luzeak, laburmetraiak, dokumentalak, animazioa). Euskarazko film produkzio guti ipar Euskal Herrian, nahiz eta gero eta gehiago filmatzen diren. Usu kalitate oneko dokumental batzuk.

- Aldudarrak Bideok hego Euskal Herriko ekoizle batzuekin koproduzitzen ditu lurraldean sendoki finkatu tokiko egile batzuek burutu film edo dokumentalak (“Xora”, “Dans leur jeunesse il y a du passé”). La Fidèle ekoizpen sozietatea sartua da ere Euskadiko ekoizle batzuekin film luzeen koprodukzioan. Ipar Euskal Herriari dagokionez, Akitaniako ECLA agentzia sektoreko erreferentea da ekoizpen arloan.
- Ikus-entzunezko ekoizpen sailan, tokiko egileek eraman film proiektuen sortzean, hego Euskal Herriko edo beste tokietako ikus-entzunezko enpresa batzuekin koproduzioan parte hartzen duten “Comédia production” edo “Aldudarrak Bideo” bezalako dokumental produkzio egitura batzuk badaude.

GOMENDIOAK

Lurralde mailan, ikus-entzunezko eta zinemako politika bat abian ezarri:

- **sareak profesionalizatzeko;**
- **IKN/CSA-k konbentzionatu lurralde telebista bat sortzeko;**
- **euskarazko produkzioa azkartzeko;**
- **Eusko Jaurlaritza eta Akitania Berriko sorkuntza eta produkzioa laguntzeko dispositiboak (ECLA, Ekein clustera, Ibaia, EPE-APV sareak) mutualizatzeko edo integratzeko aukera.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- Hedapen lekuak: lurraldeko zinegela guziak, festibalak (Baiona, Biarritz, Hendaia, Hazparne) dira euskal zinemaren hedapen leku nagusiak. Atalantek eta EKE-k elkarren artean sortu Gabarra Films egitura banatzaileari esker, euskarazko zinema produkzioa ongi hedatua da Euskal Herri osoan.
- Hedadura: euskalduna ez den publikoa eskaintza horretatik hurbiltzen ahal da Gabarra Films-ek proposatu azpititulu sistematikoari esker. Eskaintza hau Akitania Berria eta Frantziako hegoalde zabalean ere hedatzen da.
- Sustapena – Kultur zilegitzea: Gabarra Films egituraren berriki sortzeak, publikoaren eskaera azkar bati erantzuten dio. Ikusgarritasun mediatikoa pizten da eta nagusiki Euskadin ekoiztu euskal zinema baten kalitatea eta aniztasuna ezagutarazia da.
- Irakurketa publikoa: fondoen osaketa molde enpirikoan burutzen da eta indarrean diren legezko prozedurek ez dituzte gauzak errazten. Ekintza berezi guti antolatutak dira liburutegi-mediateketan euskarazko zinemari eta ikus-entzunezkoari lotu balorizazio eta mediazio mailan, zenbait proiektioz aparte.

GOMENDIOAK

- Hedapen lekuak:
 - ✓ **Gabarra Films sendotu lurraldean euskal zinema banatzeko duen jardueran.**
 - ✓ **Festibalen arteko trukatzekoak sustatu mugaren bi aldeetan.**
 - ✓ **Errepertorioko zine programak sortu eta koordinatu euskal zinearen historia ezagutarazteko.**
- Hedadura: Gabarra Films sendotu Akitania Berrian, euskal zinema banatzeko duen jardueran eta Frantzia osora hedatzeko.

- **Sustapena – Kultur zilegitzea:**
 - ✓ Euskal zinemaren sustapen/komunikazio baliabideak eman bere lurraldean eta Frantzia mailan.
 - ✓ Arartekolariak/animatzaileak formatu, obrak publikoei transmititzen bermatzeko (publiko guziak/eskoletakoak) (*ikus “Belaunaldi gazteei transmititu” zatia*).
- **Irakurketa publikoa:**
 - ✓ Erabiltzaileei euskarazko zinema/ikus-entzunezkora heltzeko aukera eskaini, fondoak molde sistematikoan eta arrazoituan osatzeko.
 - ✓ Fondoan inguruko mediazio ekintzak plantan ezarri (film erakustaldiak, elkarteak).

> ARTE PLASTIKOAK

> Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

- Deus ez da abian ezarria izan tokiko ondare artistikoa biltzeko eta begiratzeko eta horri eskaini egiturarik batere ez da.
- Hargatik, tokiko instituzio desberdinek euskal artisten obrak edukitzen dituzte.

GOMENDIOAK

Artista eta instituzio publikoekin desmartxa koordinatua eta egituratua abian ezarri, tokiko arte garaikidea begiratzeko eta publiko zabal batengan balorizatzeko.

> Belaunaldi gazteei transmititu

- AKH/EIJB:
 - ✓ Tailer proposamen guti eskoletan ikasleak arte plastikoei hurbilarazteko.
 - ✓ Gainera, eskolek ez dute aski informaziorik eskoletan edo eskoletatik kanpo esku hartzeko aukerez eta, alta, horrelako animazioak eskatzen dituzte.
 - ✓ Esku hartzaile guti daude eta ez dira usaian arte plastikoei formatuak (salbu esku hartzen duten artista bakanak baina oraindik gutiago direnak haien lanaren kostua handia delako).
- Irakaskuntza artistikoa: Euskal Herriko Goi mailako Arte Eskola hiriguneko bi arte eskoletako bateratzearen ondorioz sortzen da, gazte publikoari helduei bezain bat zuzendu tailer teoriko eta praktikoak proposatzen ditu eta hau, diziplina desberdinetan: marrazkia, margoa, grabaketa, moldatzea, zeramika, zizelkadura, argazkilaritza, animaziozko filma, bideoa, teknologia berriak (100 izen emate bestek besterik gabe, hauetatik %50 haurrak/nerabeak direlarik).
- Goi mailako irakaskuntza: Euskal Herriko Goi mailako Arte Eskolak ondokoa proposatzen du:
 - ✓ 1995az geroz, goi mailako arte eskoletako bi prestakuntza klase (17 ikasleko 2 ikasgela);
 - ✓ 2010az geroz, arte aplikatuetan heineratzeko klase bat Cantau lizeoarekin. Horri esker, "arte aplikatu" BAXO bat pasatu ez duten batxilerrak "design" BTS-etan sartzeko aukera badute (20 ikasleko ikasgela bat);
 - ✓ 2008az geroz, Arte Diploma Nazionala, BAXO-aren ondoko hiru urteko ikasketa ziklo bati dagokiona. Eskolak arte plastiko eta bisualei formakuntza orokorra proposatzen du (marrazkia, margoa, bolumena, muntadura, bideoa, multimedia, etab.), mugitzen den irudian oinarritu orientazio batekin. Biarritzeko "Irudi gunean" sartua da (ikus-entzunezko BTS eta argazkilaritza BTS-arekin partaidetzan). 20 ikasleko 3 ikasgela.
- Euskarri funtzioak: baliabide pedagogikoak eskas dira.

GOMENDIOAK

- **AKH/EIJB:** irakasleak arte plastikoei sentsibilizatu eta esku hartzaileei zuzendu formakuntza plantan ezarri, ESAPB-ekin partaidetzan.
- **Euskarri funtzioak:** haurrei eta gazteei zuzendu arte garaikidearen jendarteratze tresnen sortzea sostengatu.

> Praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu

- Artistek profesionalak eta amaturrak bereizten dituzte arte plastikoetan. Artista amaturrek beste lanbide bat dute eta, naturalki, ez dute zorrotasun berdina, egin lanari dagokionez.
- Laguntza publikoak eskasak dira arlo horretan. Arte plastikoak ez dira biziki konduetan hartuak laguntzak banatzerakoan. Hortik dator artisten eta beren sareen autofinantzatzea eta urrikakoa lana.
- Artista eta sorkuntza egonaldiak badaude lurraldean (adibidez: Nekatoenea Hendaian), eta noizbehinkako deialdi publikoak agertzen dira erregulariki (adibidez: “arte plastikoak eta musika deialdi publikoak” Donibane Lohizuneko Baleapop festibala).
- Euskal kulturaren osagaietarik batzuk, dudarik gabe sorkuntzarako euskarri edo inspirazio iturri gisa erabili materialak dira. Euskal Herriko Goi mailako Eskolak elementu hauek erabiltzea azkarki bultzatzen du.

GOMENDIOAK

- **Arte plastikoen inguruko sorkuntzaren jarraipena egituratu Euskal Herrian.**
- **Arte plastikoen inguruko sorkuntza proiektuak diru mailan lagundu, plantan ezartzen dituzten elkarten bitartez.**

> Publiko guziengana hedatu eta sustatu

- **Hedapen lekuak:**
 - ✓ Orokorki, ez da erraza arte garaikidea hedatzea, Euskal Herriko panoraman arte bisualak biziki guti ezagutuak baitira, gehien bat instituzio publikoengandik.
 - ✓ Kargu txosten biziki zorrotza duen hedapen leku berezitua arrunt eskas da (arte garaikide zentroa): zuzendaritza artistikoa, erakusketa unibertsalak, artista gazteei sostengua, mediazio ekintzak.
 - ✓ Badu zenbait urte, hala ere, Barozeko Foyer des jeunes et d'éducation populaire edo Itzal Aktiboa bezalako elkarte batzuk arte garaikidearen inguruko erakusketak antolatzen dituztela.
 - ✓ Molde berean, mugazgaindiko arloan, harremanak badaude museo edo kultur zentro batzuekin proiektu berezi batzuen inguruan, baina arte plastikoetarako mugazgaindiko egiazko sare bat eskas da.
 - ✓ Orokorki, artista batzuek nahi lukete Ipar Euskal Herriko artista plastikoen federazio bat sor dadin, Auvergne Rhône-Alpes-en plantan ezarri MAPRAA, arte plastikoen etxea bezalakoa. Honek ingeniarietza egiten du artisten alde eta arte garaikideari buruzko zinezko informazio zentroa da.

- Hedadura: hedapena nazio mailako edo nazio arteko sareen bitartez burutzen da (museo, galeria, etab.), eta zaila da usu azken hauengana hurbiltzea.

GOMENDIOAK

- Hedapen lekuak:
 - ✓ Arte garaikiderako hedapen leku berezia sortu Euskal Herrian: aldi bateko erakusketak, formakuntza, informazioa, mediazioa, etab.
 - ✓ Gai honi buruzko mugazgaindiko harremanak garatu.
- Hedadura: arte plastikoen hedapenaren saretzea sostengatu kanpoaldean, aitzinetik jendetaratze eta komunikazio lan garrantzitsua burutuz (euskal artisten urtekari berezien argitaratzea, arte kritikak gomiatu, enpresa mezenasgoa, etab.).

2. ZATIA

EUSKAL KULTURAREN ALDEKO NORABIDE ESTRATEGIKOEN PROPOSAMENAK

Diagnostikoaren analisiak euskal kulturaren osagai nagusien arteko joera amankomunak erakusten ditu.

Praktika eta sorkuntzari dagokionez, alde batetik euskal kulturaren praktika parte hartzailea ageria da, nagusiki amaturra eta lotura sozialaren bektore nagusia dena, eta bestetik, “erakustera eman” eskaintza baten azaleratzea, amatur nahiz profesionalek bideratua. Kontrajarriak ez, baina elkar eragiten dute bi joera hauek, gure lurraldeko bizi kulturala are interesgarriagoa bilakatuz. Alabaina, praktiken eta sorkuntzen pobretze eta estandarizazio bat gertatzen ari dela ohar gaitezke, euskal kulturaren eta historiaren ezagutza eskasari, eta euskararen gainbeherari lotua.

Hedapenari dagokionez, euskal kultura sare desberdinetan hedatua dela ikus dezakegu. Elkarteen sarea euskal kulturaren hedapen sistema da betidanik, baina azken urteetan, euskal kultura sare dedikatu batzuetan sartzen da, eta horren bidez publiko zabalagoa hunkitzen du. Euskal Herritik kanpo, euskal kulturaren hedapenak ahul izaten segitzen du.

Aldi berean, transmisio sistemak aldatzen diren honetan, euskal kulturaren adar oso batzuk transmisio egituraturik gabe daudela ohartu behar. Eskaintza badelarik, transmisio prozesuan zentzu galtze bat ikus daiteke, transmisioak euskal kulturaren historiaren eta funtzio sozialarekin lotura guttiegi duelarik. Zentzu galtze horrek, gainera, ikasleen desmotibazioa eragin dezake. Badirudi ere, euskarak zailtasunak dituela transmisio eskaintza horretan bere lekua aurkitzeko.


Azkenik, eta euskal kulturaren memoria atxikitzeari dagokionez, programa batzuk beren fruituak ematen hasiak dira. Ordea, euskal kulturak biltzen dituen arlo artistiko eta kultural guziei buruzko ondare fondoan gerizatze eta baloratzeko programa orokor eta egituratu bat eskas dugu.

Horiek horrela, euskal kulturak duen kapital amankomuna salbatu eta sustatzeko, lau norabide estrategiko eta hiru norabide osagarritan biltzen dira gomendio guztiak:

1. norabidea: praktika eta sorkuntza dinamikak lagundu
2. norabidea: publiko guziengana hedatu eta sustatu
3. norabidea: belaunaldi gazteei transmititu
4. norabidea: memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu

Aldi berean, hauek ere komeni dira:

5. norabidea: euskararen eta euskal kulturaren arteko lotura bermatu, bereziki transmisioan
6. norabidea: mugaz gaindiko harremanetan osagarritasunak xerkatu
7. norabidea: behaketa funtzio bat antolatu



Euskal kultura lagundu, sustatu, transmititu eta zaindu, zazpi norabideren obratzearen bidez

1. norabidea

> PRAKTIKA ETA SORKUNTZA DINAMIKAK LAGUNDU

> IKUSKIZUN BIZIDUNA

Bertsolaritza, dantza, kantua, musika, antzerkia eta ekitaldi erritualen kasuan, diagnostikoak praktiken tipologia hauek azaleratu ditu:

- **Praktika pertsonala:** Praktika mota hau eremu publikoan agertzen da, besten edo asteroko hitz ordu batzuen kariatara (adibidez Baionan Kantuz, edo mutxikoak). Pertsona bat kantatzera, dantzatzera edo bertsoak botatzera hurbiltzen da, bera edo talde batean, eta leku bateko animazioan parte hartzen du, norberaren eta taldearen arteko loturak sortuz.
- **Praktika herrikoia:** Praktika horretan sartzen dira bertso bazkariak, bertso poteoak, bestetako musika animazioak, ekitaldi erritual guztiak eta herrietako antzerkiak. Herri mailakoa da, eta hiriguneetan elkarre mailakoa. Eremu publikoan gauzatzen da, modu gutti gora behera formal batean. Zale trebatu batzuen ekimenean oinarritzen dira eta maiz jende orori idekiak dira. Adibidez, ekitaldi erritualetan herriko dantza taldea eta musikariak biltzen dira, baina herriko biztanleak ere hurbiltzen zaizkie, beste biztanleen aitzinean hartzeko, norberaren gaitasunak erakutsiz. Praktika herrikoi hauek giza kohesiorako bektore azkarrak dira eta euskal kulturaren funtzio soziala bizirik atxikitzen dute. Arte diziplina askorentzat (dantza, musika, bertsoak, etab.) arte horren harrobia dira.
- **Amatur trebatuen praktika/sorkuntza:** Praktika horretan sartzen ditugu bertso lehiaketak, dantza ikuskizunak, antzerki herrikoia, kantaldiak, etab. Arlo horretan, gehienetan trebatuak diren pertsonak talde bat osatzen dute, lurraldeko leku guzietatik etortzen dira eta exigentzia maila bat lortzeko, arte diziplina biziarazteko eta asmatzeko xedearekin. Haien ekintzan “militantzia kulturala” badago: eskaintza artistiko berri bat plazaratuz, euskal kultura bizirik atxikitzeko helburua dute. Jendeak bere burua horrekin identifikatzeko “eredu” bat osatzen dute. Praktika herrikoia eta pertsonalak sorkuntza horietan elikatzen dira, eta honela tradizioa biziberritzen dute.
- **Profesionalen praktika/sorkuntza:** Euskal kulturaren berriki agertu da praktika profesionala eta garatzeko joera batean da. Euskal kulturaren soilik ari den artista talde profesional guti bada: antzerkian talde gehienek frantsesez egiten dute eta noiz behinka euskarazko egitasmoak aurkezten dituzte, eta dantzari dagokionez, tarteka euskal estetikatik elikatzen diren dantza garaikideko taldeak dira. Badira ere musika talde edo bertsolari batzuk beren arteaz bizi daitezkeenak. Aipagarria da talde hauek nagusiki mugaz bi aldeetan ibiltzen direla, bereziki hizkuntzaren dimentsioak beren jardueran leku zentrala duelarik.

Lau praktika mota hauen artean zubi ugari bada. Maiz, amatur zaletuen praktikek eta praktika herrikoiek “aditu” edo profesional batzuen laguntza jasotzen dute. Gainera, amatur trebatuek

eta profesionalek usu praktika herrikoi edo pertsonaletik berenganatu dute euskal kulturarekiko atxikimendua. Azkenik, elite horren sorkuntzak praktika herrikoiak bere egiten ditu, eta honela euskal kulturaren erreperitorioak berritzen dira.

Praktika hauek begiratzuz, kultura egiteko bi modu nahasten direla ikus dezakegu. Lehenak “erakusteko” eskaintza bat garatzen du (profesionalen eta amatur trebatuen praktikak), eta bigarrenak denen artean eginiko praktika parte hartzailea (praktika herrikoiak eta pertsonalak) garatzen du, kohesio sozialeko bektorea dena. Kontrajarriak ez baina, kultura egiteko bi manera hauek bata bestetik elikatzen dira, honela lurraldearen bizi kulturala aberatsago eta interesgarriago bilakatuz.

Alabaina, diagnostikoak orain aipatu praktika eta sorkuntza dinamikak kolokan eman ditzaketen zenbait ahulezia erakutsi ditu. Izan ere, praktika eta sorkuntzen pobretze eta estandarizazio bat gertatzen ari da, euskal kulturaren eta bere historiaren ezagutza galtzen ari delako batetik eta kultur erreferentzien globalizazioarengatik bestetik. Ezagutza hauek galtzen dira transmisioa aldatzen delako eta ondare baliabideak zaindu eta baloratzeko gabeziak badirelako.

Gainera, euskal hiltunen eskasiak trabak ezartzen dizkie praktikaren eta sorkuntzaren garapenei, ezen euskara menperatzea ezinbestekoa baita hizkuntz dimentsio zentrala duten praktika artistiko eta kulturaletan (bertsolaritza, antzerkia, kantua, literatura, ipuinak, ekitaldi erritualak). Profesional eta amatur trebatuen praktikentzat mugaz beste aldera jende bila joatea aterabide bat izan daiteke, baina praktika pertsonal eta herrikoiak mantentzeko euskal hiltunen harrobi aski dentsua behar da; hurbileko jendea, lurraldekoa.

> KULTURA ETA SORKUNTZA INDUSTRIAK

Kultura eta sorkuntza industrien definizioa bakoitzak bertan sartu nahi duenaren arabera da. Txosten honetan hauek sartzen ditugu: liburuaren ekonomia, musika industria, zinema eta ikus entzunezkoa, arte plastikoak, argazkilaritza. Arlo guzi hauek sorkuntza artistikoaren eta industriaren eremuen artean kokatzen dira, eta maiz kultur hedapenaren bektore indartsuak dira. Iragan hamarkadetan, Ipar Euskal Herrian kultura eta sorkuntza industriaren egituraketa bat egiten hasi zen. Diagnostiko ezean zaila da analisia zehatz bat egitea. Halere joera hauek eman ditzakegu:

- Liburuaren ekonomiari dagokionez, liburuaren katea osatua da. Baditugu argitaletxeak, liburutegiak eta hedatzaile-banatzaile bat. Ohar gaitezke autoreak zahartzen ari direla eta irakurleago murrizta dela, nahiz eta Ipar Euskal Herriko eskaintza Hego Euskal Herrikoarekin osatu daitekeen. Euskal liburuaren katearen bi muturrak (autoreak, irakurleak) ahulduak izanik, euskal liburuaren ekonomia errentagarritasun faltan da eta ondorioz oso hauskorra da.
- Musikaren industriak baditu label batzuk eta bestelako azpiegitura batzuk ere. Badirudi diskoaren ekonomiaren krisia pairatzen duela.
- Hego Euskal Herrian tradizio luzeagokoa badira, Ipar Euskal Herrian zinema eta ikus entzunezko ekoizpenak abiatu berriak dira. Luzemetraia bat eta dokumental batzuk, bi ekoizle eta hedapen dispositibo bat zerrendatu ditzakegu.
- Badirudi, lurraldean badela argazkilaritza eta arte plastikoetan sortzaile harrobi bat.

Kultura industria sortzaile horiek desmartxa militante batean sortuak izan dira. Hortaz, profesionalizatze bidean badira ere, bolondresgoak oraindik garrantzia handia du. Horrek erakusten du kultur industrietan ere, euskal kulturaren dimentsio parte hartzailea atxikitze nahia badela, baina industria horrek garatzeko eta errentagarritasuna lortzeko dituen zailtasunen aurrean atxeman den aterabidea dadela ere. Izan ere, diagnostikoaren ikerketak erakusten du Ipar Euskal Herrian euskarazko kultura eta sorkuntza industria baten sendotzeko eta garatzeko oztopoak badirela:

- Balizko publikoa eta sortzaileen harrobia murrizak dira, populazio arrotxia baita eta euskararen gainbeherarengatik.
- Hego Euskal Herriko ekoizpenek Ipar Euskal Herrikoa osa dezakete (musika industria, zinema, liburua, etab.), eta halaber, Iparraldeko ekoizpenek aterabideak aurki litzakete Hego Euskal Herrian. Baina sareak ez dira aski egituratuak.
- Arlo honek aldaketa anitz jasaten ditu, numerikoaren eta birtualaren bilakaerarengatik (diskoaren krisialdia, liburu dendak, euskarri anitzeko komunikabideak, etab.), eta ondorioz aldaketa hauei egokitzeko izanen duen gaitasunak du bere etorkizuna baldintzatuko.
- Azkenik, badirudi arlo honek erakunde publikoengandik aitortza eskasa pairatzen duela, bereziki arte plastiko eta argazkilaritzan.

> > KULTURA ETA SORKUNTZA INDUSTRIAN, ETA IKUSKIZUN BIZIDUNAREN ALDE INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

Ikuskizun biziduna

- Frantses Estatuak, Departamenduak eta Eskualdeak arte eta kultura egitasmoak lagundu ditzakete, baldin eta talde profesionalek eramanak badira. EKE-ren esku utzi dute amatur egitasmoen sostengua.
- EKE-k amatur eta profesionalek daramatzaten sorkuntza proiektuak diruztatzen ditu. Talde profesionalen aldeko diruztatze bikoitzak (Departamendua/EKE) sorkuntza eta hedapena dinamizatzea ahalbidetzen du, bereziki euskaraz delarik. Eskualdearen parte hartze batek laguntza publiko horiek osa ditzake.
- Departamenduak amaturren proiektu puntualak laguntzeko dispositiboa dauka (“Kultur ekimenen aldeko departamenduko funtsa” eta “Ekitaldi tradizionalak”). Oso gutti erabiliak diren dispositibo hauek aurrekontu dedikatu mugatuak dituzte.
- EKE-k euskarazko ikuskizun bizidunaren aldeko dispositibo dedikatuak ditu (amatur sorkuntzaren aldeko deialdia, gazteentzako sorkuntza formakuntza, etab.).
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

Kultur eta sorkuntza industriak

- Eskualdeak gaurko musikak, argitalpen eta ekoizpen fonografikoa, Web telebistak eta lekuko telebistak, arte plastikoak, argazkilaritza, zinema eta ikus entzunezko ekoizpena eta idazketa sostengatzen ditu.
- Departamenduak zinema ekoizpena, argazkilaritza eta arte plastikoak sostengatzen ditu, baina ohartarazten du arlo hauek gutti ordezkatuak direla departamenduko dispositiboetan eta aurrekontu murrizketa testuinguru honetan laguntzek behera egin dutela (NOTRe legeak dio, Departamenduek ez dute gehiago diru laguntzarik eskaintzeko eskumenik).
- EKE-k diskografia labelei laguntza eskaintzen die, eta publiko eta ikastetxeenganako euskal zinemaren hedapena egituratzen du lurraldean.
- EEP-k liburugintza laguntzen du deialdi baten koadroan.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

Ikuskizun bizidunarentzat

- Praktiken pobretzearen eta estandarizazioaren aurka egiteko, eragileekin (kantari musikari, dantzari, antzerkilari, etab.) hausnarketa bat abiatu, euskal kulturari bereziak zaizkion jakitate, antze eta errepertorioak berreskuratzeko, bereziki zaletuenganako formakuntza, mintzaldi eta abarren bidez.
- Praktika herrikoiak sostengatu euskal kulturaren funtzio soziala garatzeko, eskaera bati erantzunez, eta lurraldeen ekiteko gaitasuna eta bizitasuna mugatu gabe.
- Amatur trebatuen praktiken aldeko laguntzak areagotu, taldeei baliabide egokiak eskainiz (baliabide tekniko eta diruzkoak, zuzendaritza artistikoa, ingeniariartzari laguntza, egonaldi egokiak etab.).
- Eskubide arruntaren osagarriak diren dispositibo bereziak azkartu, euskarazko sorkuntza eta hedapenari bultzada bat emateko.
- Sorkuntza profesionala laguntzen segitu.
- Mugaz gaindiko diru laguntzak lortzea errextu.

Kultur eta sorkuntza industriarentzat

- Kultur eta sorkuntza industrien alorraren ikerketa bat egin, Ipar Euskal Herrian dugun egoera hobeki ikusteko eta sendotzen laguntzeko, bereziki nazioartean alor horrek bizi dituen egiturazko aldaketak kontutan hartuz.
- Mugaz gaindiko sareak egituratu, Ipar Euskal Herriko eskaintza osatzeko eta hegoaldeko merkatua iparraldekora idekitzeko.

2. norabidea

> PUBLIKO GUZIENGANA HEDATU ETA SUSTATU

> HEDAPEN SAREAK

Hedapenari dagokionez, honako hedapen mailak zerrendatu ditzakegu:

- **In situ hedapena**, praktika pertsonalari eta herrikoari buruzkoa. Artelana, bere sorlekuan ematen da eta ez du baitezpada beste leku batean emana izateko xederik. Emanaldia karia horretarako egokitutako gela batean edo eremu publikoan bertan egiten da, kultur eremua eta eguneroko eremuaren arteko mugak ezabatuz.
- **Elkarte sareak**: hor, kultura edo hizkuntza alorretan dabilzan elkarteek, gaztetxeek edo Besta komiteek antolatzen dituzte emanaldiak. Praktika herrikoien eta amatur trebatuen sarea da hau. Antolatzaileek eremu publikoa erabiltzen dute, edo erabilera anitzeko edo bereziko gela bat uzten zaie.
- **Sare dedikatuak**: Sail honetan sartzen dira areto labelizatuak eta bestelako gela berezituak, nola Atabal, ala zinema gelak, liburu denden sarea, erakusketa areto “ofizialak” etab. Dirudienez, euskal kulturaren sorkuntza profesionalak hor kokatzen dira, baina talde hauen kopurua txikia izanik, euskal kulturaren programazioa pobrea da. Halere, azken urteotan, ikus dezakegu amatur trebatuak ere progresiboki sare hauetan agertzen direla. Bestalde, programatzen diren ikuskizunak gehienetan kantu eta dantzakoak dira, euskalduna ez den publikoarentzako eskuragarriagoak baitira. Antzezlanak batzuetan gaintituluekin ematen dira, euskal zinema azpituluekin ematen den bezalaxe.
- **Mugaz gaindiko sareak** euskararen eremu osoa hartzen du. Ipar Euskal Herriko sorkuntzen hedapena sare hauetan ez da sistematikoa eta eragileen ezagutzetan (euskarazko antzerkia) edo elkarte kulturalen arteko loturetan (adibidez: euskal dantza) oinarritzen da. Oro har, EKE-k ekimen batzuk eraman arren, sare hauek ez dira egituratuak. Ondorioz, iparraldeko artistek zailtasunak dituzte hegoaldean sartzeko, eta hegoaldeko artistek programazio gutxi dute iparraldean.
- **Frantzia eta nazioarteko sarea**: Arlo artistiko guzietako eragileek diote zailtasun handiak dituztela Frantziako eta nazioarteko sareetan sartzeko. Hots, lotura, gutti dira euskal kulturaren munduaren eta sare horien artean. Gainera, diziiplina batzuetan euskara bera oztopoa izan daiteke.
- **Azokak eta jaialdiak**: urtero euskal kulturaren arloei buruzko azoka edo festibalak antolatzen dira: Sarako liburuaren Azoka, Zinegin euskal zinemaren jardunaldiak, EHZ festibala, Usopop, Xiru etab. Euskal kultur sorkuntza agerian ezartzen dute, sorkuntza hau lekuko ekitaldi orokorra goetan, Frantzian eta nazioartean ez baita hain sartua.

Elkarteen sarea da euskal kulturaren hedapen sistema naturala. Euskara eta euskal kulturaren alde diharduten elkarteen, besta komiteen eta abarren inguruan antolatua izanik, sare horrek zaletuak biltzen ditu kopuru aipagarrietan. Gorago aipatu ditugun festibalak kultur

militantziaren urraspide horretatik sortu dira. Azken urteotan, ikus dezakegu euskal kultura sare dedikatu batzuetara sartzen dela, eta horri esker publiko orokorragoa hunkitzen duela. Alabaina, sare hauek nagusiki talde profesionalekin lan egiten baitute, euskal kulturaren eskaintza oso urria da. Hego Euskal Herriko amatur trebatuen taldeak eta talde profesionalak ekartzea aterabide bat izan daiteke.

> PUBLIKO ANITZENGANAKO EUSKAL KULTURAREN SUSTAPENA

Euskal kultura sustatzea, alde batetik, ikuskizun baten eta liburu berri baten inguruko informazioa balizko publikoarengana helaraztea da. Beste batetik, arte diziplina bat ezagutaraztea izan daiteke, bere irudia sustatzea, lurraldeko irudimen kolektiboan txertatzea. Horretarako lurraldean komunikabide eskaintza zabal bezain aberatsa dugu, euskaraz eta frantsesez: telebista, Web telebistak, prentsa, irratiak, Web irratiak.

Ikuskizun bati buruzko komunikazioa, film baten irteera etab., ahoz ahotik pasatzen bada ere, komunikabideek ongi zabaltzen dute. Arte diziplina gehienentzat publikoak deiari ihardesten dio.

Komunikazio puntual horretaz gain, arte diziplina batzuek modu iraunkorragoan lortzen dute oihartzunik zabaltzen: gaur egun irratiak dira euskal musika eta kantuen hedatzaile nagusiak, bertsolaritzak asteroko emankizunak baditu eta txapelketak zuzenean ematen dira irrati eta telebistan. Diziplina hauek leku zentrala dute euskal kulturaren irudimen kolektiboan.

Beste arlo batzuek ordea ez dute publiko zabalarenganako halako oihartzunik: euskal literatura eta zinema oro har aski ezezagunak dira, baita euskal antzerkia eta kontalaritza ere. Azkenik, badirudi euskaldunak ez diren biztanleen gehiengoak ez dituela ezagutzen ere euskara muinean duten diziplina zenbait: bertsolaritza, ekitaldi erritualak, etab.

Euskara leku zentrolean duten arte diziplinak eskuraezinak dira lurraldeko erdaldunentzat, baita Frantziako eta nazioarteko publikoentzat ere. Horrek oztopoak jar diezazkioke euskal kulturari sare dedikatueta hedatua izateko, bai lekuan, baita Frantzian eta nazioartean ere. Diziplinen arabera aterabide desberdinak atxemanak izan dira orain arte: literaturarentzat itzulpenak edo argitalpen elebidunak, antzerkian gaintituluak eta zineman azpigituluak. Artista batzuek horrelako esperientziak bideratu nahi dituzte eta horretarako erakunde publikoen laguntza eskatzen; beste batzuek, lana lekuan eman behar denean ez dute itzulpenik edo gaintitulurik nahi.

> > EUSKAL KULTURA SUSTATU ETA HEDATZEKO INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

- Kulturaren Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritzak (Kgez) kulturaren adierazpenak sostengatzen ditu, sorkuntzatik hedapenera, arlo guzietan, izan ondarea, kultur industria ala sorkuntza. Euskal kulturari dagokionez, gainera bere laguntza ekartzen dio EKE-ri honek arlo horretan jardun dezan. Frantziak kultura hau bere egiten du eta Frantzia nahiz nazioarteko zerrendetan izendatua izan dadin zaintzen du (BnF, UNESCO)
- Eskualdeak ikuskizun bizidunaren, arte garaikidearen, zinemaren eta ikus entzunezkoaren alorretan hedapen egiturak eta festibalak laguntzen ditu. Gainera literatura ekitaldiak ere sostengatzen ditu.
- Departamenduak ikuskizun biziaren, arte plastikoen eta zinemaren inguruko hedapen egiturak laguntzen ditu. Bere eskumenetan dira ere irakurketa publikoa, artxiboak, ondarea, arte eta kultur hezkuntza eta irakaskuntza artistikoa.
- EKE-k hedatzaileak laguntzen ditu euskal kultura sare dedikatueta sartzen; Ibilki eta Gabarra Films plataformak sortuz, antzerkia eta euskal zinemaren hedapena sustatzen ditu. Festibalak diruztatzen ditu, baita bertsolaritzaren sustapena eta hedapena, dantza eta kantu elkarteek antolatzen dituzten ekitaldiak, literatura azokak, baita arte plastiko eta argazki erakusketak ere. Ikuskizun biziduna mugaz gaindi EAE-n loturiko hainbat lankidetzarekin.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

>> GOMENDIOAK

- Elkarteen hedapen sarearen iraunkortasuna bermatu, euskal kulturaren hedapen “naturalaren” sistemaosatzen baitu
- Publiko berriak hunkitzeko, euskal kultura lurraldeko sare dedikatuetan hobeki integratua izatera bultzatu.
- Mugaz gaindiko sarea egituratu, Ipar Euskal Herriko sorkuntzen hedapen eremua zabaltzeko, eta aldi berean lekuko eskaintza osatu, Hego Euskal Herriko ekoizpenak ekarriz.
- Frantzia eta nazioarte mailako lankidetzak egituratu, euskal kultura sortu eta hedatzeko.
- Lekuko azoka eta jaialdiak lagundu, euskal kulturarekin lotuak diren sorkuntzak programatzen dituztenean.
- Nahi duten artistentzat, itzulpenerako, gain eta azpigituluetarako laguntza eskaini, sare dedikatuetan eta Frantzia nahiz nazioarteko sareetan hedatzen laguntzeko.
- Lekuko komunikabideekin partaidetzak lotu, bereziki gutxien ezagunak diren arte diziplinen sustapena bultzatzeko.
- Euskal kulturaren sustapena bultzatu, komunikabide erdaldunetan, publiko erdaldunengana jotzeko.
- Kultura aitortzaren estrategia numeriko bat eraiki (Wikimédia).

3. norabidea

> BELAUNALDI GAZTEEI TRANSMITITU

Diagnostikoak agerian ezarri du murgilketa bidezko transmisioak progresiboki eskola eta Eskolaldi Inguruko Jarduera Berrien inguruan antolaturiko transmisio egituratu bati leku egin diola. Honela, hamarkadetan arte jakinduria praktikatzean transmititzen zen, familia esparruan edo herriko eremuan, baina gaur egun eskolako irakaskuntza, Arte eta Kultura Heziketa, Eskolaldi Inguruko Jarduera Berriak eta irakaskuntza artistikoa dira gaur egun euskal kultura belaunaldi gazteei transmititzeko bide nagusiak. AKH-k eta EIJB-ek (Eskolaldi Inguruko Jarduera Berriak) arte diziplina baterako sarbidea eskainiko dute, sakontzeko gogoia emanez, edo biharko ikuslegoa formatuz, eta irakaskuntza artistikoak praktikara formatzen du, zaletu eta sortzaileen harrobia elikatuz.

> ARTE ETA KULTURA HEZIKETA, ETA ESKOLALDI INGURUKO JARDUERA BERRIAK

Arte eta Kultura Heziketari (AKH) eta Eskolaldi Inguruko Jarduera Berrien (EIJB) kasuan, diru publikoa mobiliza daiteke eta badirudi irakasleen aldetik eskaera badela, baina arlo batzuetan, kanpoko parte hartzaileen eskaintza ez da nahikoa izaten. Hainbat kasu identifikatu dira:

- Kantua, kontalaritza, musika, antzerkia eta literaturaren kasuetan galdezkatu ditugun artistek diote saioak laburregiak direla, gaizki ordaindua dela, eta pedagogian kalifikazio eskasia aipatu dute.
- Lurralde oholtza labeldunetan ikasleek ikusi dituzten ikuskizunen aitzin eta ondoko saioak eskaintzen dira. Baina, programazioa talde profesionaletan oinarritzen denez, euskal kulturari buruzko ikuskizun gutti ematen da. Ondorioz, euskal kulturaz dituzten arte hezkuntzazko eskaintzak oso mugatuak dira.
- Dantza eta bertsolaritzari dagokienez, Bertsolarien Lagunek eta IDB-k AKH eskaintza bat egituratu dute. Baina, eskaerei erantzuteko zailtasunak dituzte, giza baliabide eskasengatik.

> IRAKASKUNTZA ARTISTIKOA

Irakaskuntza artistikoari dagokionez, itxuraz antzerki, kantu tradizional, kontalaritza eta literatura arloetan eskaintza biziki gutti egituratua edo batere ez dela erran daiteke. Musika tradizionalen kasuan, lurraldeen arabera biziki egoera desberdinak ikusten dira. Aldiz, bertsolaritza eta dantzari dagokienez, ongi egituratua da eta lurralde osora ongi zabalduta da. Alabaina, bertsolaritzaren kasuan, badirudi bertso eskolen sarearen garapena giza baliabide eskasengatik trabatuta dela.

Dantza eta musikaren kasuan, galdezkatuak izan diren pertsonak diote ikasketa prozesuan jendeak uzten duela, eta musika tradizionalaren kasuan bereziki ikasketen eta praktika herrikoia arteko haustura bat ageri da. Ematen duten arrazoiak bat da, ikasketak gehiegi teknikan zentratzen direla, euskal kulturarekiko, bere historia eta funtsezkoa duen funtzio sozialarekiko loturarik gabe. Horrek ikasketa prozesuan zentzu galera bat eragiten du.

Gainera, irakaskuntza artistikoa hori nagusiki frantsesez egiten da. Alta, kurtsoak euskaraz egiteko eskaera azkarra da gurasoen aldetik, bereziki musikaren irakaskuntzan. Nahiz eta batzuek eskaera horri ihardesten dioten, beste askok irakasle euskaldunen gabeziarekin eta antolaketa modu egokiak aurkitzeko zailtasunekin talka egiten dute.

> EUSKARRI FUNTZIOAK

Azkenik, euskarri funtzioei dagokienez, formatzaileen formakuntzan gabeziak ageri dira, arlo guzietan, eta badirudi euskarri pedagogikorik ia ez dela. Irakasleak euskal kulturaren oinarrietara formatzea ere azpimarratua izan da, bereziki literatura eta kantuaren kasuetan.

> > AKH ETA EIJB, ETA IRAKASKUNTZA ARTISTIKOARI BURUZ INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

AKH/EIJB

- Kgez-ek AKH programak laguntzen ditu, eskola maila guzietan, baldin eta parte hartzaile kultural eta artistikoekin, eta jabetze urraspide batean egiten badira. Kolektibitateekin hitzarmenak lotu nahi ditu (herriak, herri elkargoak, departamenduak) lurraldeka eskaintza aberats eta koherente bat emateko. Kgez-a goi mailako arte ikasketen ko-arduraduna da eta kontserbatorioen funtzionamenduan parte hartzen du.
- Eskualdeak ikastetxe publikoetako lizeoko ikasle eta lanbide heziketako ikasleei zuzendutako AKH proiektuak sostengatzen ditu.
- Departamenduak, kolegio pribatu eta publikoetako ikasleei zuzendutako AKH proiektuak laguntzen ditu, eta Hezkuntza Nazionalarekin kultur eragileen labelizazio dispositibo bat ezarri du, lehen eta bigarren mailan ari diren kanpoko parte hartzaileentzat.
- EEP-k hiru sareetako euskarazko AKH proiektuak laguntzen ditu, lehen eta bigarren mailan.
- EKE, Departamenduko labelizazio dispositiboarekin loturan, euskal kulturaren kanpoko parte hartzaileen bilaketa lanetan ari da. Dantzaren inguruko ibilbideak egituratzen saiatu da ere. Uda Leku-rekin, EIJB-etako animatzaileentzat formakuntza bat sortu du eta ikastetxeen arteko proiektuak diruz laguntzen ditu.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

Irakaskuntza artistikoa

- Departamenduak irakaskuntza artistikoaren eskumena du (2004tik beharrezkoa duen eskumena, irakaskuntza artistiko egituren sarea animatzeko).
- EEP-k bertso eskolen garapena eta musika eskoletan euskarazko eskaintza baten garapena diruz laguntzen ditu.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kultura eskumena hartu du.

>> GOMENDIOAK

- Euskal kulturaren arloetan, AKH-ko kanpoko parte hartzaileen eskaintza bat egituratu.
- Euskal kulturaren arlo bakoitzean irakaskuntza artistikoa eskaintza bat egituratu, lurralde osoan, eta irakaskuntzari “zentzua emateari” kasu eginez:
 - ✓ irakaspenetan euskal kulturari buruzko ezagutza orokorrak sartuz;
 - ✓ praktika herrikoiekin loturak eginez, ikasleek hauetan parte hartzeko gogoia izan dezaten;
 - ✓ euskarazko irakaskuntza artistikoaren eskaintza bat antolatuz.
- AKH eta EIJB-etako animatzaile, irakaskuntza artistiko irakasle eta eskoletako irakasleentzat formakuntza saioak antolatu.
- Irakaskuntza artistikoan diharduten formatzaileak euskarara formatu.
- Behar den material pedagogikoa ekoiztu.
- Euskal kulturaren transmisio modu berriei buruzko hausnarketa orokor bat bideratu, artistak eta transmisioaren eragileak elkartuz, eta hemen zehaztu diren gomendioak lantzeko xedearekin.

4. norabidea

> **MEMORIA ZAINDU ETA ONDARE FONDOAK BALORIZATU**

Ondare ekintzari esker, arte eta kultura desberdinetako jakintza eta jakitateak bildu, landu eta hedatzen dira. Honela kontserbaturik eta balorizaturik, memoria hori sortzeko eta asmatzeko oinarri edo abiapuntu izan daiteke.

Diagnostikoak erakutsi du fondoak erakunde publiko eta funts pribatuen artean barreiatuak direla (Baionako Euskal Museoa, EKE, euskal Irratiak etab.). Bilketa eta balorazio alorretan badira ekimen puntualak (“SOKA” erakusketa) eta zeharkako proiektuak (Eleketa programa). BILKETA dokumentazio fondoendako tresna bereziak euskal kulturari buruzko ikerketa proiektu andana eraman du. Bestalde, EKE-k “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloo” labela lortu eta 2017an hasiz, ahozko inkestak, ondare eta sorkuntzaren arteko loturei buruzko gogoeta egiten segituko du, baita hizkuntz aniztasunak lantzen eta euskal kulturaren ataria sortzen ere.

Elementu hauek agerian ezartzen dute ekimenak ekimen, biziki gutti direla. Ondorioz euskal kulturaren arlo gehienek ez dute bilketa programa iraunkor eta antolaturik, ezta ere memoria landu eta baloratzeko. Horregatik, batzuetan Hego Euskal Herriko tresnek eta programek dituzte hutsuneak betetzen (Xenpelar, Soinuenea eta Eresbil).

Alta, ondare baliabide baten osaketa eta bere eskuragarritasuna erronka nagusia dira euskal kulturarentzat, ezen historiaren ezagutza faltarengatik, ikaste prozesuetan zentzu galera bat, eta praktiken eta sorkuntzen estandarizazio bat ikusten baitira.

Ezinbestekoa dirudi beraz, euskal kulturaren arlo bakoitzaren fondoen biltzea, tratamendu eta balorapen programak garatzea, “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloo” proiektuaren inguruan.

>> ONDARE FONDOEN BILKETA ETA BALORAPENARI BURUZ INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

- Kgez-ek Baionako Euskal Museoaren funtzionamendua diruztatzen du, eta “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa” labela ematen du. Eleketa eta Euskal Herriko soinu eta ikus entzunezko fondoen geriza programa sostengatzen ditu.
- Departamenduak artxiboen kontserbazio eta balorapenaren eskumena du. Baionako Euskal Museoaren funtzionamendua eta Eleketa (bilketa eta tratamendua) programa finantzatzen ditu. Euskal Herriko soinu eta ikus entzunezko fondoen zaintza eta balorapen programa gidatzen du, eta tratamendua EKE-ren esku utzi du.
- Eskualdeak “Aquitaine Culture Connectée” Estatua eta Eskualdearen arteko programan dirua sartzen du. Programa horrekin, partaide-kideen ondare fondoen numerizazio eta balorapen ekimenak diruztatzen dira besteak beste.
- EKE-k “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa” proiektua darama EHESS-arekin. Ondarearen bilketa eta balorapen proiektuak laguntzen ditu, hala nola Departamenduak eskura utzi dizkion bi programak.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

>> GOMENDIOAK

- “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ren baitan, EKE-k jadanik abiatua duen ahozko ondarearen bilketa, tratamendu eta balorapen lanak segitu.
- “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ren eta sor litezkeen beste baliabide poloen koadroan, ahozko, dokumentazio eta ikonografiako memoriaren bilketa eta tratamendu zentzuzkoa segurtatu, euskal kulturaren arlo bakoitzarentzat.
- Funts guzi horiek eskuragarri bilakatu, “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-n aurreikusia den euskal kulturaren atarian, edo jadanik indarrean den EKE-ren Mintzoak.eus plataforman.
- Funts horien balorapenerako estrategia iraunkor bat ezarri, bereziki sorkuntzan eta transmisioan diharduten eragileei begira.
- Hego Euskal Herrian existitzen diren programa eta tresnekiko osagarritasunak eta loturak bilatu.
- “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ren baitan, ondarea/sorkuntza loturari buruzko hausnarketa segitu.

5. norabidea

> EUSKARA ETA EUSKAL KULTURAREN ARTEKO LOTURA BERMATU, BEREZIKI TRANSMISIOARI DAGOKIONEZ

Euskararen gaia euskal kulturaren arlo guzietan agertzen da, baita orain arte aurkeztu diren norabide guztietan ere.

Izan ere, euskal kulturaren memoria nagusiki ahozko ondarean bildua baita, horretara hurbiltzeko euskara menperatzea ezinbesteko baldintza da. Praktika eta sorkuntzaren kasuetan, euskara menperatzea ezinbestekoa da euskara muinean duten arte diziplinak praktikatu edo ikusteko: bertsolaritza, antzerkia, kantua, literatura, kontalaritza, ekitaldi erritualak, zinema. Kultur industriak, errentagarri eta sendo izateko, merkatu euskaldun aski dentsoa behar da. Orokorkiago, euskara ongi menperatzen dutenek euskal kultura bere osotasunean har dezakete, bere konplexutasun osoarekin. Horrek zaletuak eta ikuslegoa pizten ditu eta ondorioz sortzaileei gauza berriak asmatzeko gogoia ematen die. Beste modu batera errateko, euskal kulturaren etorkizuna euskaldun kopuru aski haundietan indar hartzeko gaitasunarekin baldintzatua da.

Alabaina, diagnostikoak dio euskarak zailtasunak dituela kultur transmisioan bere lekua atxemateko. AKH eta EIJB-tan animatzaileek diote zailtasunak dituztela tailerrak euskaraz egiteko, ikasleen euskara mailak biziki desberdinak direla eta. Eta irakaskuntza artistikoa egituratua delarik, nagusiki frantsesez egiten da, irakasle euskaldunak falta direlako eta antolaketa egokiak atxemateko zailtasunak ere badirelako. Izan ere, irakaskuntza artistikoako taldeetan maiz haur elebidunak eta erdaldunak nahasten dira. Gainera, gerta daiteke euskaldunak guttiegi izatea talde bat osatzeko. Alabaina, badirudi gurasoen aldetik eskaera badela.

Elementu hauek euskarak bere lurraldean bizi duen gainbeherari lotuak dira. 2011an argitaratu zen azken inkesta soziolinguistikokoaren arabera, populazioaren %22 da euskalduna. Baina, 15 urtez euskaldunen kopurua %5ez apaldu da, haietako %55ek 50 urte baino gehiago dutelako eta kanpotiarrak etengabe heltzen ari direlako.

Halere, belaunaldi gazteetan euskarak gora egiten du: %14 25-34 urtekoetan eta %18 16-24 urtekoetan. Berpizte hori eskolan egiten da. Gaur egun lehen mailako ikasleen %39a murgiltze eremuan edo elebidunean da. Proportzio hau Zuberoan, Baxe Nafarroan eta erdigunean %50ekoa da. Zenbaki absolutuetan, erdigune horretan da “euskaldungaien” harrobi handiena.

Elementu hauek kontutan izanik, eta euskal kulturaren etorkizuna hertsiki euskararenari lotua dela jakitun, hizkuntza politikarekin estrategia partekatuak eraikitzea ezinbestekoa dirudi, bereziki kultur transmisioaren alorrean.

> > HIZKUNTZA POLITIKARI BURUZ INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

- EEP-k, eramaten duen hizkuntza politika partekatuaren baitan, AKH eta irakaskuntza artistikoan esku hartzen du (*ikus "Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu" 4. norabidea*).
- EKE-k ekintza batzuk eramaten ditu euskarazko eskaintza garatzeko, bereziki EIJB-etan (*ikus "Memoria zaindu eta ondare fondoak balorizatu" 4. norabidea*).
- Frantses Estatuak, Eskualdeak eta Departamenduak ere eskumenak dituzte kultura eta hizkuntza politikaren alorretan.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

> > GOMENDIOAK

- Ikasleen kopuruak eta euskarazko irakaskuntza kontutan hartuko dituen irakaskuntza artistikoa eskaintzaren lurraldeko garapen eskema bat ezarri.
- Irakaskuntza artistikoaren egiturak antolaketa egokiak atxematen lagundu behar dira, euskarazko eskaintza bat proposatzeko.
- AKH eta EIJB-etako animatzaile eta irakaskuntza artistikoako irakasleei pedagogiazko formakuntzak proposatu, beren ekarpenak ikasleen hizkuntza gaitasunari egokitu ahal izateko.
- AKH eta EIJB-etako animatzaile eta irakaskuntza artistikoako irakasleak euskarazko formakuntzak segitzera bultzatu.
- AKH-ko ekintzen kalitate artistikoa bermatu.

6. norabidea

> MUGAZ GAINDIKO HARREMANETAN OSAGARRITASUNAK XERKATU

Mugaz gaindiko eremua euskararen eremu bera da: Euskal Autonomi Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Euskal Hirigune Elkargoa. Lurralde horretan garatu da euskal kultura, euskararekin loturan. Mugaz bi aldeetako sorkuntzek, etengabeko elkarriketa batean, euskal kulturaren historia elikatu dute, bere haustura eta jarraikortasunekin. Euskal kultura ulertzeko mugarik gabe begiratu behar da.

Horregatik mugaz gaindiko ikuspegia lehenago aurkeztu diren norabide guzietan sartua da. Belaunaldi gazteei transmititzeari eta ondareari dagokienez, Euskal Hirigune Elkargoan baliabiderik ez izateak, euskal kulturaren eragileak hegoaldeko ekipamendu eta baliabideetara eramaten ditu. Sorkuntzaren kasuan, obra batzuek alde bietako parte hartzaileak biltzen dituzte. Eta hedapenari loturiko problematikei dagokienez, ikusi ahal izan dugu Hego Euskal Herriko ekoizpenek Ipar Euskal Herriko eskaintza osa dezaketela. Halaber, Nafarroa eta EAEko lurraldeak iparraldeko ekoizpenentzako hedapen eremuak izan daitezke, ikusgarritasun ekonomiko hobia eskainiz.

> > MUGAZ GAINDIKO POLITIKARI BURUZ INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

- EKE-k jadanik partaidetza bat lotua du Jaurlaritzarekin. Gainera, EKE-k urte anitz darama Etxepare Institutoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, Getxo eta Gernikarekin lanean, baita zabalkunde haundiko jardunaldiekin, hala nola Durangoko Azoka.
- Eskualdea “Akitania/Euskadi” Lurralde Lankidetzarako Europa Taldeko (LLET) kide sortzailea da. Taldea berriki Akitania Berrira eta Nafarroara ideki da. LLET horrek urtero proiektu deialdi baterako funtsak ditu, mugaz bi aldeetan euskarazko kultur eragileek bideratutako proiektuentzat.
- Departamenduak, Nafarroako Gobernuarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin dituen hitzarmenei esker, lankidetzarako hainbat tresna garatzen ditu, bereziki gazteen mugikortasunaren alde (uda lekuak, *Muevete* dispositiboak, etab.). Bestalde, arlo desberdinetan sortzen diren lurraldeko ekimenak laguntzen ditu mikro proiektuen deialdi baten bidez.
- Aipatu behar da ere Pirinioz Gaiandiko Konferentzia Atlantikoa, frantses Estatua, Departamendua, Eskualdea, Nafarroa, Gipuzkoa eta Jaurlaritza biltzen dituen. Lantzen ari den gaien artean sartzen dira euskara eta euskal kultura.
- Euskal Hirigune Elkargoak mugaz gaindiko harremanen eskumena hartu du.

>> GOMENDIOAK

- Hego Euskal Herriko dispositibo eta ekipamenduekin lotu daitezkeen osagarritasunak eta loturak bilatu.
- Mugaz gaindiko sareak egituratu eta garatu, ipar Euskal Herriko hedapen eremua zabaltzeko, eta aldi berean Hego Euskal Herriko ekoizpenekin lekuko eskaintza osatu.

7. norabidea

> BEHATOKI FUNTZIO BAT EZARRI

Diagnostikoak agerian ezarri du transmisioa, praktika, hedapena eta abarri buruzko datu zehatzak eskas direla. Eragileen aniztasunak irakurgarritasun gehiago eskatzen du.

Elementu hauek argi erraten dute premia badela kultur politikan “euskal kultura” adierazleak ezarriko dituen behatoki funtzio bat sortzeko. Funtzio horren helburuak lirateke, alde batetik, euskal kulturaren aldeko estrategia egitasmo orokor bat zehazteko eta egokitzeko lanak elikatzea, eta bestetik, euskal kultura erakunde desberdinetan integratzeko prozesuaren zainketa bat egitea.

> > SEGIPEN ADIERAZLEEI BURUZ INDARREAN DAUDEN ESKU HARTZE INSTITUZIONAL NAGUSIAK

- Batzuetan frantses Estatuak, Departamenduak, Eskualdeak eta EKE-k badituzte, politika publikoen eta laguntzen diren proiektuen segipenaren koadroan, adierazle kualitatibo eta kuantitatiboak (adibidez: irakurketa publikoa, irakaskuntza artistikoa, ikuskizun biziduna, EKE-ren euskal kulturari buruzko ataria, etab.). Aldiz, entitate batetik bestera adierazle eta datuak lantzeko moduak oso desberdinak izan daitezke.
- Euskal Hirigune Elkargoak euskal kulturaren eskumena hartu du.

> > GOMENDIOAK

Ondarearen gerizan, belaunaldi gazteenganako transmisioan, praktika-sorkuntzan, hedapen-sustapenean adierazleak ezarriko dituen behatoki bat sortu.

BURURAPENA

Txosten hau euskal kulturari buruzko lehen urrats bat da, sakondu beharko dena. Osagai nagusien zerrenda ez exhaustiboa ematen du, osagai horien dinamikak aztertzen ditu kontserbazioaren, transmisioaren, praktika-sorkuntzaren eta hedapen-sustapenaren arloetan.

Honela, euskal kultura, kultura guziek egiten duten bezala, beste kulturekin kontaktuan aldatzen da, bere tradizio propioa egokituz aldatzen den bezalaxe. Ikusten da ere, oinarri berezi batean errotua dela; kultura kolektibo bat osatzen duena, arte eta kulturaren arlo guziak hartzen dituen, eta euskararen erabilpenarekin, berezitasun formalekin eta kulturaren praktika parte hartzailearekin bereizten dena.

Diagnostikoak azaleratu duenez, kohesio soziala sortzen duen kultura aberats eta dinamikoa da, baina hauskorra. Agertu diren ahulezien artean praktiken estandarizazioa, transmisio sareen egituraketa eza, jakitateen gerizan eta balorapenean dauden gabeziak, eta euskal kultura eta euskararen arteko haustura arriskuak aipatu behar dira. Guzi hauek euskal kulturaren geroaren galdera pausatzen dute.

Beraz, euskal kulturaren geriza, garapena eta sustapena bermatzeko ezinbestekoa da, proiektu estrategiko bat bideratzea, eta euskal kulturaren eta artearen arlo bakoitzean, praktikak, sorkuntzak eta publiko guzienganako hedapena eta balorapena laguntzea, eta aldi berean belaunaldi gazteenganako transmisioa eta memoriaren geriza eta balorapena segurtatzea. Beharrezkoa da ere, hizkuntza politikarekin batera, garapen estrategiak garatzea, euskara euskal kulturaren muinean birkokatzeko, bereziki belaunaldi gazteei begira. Hori, mugaz gaindiko eremuan osagarritasunak bilatuz egin behar da, hauek aterabidearen zati bat eman dezaketelako. Azkenik, estrategia eraginkor eta iraunkor bat

garatzeko behaketa eta norabide tresna baten datuetan oinarritu behar da, hots, euskal kulturaren egoera eta etorkizunerako norabideak emango lituzkeen tresna bat.

Behar hauei begira, euskal kulturaren gaur egungo antolaketaren analisiak agerian utzi du ekintza publikoa lurraldean desberdinki ematen dela.

Euskal kulturaren alorrean, erakunde publikoen esku hartzea bi mailatan ematen da:

- Euskal kultur erakundearen finantzaketa: euskal kulturaren sustapenaren ardura duen erakunde berezia, eta instituzioek elkarrekin ordezkariekin batera kudeatzen dutena;
- euskal kultura “eskubide amankomunetako” dispositiboetan sartzeara.

Azken 27 urteotan, Euskal kultur erakundeak, jakintza, eta euskal kulturaren garapen eta egituraketa lan handia egin du. Horren erakusle dugu berriki frantses Kultura eta Komunikazio Ministerioak “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa” labela eman izana. Lan taldearen lana zitala izan da eta metatu den jakitatea gerorako zaindu beharreko kapitala da. Halere, elkarre estatusa duelako, EKE-k ez du kultura politika publikoak erabakitzeke eskumenik, eta kultura eskumena beste erakundeekin partekatua den neurrian, “euskal kulturaren” tresna berezi hori kultura politika publikoak erabakitzen diren gunetatik aparte gelditzen da.

Aldi berean, euskal kultura ekintza publikoaren baitan sartzean, eskubide amankomunetako dispositiboetan euskal kulturaren berezitasunak guttiago kontutan hartzen dira, eta EKE-k du maila horretan esku hartze publikoaren rola betetzen.

Bai EKE-k baita beste erakundeek ere garatu dituzten tresna eta ekimenak barreiatuak dira eta komenigarria litzateke osagarritasunean gehiago hartzea, koherentzia eta irakurgarritasunean irabazteko. Izan ere, ikuspegi partekaturik ez den ber, eskumena duten erakundeek maiz eskaera bati diru bidez erantzuten diote, laguntza gutxi edo egituraketa eskasa duten arloetan esku hartze proaktiboa erakusteko ordez.

Bukatzeko, ezinbestekoa dirudi ekintza publikoaren osagarritasuna, koherentzia eta irakurgarritasuna bermatzeko euskal kulturaren gobernantza moduak zehaztea eta indarrean ezartzea. Helburua: euskal kultura zabalaren sustapena bermatzea, eta biztanleei kultura kapital horretara hurbiltzeko eskubide berak segurtatzea.

Ekarpen hau kultura alorrean eskumena duten erakundeei, hots frantses Estatuari, Eskualdeari, Departamenduari eta Euskal Hirigune Elkargoari helaraziko zaie euskal kulturarentzako egokienak liratekeen gobernantza modalitateez hausnartzeko, EKE-ren bilakaera aukeren aztertzeke, eta erakunde bakoitzaren kultur politikak zehazteko modalitateez gogoetatzeko.

ERANSKINAK

1 ERANSKINA: DEFINIZIOAK ETA GLOSARIOA

> Zenbait definizio

Bilketa - Kontserbazioa: lurralde baten memoria kolektiboaren inguruko lekukotasun eta euskarrien biltzea (idatzizkoak, ahozkoak, bideoak, etab.), eta heien kontserbazioa leku eta baldintza egoki eta berezituetan.

Hedapena - Balorazioa: arte diziplinak publiko orori ezagutaraztea eta balioa ematea.

AKH (EAC): Arte eta Kultura Heziketa (eskola ingurunean) edo beste publiko batzuei begira (ekonomia mundua, publiko oztopatuak, etab.).

Irakaskuntza artistikoa: egituretan oinarritzen da, baina kultura eta hezkuntzaz arduratzen diren ministerioen, lurralde kolektibitateen eta artisten parte hartzea beharrezkoa du. Irakaskuntzako egitura pribatuak ere, maiz elkarteak direnak, ekarpen handia egiten diote irakaskuntza artistikoari hainbat diziplinatan (dantza, musika, antzerkia, etab.).

Kultur eta sorkuntza industriak – KSI (ICC): bederatzi arlo nagusik osatzen duen taldea: arte grafikoak, musika, zinema, telebista, irratia, ikuskizun biziduna, prentsa, argitalpenak eta bideo jokoak.

Irakurketa publikoa: liburuaren eta orokorki idatzizko kulturaren inguruan antolatzen diren ekintza guztiak. Usaian, mediateka eta liburutegiek bideratzen dituzten ekintzak dira. Irakurketa publikoaren arloa ez da publikoaren aitzinean irakurtzearekin nahastu behar.

Kultur zilegitzea: publikoak, diru emaileek eta preskriptoreek aitortzen duten arte eta kultura ekintza bat. Aitortza horrekin hain zaletua ez den publiko batengana hedatzeko aukera eragiten dute.

Bitartekaritza: arte lan bat -mota guzietakoa- eta publikoa (eskolak, publiko zabala, publiko oztopatuak, etab.) harremanetan ezartzen dituen ekintza. Ekintza hauek forma orotatikoa izan daitezke (publikoa eta artistaren arteko zuzeneko elkarrizketa, erakusketa baten bisita gidatua artistaren eskutik, mintzaldiak, haurrentzako tailer pedagogikoak).

Praktika - Sorkuntza: kultur praktika bat barneratzea eta leku pribatu nahiz publikoetan praktikatzea; artista baten eta artista talde baten sorkuntza berria.

Tratamendua: bildu den materiala numerizatzeko ekintza, ondotik atxiki eta publikoari erakusteko.

Transmisioa - Formakuntza: hezkuntza ingurune arautu batean jakitateak transmititzeko ekintza (AKH eta irakaskuntza artistikoa).

Murgiltze bidezko transmisioa: irakaskuntza ez den eta koadro ez formal batean arte edo kultura jarduera bat ezagutzea eta bereganatzea, adibidez: elkarretaratze publikoetan euskal kantuak edo jauziak praktikatzea (Baionan Kantuz).

Baloratzea - Eskura ezartzea: bilketa edo kontserbaziotik datorren material kultural bat eskura ezartzea, helburu desberdinekin (balorazio pedagogikoa, artistikoa, numerikoa, zientifikoa, etab.).

> Glosarioa

AKH (EAC): Arte eta Kultura Heziketa

BnF : Bibliothèque nationale de France

EEP (OPLB): Euskararen Erakunde Publikoa

EHAGE (ESAPB): Euskal Herriko Arte Goi Eskola

EHE (CAPB): Euskal Hirigune Elkargoa

EHESS: École des Hautes Études en Sciences Sociales

EIJB (NAP): Eskolaldi Inguruko Jarduera Berriak

EKAHAS (SISCB): Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikata

EKE (ICB): Euskal kultur erakundea

Eskualdea: Akitania Berria Eskualdea

HELEP (EPCI): Herrien Arteko Lankidetzarako Erakunde Publikoa

IDB: Iparraldeko Dantzarien Biltzarra

IKN (CSA): Ikus-entzunezkoen Kontseilu Nagusia

INA: Institut National de l'Audiovisuel- Ikus-entzunezko Institut Nazionala

Kgez (Drac): Kultura Gaietarako Eskualdeko Zuzendaritza

KKM (MCC): Kultura eta Komunikazioaren Ministerioa

NOTRe legea: Frantses errepublikaren lurralde antolaketa berriari buruzko 2015eko abuztuaren 7ko 2015-991 legea

PADK (CD64)/Departamendua: Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseilua

PADL (BDPA): Pirinio Atlantikoetako Departamendu Liburutegia

ZZN (CNC): Zinema eta irudi bizidunen Zentro Nazionala

2. ERANSKINA: ELKARRIZKETATUEN ZERRENDA

DEITURA	IZENA	ARLOA	LANBIDEA
ALBOR	Philippe	Musika	Musikari
ALKHAT	Aguxtin	Musika	Musikari
AMESTOY	Koldo	Ipuina	Kontalari
BARROSO	Odei	Bertsolaritza	Bertsolari
BERTERREIX	Xan	Kabalkadak	Idazle/Antzezlar
BIDART	Betti	Musika trad.	Musikari
BISCARY	Thierry	Musika/Kantua	Kantari/Musikari
BISKAI	Katti	Hedapena	Kultura arduradun
BLONDEAU	Simon	Zinema	Zinema aratekolaria
BORDA	Itxaro	Literatura	Idazle
BROCA	Jean-Claude	Argazkilaritza	Argazkilari
CARRÈRE	Ximun	Ikus-entzunezkoa	SCIC ikus-entzunezko zuzendari
CAUHÉPÉ-FRANÇOIS	Raphaël	Argazkilaritza	Argazkilari
CAZAUBON	Joxe	Dantza	Dantzari
CLAVÉRIE	Filgi	Hedapena	Kultura arduradun
COUSTEAU	Frantxoa	Antzerkia	Antzezlar
DAGUERRE	Pantxoa	Kantu korala	Kantari
de EZCURRA	Philippe	Musika	Musikari/Kantari
DOLOSOR	Julen	Gaur egungo musikak	Biarritzeko gaztetxearen arduradun
DRUMOND	Willis	Gaur egungo musikak	Musikari
DUPRAT	Frédéric	Arte plastikoak	EHAGE-ko zuzendari
ERRECART	Noël	Argazkilaritza	Argazkilari
ERROTABEHÉRE	Maialen	Musika	Kantari
ERROTABEHÉRE	Xan	Ipuina	Kontalari
ETCHEVERRY	Johanna	Dantza garaikidea	Dantzari
ETCHEVERRY	Xabi	Musika	Musikari
ETCHEVERRY-AINCHART	Peio	Literatura	Argitalpen arduradun
ETCHEVERS	Kakex	Argazkilaritza	Argazkilari
ETXEEST	Johañe	Dantza	Dantzari/IDBko misio arduradun
ETXEVERRIA	Jokin	Zinema	Film ekoizle
ETXEZAHARRETA	Lucien	Literatura	Idazle/Argitalpen arduradun
FREIXA	Jordi	Kantu korala	Koro buru
FUCHS	Ximun	Antzerkia	Antzezlar
GAVAZZI	Michaël	Musika/MRK	Maurice Ravel Kontserbatorioaren zuzendari
GIRAUD	Christiane	Arte plastikoak	Zizelkari
GOYHENECHÉ	Roger	Dantza	Dantzari/Kultura arduradun
HAIRA	Pierre	Musika trad.	Musikari
HEGUY	Txomin	Antzerkia	Antzezlar
HIRIGARAY	Pantzo	Antzerkia	Idazle/Antzezlar
IRIGOIEN	Arantxa	Antzerkia	Idazle/Antzezlar
IRIGOIEN	Mattin	Antzerkia	Idazle/Antzezlar
IRURETAGOIEA	Jon	Dantza	Dantzari
ITOIZ	Beñat	Musika trad.	Musikari
ITZAINA	Joana	Bertsolaritza	Bertsularien Lagunen lehendakari
KARRIKA	Aimar	Bertsolaritza	Bertsolari
LABESCAU	Serge	Musika	Musika eskolaren zuzendari
LABEYRIE	Peio	Dantza	Dantzari
LANDART	Daniel	Literatura	Idazle
LARRALDE	Patrick	Musika	Musika eskola arduradun/Musikari
LASCARAY	Patxi	Argazkilaritza	Argazkilari
LAYMOND	Julie	Arte plastikoak	Arte zentro arduradun
LAZKANO	Pascale	Dantza	Dantzari/Koreografo
LECUSSANT	Elisabeth	Dantza	Dantza irakasle
LESGOURGUES	Filipe	Musika trad.	Herri Soinuren lehendakari
MONACO	Maitena	Kantu trad.	Kantari
OLHAGARAY	Denise	Kantua/Musika	Irakasle
ONDICOLA	Patrick	Argazkilaritza	Argazkilari
PEREZ	Agnès	Dantza	Dantzari
TELLERIA	Pantxika	Dantza garaikidea	Koreografo
THERET	Mizel	Dantza garaikidea	Dantzari
VIVIER	Matthieu	Dantza	Dantzari
ZUBILLAGA	Magali	Kantu trad.	Kantari

3. ERANSKINA: PIRINIO ATLANTIKOETAKO DEPARTAMENDUAREN OHARRA: DISPOSITIBOEN DESKRIBAPENARI HITZAURREA: EUSKAL KULTURA DEPARTAMENDUAREN DISPOSITIBOETAN

Xehetasun gehiago nahi baduzu, ikus itzazu kulturari buruzko departamenduaren dispositiboak (eskemak eta araudiak), eta Departamendua/EKE-ren arteko hitzarmena.

Kultura eta euskal kultura

Departamenduarentzat, euskal adierazpeneko kulturan euskal izaera duten edo/eta euskarazko kultur ekoizpenak sartzen dira. Alabaina, euskara ez da hizkuntzaren biziberritze ikuspegitik hartzen, politika hau Euskararen Erakunde Publikoaren betekizuna baita. Euskara euskal kulturaren funtsezko ezaugarri bezala hartu behar da, bere determinismoa azkartzeko, bere berezitasuna lehenesteko, baina ezaugarri eskusiborik izan gabe. Hortaz, ongi bereiztu behar dira kultur ekintza eta ekintza linguistikoa.

Departamenduak euskal kulturaren alde daraman ekintza bi printzipiotan oinarritzen da:

- Euskal kultura eskubide arrunteko dispositiboetan integratzea (kultur ekintzan ez da euskal kulturari bereziki bideraturiko dispositiborik).
- EKE-ren diruztatzea eta segipena (246 000 € urtean). Hitzarmen batek EKE-k Departamenduarentzat betetzen dituen eginkizunen koadro berezia zehazten du.

EKE-rekiko partaidetza

EKE-k Departamenduaren konturako egiten dituen ekintzak hiru esku hartzetan banatzen dira: jakitate eta aholkularitza betekizuna, alde bakoitzaren ekintza edo dispositiboen inguruko hurbileko lankidetzak, eta obralaritza.

EKE-ren jakitateari esker, euskal kultura eraginkortasun handiagoarekin sar daiteke departamenduaren eskubide arrunteko dispositiboetan. Honela, EKE-ren ekintzak ez dira Departamenduaren eskumenetan sartzen, baina departamenduak bideratzen dituen kultur politikak aberastu eta osatzen ditu.

Ikuskizun biziduneko amaturren praktiken adibidea hartuz, Departamenduak ez du arlo horretan sartu nahi izan, profesionalenean espezializatzeko (“ekitaldi tradizionalak” izan ezik). Ondorioz, EKE-k du soilik amaturren, profesionalek formatutako amaturren eta profesionalizatze bidean diren amaturren arloen eskumena.

Ordea, talde profesional batek eramango lukeen “euskal kultura” proiektu bat (adibidez: euskarazko sorkuntza bat) beste edozein bezala sartuko da Departamenduko eskubide arrunteko dispositiboetan. Euskal kulturaren eta euskararen balorapena kultur eragileekin hitzarmenak egiteko irizpide bat bezala identifikatua da, baina diru laguntza gehigarririk gabe. Batzuetan, talde profesional, hedapen areto eta festibalentzat, Departamendua/EKE-ren arteko diruztapen bikoitzak onuragarri izan daitezke: horri esker bulkada on bat eman dakioke euskal kultura eta euskararen alorretan dabilzan eragileentzat, bereziki euskarazko ikuskizun bizidunaren eskaintza azkartzeko. Ikuskizun biziduneari dabilzan eragileei ematen dizkien laguntzez gain, EKE-k euskarazko ikuskizun biziduna egituratzeko programa osagarriak garatzen ditu, hala nola Ibilki eta Kimu.

Hausnarketarako lehen elementuak:

Departamenduak **kultura eta euskal kultura sostengatzeko politika irmo bat garatu du**; oroitarazten dugu Departamenduko Artxiiboak, irakurketa publikoa eta irakaskuntza artistikoa direla derrigorrezko eskumen bakarrik.

Gainera, euskal kultura eskubide arrunteko dispositiboetan sartzearekin, alde batetik, eta EKE-ren bidez euskal kultura kontutan hartzen baita bestetik, **Departamenduak euskal kulturaren alde daraman ekintza publikoa “barreiatzen” da** eta ez da argi ikusten. Adibidez, “euskal kultura” adierazlerik ez da kultur politiketan. Horiek horrela, eta estrategia zehatzik ezean, politika publikoek arlo egituratuaren beharrei eusten diete (**“erreakzio-dirulaguntza”** printzipioa), helburuetan oinarritutako logika bati bultzadarik eman gabe.

Aipatu behar dugu ere, Departamenduak bere aldetik eta EKE-k beretik egiturentzako bideratzen dituzten **laguntza eta formakuntza** ekintzek (adibidez DLA-Lekuko Laguntza Dispositiboa) **osagarriagoak izan beharko luketela**.

Gidaritza tresnarik ez denez, ez da baztertuak diren eremuei (sorkuntza, hedapena, transmisioaren ataletan – eta zein eremu/lurralde?) edo arloei (herri antzerkia, kantu tradizionala, musika tradizionala) buruzko gogetarik. **“Behatokiaren” logika batean, laguntza tresnak eta euskarriak sortzea ezinbestekoa da**. Zergatik ez Hego Euskal Herriarekin izendegi amankomun bat egin eta mugaz gaindiko lan bat ?

EKE-k egin duen diagnostikoa **erabaki politikoak hartzen lagunduko duen tresna bat** ukateko ezinbestekoa da. Interesgarria litzateke **“baliabide” egiturak identifikatu eta horiengana jotzea, euskal kulturaren aldeko politika bat zehazteko**.

Lan hau HELEP-ari baliagarri izanen zaio bere politika zehaztu eta gauzatzeko, baita lurraldeko maila desberdinei ere, **politika eraginkorrago, lankidetsuago eta osagarriago bat** bideratzeko.

4. ERANSKINA: AKITANIA BERRIKO KGEZ-ren (*Drac*) OHARRA EUSKAL KULTURAZ EHE HELEP BERRIAN

Segidan aurkituko dituzue Kgez-ren (*Drac*) ohar eta proposamenak, helarazi dizuegun kultura eta arteak arloz arlo osatutako notan bilduak direnak. Nota hau EKAHAS eta EKE-k eraman duten ikerketaren eta euskal kultura eskumena hartzeari buruzko eztabaidaren koadroan egin zen, baita osatzekotan zen EHE HELEP berriak hartu beharko lukeen kultura orokorraren hautazko eskumenaren baitan ere.

Aitzinsolas gisa, frantses Estatuak, KKM-ak eta Kgez-ak euskal kulturaz duten ikuspegiaz eta jarreraz zehaztaperen zenbait.

Frantses Estatuak (KKM) hogeitaz hamar urte baino gehiago darama euskara eta euskal kulturaren alde inbertitzen.

Engaiamendu hori beti hitzarmen bidez gauzatu da, Hautetsien Kontseiluan eta Euskal Kulturaren Aldeko Herrien Arteko Sindikatan bildu ziren lekuko kolektibitateekin, departamenduko kontseiluarekin eta eskualdekoarekin: 1997ko *Comité interministériel d'aménagement et de développement du territoire (CIADT)*, 2000-2006ko hitzarmen berezia, proiektu kontratuaren lurraldeko atala, eta Estatua-Eskualdea plan kontratua.

Hitzarmen horietan kultura eta artea beti kokatuak izan dira lurralde ikuspegi orokorrako batean, non garapen ekonomikoa, antolamendua, ikerketa eta unibertsitatea biltzen ziren.

Hitzarmenek kultura zuten xede nagusi, EKE-ren sortzearekin, eta hastapenean euskararen geriza eta sustapena ere bere eginkizunetan zirelarik. Urtero 200 000 €ko aurrekontua zuen. 2004tik goiti, EEP-ren sortzearekin, KKM-a gainera hizkuntza politikaren alorrean engaiatzen zen EEP-en parte hartuz, gaur egun urteko 246 000 €ko parte hartzearekin.

Beraz, frantses Estatuak (KKM, Kgez) euskararen eta euskal kulturaren aldeko esku hartze berezia du, bi administrazio eta finantza dispositibo dedikaturen bidez.

Indar berezi hori UNESCO-ren mundu ondareko hizkuntza bat eta kultura bat desagertzeko zorian zirelako, eta frantses ondare nazionalako eskualdeko hizkuntza eta kulturen aitortza emateko egin zen.

Esku hartze berezi horrek ez ditu eskubide arrunteko kultur eta hizkuntza dispositiboak ordezkatzeko, baizik eta osatzen, izan sorkuntza, hedapena, formakuntza, hezkuntza, kultur industriak eta komunikabideen eskubideak bezalako alorretan.

Arte eta kultura arloetan ikusiko dugun bezalaxe, frantses Estatuaren (KKM, Kgez) esku hartzean “eskubide arrunteko” eta “xedapen berezietako” bi dinamika uztartzen dira: eskubide arrunteko dispositiboak etengabe egokitzea, euskara eta euskal kulturaren berezitasuna kontutan har ditzaten, eta EKE eta EEP bezalako tresna berezien ekintza, euskara eta euskal kultura nazio eta nazioarteko ondarean eta sorkuntzan bete betean sar daitezen. Kgez-ren erantzunak proposatutako izendapenak segitzen ditu.

Alabaina, izendapen horietan bi hutsune ageri dira:

- EKE-k arkitektura ondarean esku hartzen du, baina ekintza hori ez da izendapenetan agertzen. Gidaritza Batzordeak galdera pausatua du, eta gure aburuz lur zoruen eskubideari eta hirigintzari ere lotu behar zaizkie. Hortaz analisia bat eskatuko dugu;
- Komunikabideak eta liburuaren kultur industria, berez kulturakoak izanik, EEP-ren ekintzetan agertzen dira gehiago, hizkuntza politikan duten eragina dela eta, baina ez

dira osoki agertzen EKE-k proposatu dituen izendapenetan. Hutsune hori bete beharko da Gidaritza Batzordeak kultura eskumenaz ikuspegi ahal bezain zehatza ukan dezan. Gure erantzunetan aipatzen dugu.

I- Literatura

I-1 Ahozko literatura - bertsolaritza

Kgez-ak (*Drac*) EEP-ren esku hartzearen bidez sostengatzen du bertsolaritza sorkuntza eta hedapena (irakaskuntzan sartua baita), eta EKE-ren bidez ere (ekitaldiak).

Arte horretatik abiatuz egiten den Arte eta Kultura Heziketa, AKH-ren alorrean (Hego Lapuriko Hirigunea eta Errobi) CLEAC-k eginiko proposamenetan sartzen da.

Gipuzkoako Xenpelar-en proposamenak (grabaketak kontserbatzeko lekua) bide berri bat ideki du euskal fondo dokumentalean sartzeko eta BILKETA sarearen bidez eskuragarri izateko. BILKETAn proposamena lantzen ari dira, EKGZ-ren sostengu bikoitzarekin: azpiegitura informatiko dokumentarioa (DGD) eta euskal testuen balorapen ekintza (CTL).

Gai hau gainera, “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ren ikerketa alorretan sartzen da tradizio-sorkuntza harremanean.

Zehaztu behar dugu arte eta kultura atal hau mugaren bi aldeetan egituratua dela.

UNESCO-ren mundu ondarean izendatua izateko prozedura batean sartua da.

EHE HELEP berriarentzako erronka handia: mugaz gaindiko antolaketa, UNESCO-ren labela, antolaketa tekniko eta artistikoa, kontserbatzeko eta eskura ezartzeko soluzio bakar bat (BILKETA sorkuntza garaikidera ideki, edo mugaz gaindiko beste formula bat).

I-2 Ahozko literatura: kontuak

- Atxiki/bildu: arlo artistiko eta kultural guzientzat bezala, EKGZ-ak EKE-rekin (bilketa) memoriaren inguruko jardunak, tratamendu dokumentarioa eta behin betiko kontserbazioa sostengatzen ditu. Bestalde, Departamenduko Artxiboa ere sostengatzen du memoriaren kontserbatzeko duen eginkizunean (azken bi Estatua-Eskualde Plan Kontratuen (EEPK/*CPER*) neurri bat, eta hortaz arduratzen den Departamenduko Artxiboetako zerbitzua teknikoki ekipatzeko laguntza azkarra). EEPK-ren baitan (eta Europako fondoekin) biziki berezia den “herri artxibategi” zerbitzu horri memoria etno-numerikoaren behin betiko kontserbaziorako eginkizuna eman diogu.
- Arte hau ere, “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ren baitan ikerketa gai izanen da.
- On-line AKH modulo bat eraikitzekeko esperimentazio bat (EKE, Baionako Euskal Museoa eta BILKETA), Kgez-ren diruztatzearekin eta “P@trinum” ikerketa programarekin, euskal kultura AKH-an sartzeko, euskal herrian eta euskal herritik kanpo ere.

EHE HELEP berriarentzako erronka handia: Kultura Ondare Imateriala (KOI/PCI)-aren hedapena eta baloratzeta. Horretan departamenduko artxiboak bere mugak laster gaindituak izanen ditu. Ikuskizun bizidunaren aitortza eta hedapen estrategia bat eraiki behar da, baita Internet-en ere (BILKETA programan landua).

I-3 Literatura idatzia

- Kgez-ak EKE-ren bidez euskarazko literatura sorkuntza laguntzen du, bereziki idazketa beka baten bidez.
- Liburuaren ekonomiari dagokionez (argitalpena/liburu dendak) Kgez-aren laguntza EEP-ren bidez ematen da: Eskualde Kontseiluko Ecla agentziak egin duen ikerketa ekonomiko baten ondotik (Kgez-ak lagundua) argitaletxe, banatzaile eta liburu dendek ez baitzuten euskarazko fondo nahikoa, frantses Estatuak (Kgez), eskualde kontseiluak eta liburuaren Zentro nazionalak sortu zuten eskubide arrunteko dispositiboan sartzeko, laguntza dispositibo berezi bat ezarria izan da.
- Argitaletxeak laguntzeko EEP-ko langile batek formakuntza bat segituko du.
- Liburutegietan publikoari zuzeneko aurkezpenak egiteko, frantses Estatuak hainbat laguntza dispositibo ezarri ditu:
 - ✓ liburutegi bat idekitzean edo zerbitzu bat sortzean, funts bat osatzeko laguntza, DGD fondoen gainean (%50 arte) eta eguneratzeko osagarriak EEP-ren kredituetatik;
 - ✓ euskal literaturaren inguruko laguntza, BILKETA-ren bidez (CTL dispositiboa), EKE-ren laguntzarekin (Kgez-ak EKE eta BILKETA laguntzen ditu), eta sorkuntza garaikideari buruzko zaintza bat, liburuzainei laguntza eskainiz (IKAS-en funtzioa zena eta orain BILKETA-k betetzen duena);
 - ✓ AKH-ko ekintzak, hautagarriak diren euskal testuei buruz;
 - ✓ BILKETA eta BDP-ren arteko lankidetzaren baitan, euskal fondoa animatzeko formakuntza liburuzaintzat;
 - ✓ bidean: euskal fondoen mapa profesionala eta erabileren behaketa.

EHE HELEP berriarentzako erronka handia: Euskal funtsei eta euskal kulturari buruzko animazioa liburutegi guzietan sartzea, ondare funtsak ukan ala ez. Gidaritza batzordeak XAHAS (SIVOM) baten galdera pausatzen du; irakurketa publikoaren alorrean, EHE-ren “sare” eskumena kontutan hartu beharko litzateke, katalogo, on-line informazioa, zerbitzu berriak elkartzuz, Bordeaux-métropole-ren programaren adibidea hartuz. Baionako Liburutegiaren “Kontratu numerikoarekin” koherentzia den proposamena da. Norabide horrek herrien esku uzten du ekipamenduen eta herriko langileen ardura.

II- Euskal antzerkia

Ikuskizun biziduna

Kgez-aren esku hartzea honako hauen bidez gauzatzen da, eskubide arrunteko dispositiboetan:

1) talde eta konpainien aldeko arte sorkuntzarako sostengua:

- Petit Théâtre de Pain eta Théâtre du Rivage bezalako arte taldeekin hitzarmenak eginez;
- sorkuntza/ekoizpen puntualei emandako laguntzaren bidez (adibidez: Elirale edo Traversée).

2) arte hedapena eta koprodukzioari sostengua, hauen bidez:

- “Scène nationale du Sud Aquitain”;
- “Centre chorégraphique National”;

- HAMEKA arte sorkuntza tailerra.

Koadro horretan, frantses Estatuak nazio mailan hedatuak izan daitezkeen euskal kulturaren sorkuntza garaikideak hedatzera laguntzen du.

Koadro horretatik kanpo, frantses Estatuak EKE-ren bidez (baita EDB ere), nagusiki egoeren arabera eta hitzarturik, euskal kultura eta bere praktikak laguntzen ditu. Horrek segitu beharko luke.

NB: Arreta berezia eman beharko zaio amatur/profesionalen kasuari, lege eta arauen aldetik (amaturrei buruzko dekretu bat bidean baita – LCPA legea).

III – Arte bisualak

Lurralde honetako arte bisualetarako ekintzak eta formakuntzak Kgez-ak eramaten ditu eskubide arrunteko dispositiboetan.

Baionako hiriguneko bi arte eskolek (Biarritzeko ESA des Rocailles – CNAP Art) eta (Baionako Arte Eskola – ESA, MANAA konkurtsoetarako 2 prestaketa klase; 2015ean 1300 amatur izen emate, AKH, ekintzak eskoletan, Eskola eta Zinema departamendu mailako koordinazioa) 2017ko urtarrilaren 1etik goiti bat egingen dute. Bat egite horren helburua, eskola bakoitzaren indarrak batzea eta Bordeleko Arteen Goi mailako Irakaskuntza Eskolarekin lotura egitea da (2018ko sartzerako).

Bestalde, 2017an Kgez-ak 2013an Bidarten Ipar Euskal Herriko arte garaikidea sustatzeko sortu zen COOP elkartearen ekintzak segituko ditu, bereziki Charles Freger egonaldi ibiltaria (Baionako Euskal Museoan ikusgai diren lanak). COOP-en zeregina, arte goi eskoletako diplomadun berriak baloratzea eta laguntzea da. Ipar Euskal Herrian arte plastikoetarako joera bat ideki da eta bertako arte garaikidea hedatzeko egitura eza agerian ezarri da. Erakundeekiko lankidetzak eta partaidetzei esker (Eskualdea biziki inplikaturik da) Bidarteko geltoki zaharrean kultur ekipamendu berri bat sortzeko dirua atxemateko. “Arrêt voyageur” deituriko eraikina berriz idekitzeko, HELEP berria izanen da sustatzailea 2017ko urtariletik goiti.

EKE-k ekintza batzuk sostengatzen ditu, segur aski “euskal” kutsu edo identifikazio bat dutelako, baina berari dagokio hortaz azalpenak ematea.

IV- Zinema

ZZN-aren eta herriko eskubidearen aldeko eskualdeko batzordearen (Eskualdea/ZZN) laguntzak.

EKE eta EEP-ren laguntza bereziak komunikabideentzat.

V – Arkitektura

Hausnarketa interesgarria, “nolako arkitektura euskal lurraldean?”, baina oraindik proposamenik gabe. Ikusteko beraz.

- Ondarearen kudeaketaren alorrean Gidaritza Batzordearen gogoetan landua (XAHAS edo Herriak ?)
- Saihesgaitza, ezen Arkitekturaren eta Ondarearen Balorizazio Eremua-k EHE-ren esku izan daitezkelako.

VI – Ekitaldi erritualak, KOI, “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”

Izendapenetan dimentsio hau piska bat barreiatua da.

“Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ren proposamena, Euskal Hirigune Elkargoak kultura eskumenaren inguruan zeraman hausnarketaren aldi berean iritsi da. 2016an label eskaera bat egin denez, dokumentu honetan agertu behar litzateke...

Euskal kulturaren behaketa zientifiko eta bilakaeraren zeharkako ekimen bat bezala kokatzen da.

Euskal kulturaren atari bat sortzea proposatzen du. Ataria, informazio, orientazio, laguntza eta hedapen tresna bat litzateke, berau arlokako beste atariekin loturan izanik (BILKETA, dantzari buruzko datu basea, etab.).

EKE-k eta EHESS-ak (Giza Zientzietako Goi Ikasketan Eskola) daramate, zientzia komunitate osoarekin eta artista taldeekin loturan.

Euskal kulturarentzat erronka nagusia dirudi.

“Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa”-ri lotutako hitzarmena, desagiten ari den EKAHAS-i edo EHE-ri dagokio, kultura eskumena dela eta, baita “Ethnopôle basque – Euskal etnopoloa” osatzen duen EKE/EHESS taldeari, eta KKM/Kgez-ri ere, aurreikusiak diren ekintzekin.

EHE-rentzako erronkak: Egitura etnologiko desberdinetan osa daitezkeen datu baseak egituratzeko politika bat diseinatzea EHE-ren programa bat izan liteke. Datu hauek arloka bildurik (BILKETA testuentzat, Baionako Euskal Museoa etnologiarentzat, beste bat musika eta dantzarentzat), sorkuntzarako erabilgarri izan litezke, eta Departamenduak behin betiko kontserbazioa egin lezake.

Bigarren etaparentzako gomendioen zain, bereziki EEP eta EKE egitura berezien balizko antolaketa berrien opzioak barne.